

goiena

Zu hemen zaude.

STOLTZ FRERES ORGANOA BERRITZEKO LANAK HASI DITUZTE

Bergarako San Pedro elizako XIX. mendeko organo bitxiaren tutuak desmuntatzen hasi dira, Frantziara eroan eta konpontzeko. 30 hilabeteko prozesua izango da / 28

Lyongo Michel Jurinen tailerreko langileak organoa desmuntatzen hasi dira oraingo astean Bergarako San Pedro elizan; martxoaren 4ra arte iraungo dute lan horiek.

XABIER URZELAI

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA / 23

SINADURAK

ANAJE
NARBAIZA / 8

JONMIKEL
INTSAUSTI / 35

ANE SANCHEZ
ZEZIAGA / 11

MIKEL
BIAIN / 48



+

Telefono kabinak:
iragarritako heriotza
baten kronika

Asier Erostarbe
Tome historialariari
elkarriketa

SKODA ENYAQ IV



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70



Bailarako enpresak eta Lanbide Eskolak, eskutik

Ulmak eta Fagorrek hitzarmen berria sinatu dute Aretxabaletako Lanbide eskolarekin, lan eremuan sumatu dituzten premiei "erantzun bateratuak" emateko. Bailarako enpresetan galdaragintza eta soldaduran prestakuntza duten langileak falta dira

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Soldadura eta galdaragintzaren esparruko profesionalak aurkitzeko zailtasunak dituztela azaldu dute Fagor eta Ulma enpresek, eta, pandemiaren eraginak gainditu eta "argi izpiak" ikusten hasi diren honetan, langile kualifikatuak lortzeko bidea indartu nahi izan dute Aretxabaletako Lanbide Eskolarekin (ALE). Enpresen eta eskolaren arteko harremana ez da berria, baina eguaztenean sinatutako hitzarmenarekin pauso bat gehiago eman nahi izan dute elkarlanean. ALEk erdi eta goi mailako bi ziklo ditu alor horietara bideratuta: Soldadura Zikloa eta Galdaragintza eta Eraikuntza Metalikoen Zikloa. Bertako zuzendari Joseba Beristainek azaldu duenez, "erronka handiak" datoz bailarako lan mundura, eta, horiei erantzuteko, batera jardutea "ezinbestekotzat" jo du. Hala, hitzarmen berria "erreminta garrantzitsua" dela esan du: "Lanpostu batzuk desagertu eta berriak sortuko dira. Horrenbestez, langile-profil berriak beharko dira, langile kualifikatuak, eta, horretarako, eskutik joan beharko dugu enpresek eta formakuntza zentroek". Horrez gain, azaldu du garrantzitsua dela "ikuspegia zabaltzea" eta



Mancebo, Beristain eta Ibabe, eguaztenean egindako agerraldian. TXOMIN MADINA

gizartean egon daitezkeen uste okerrak gaintzea: "Galdaragintzan eta soldaduran lan egiteko moduak asko aldatu dira; ez dute zerikusirik duela urte batzuetako jardunekin. Lan baldintzak ere asko aldatu dira".

Lan eskaintzak, gora

Joseba Beristainek gain, Mertxe Ibabe Ulma Manutentzio Zerbitzuetako pertsonal arloko kidea eta Gemma Mancebo Fagor Industrialeko pertsonal ardura duna ere izan ziren hitzarmena aurkezteko agerraldian.

Ibaberren ustez, hitzarmen berriak orain arte izan duten harremana "sendotzea" eragingo du, eta denentzako onuragarria izango delakoan dago. "Galdaragintza eta soldaduraren alorretan matrikulazioek behera egiten dutela ikusten ari gara, eta guretzat oso interesgarria da jendea ziklo horiek ikastera animatzea, lan asko baitugu", azaldu du. Ulmaren baitako bederatzi enpresetatik lautan langile premia dutela dio pertsonal arloko kideak: "Eskaintza eta eskaria ez datoz bat. Eskaria handiagoa da".

Ildo beretik jardun du Gema Mancebo Fagor Industrialeko pertsonal arduradunak ere: "Guretzat garrantzitsua da hezkuntza zentroetatik gertu egotea, formakuntza jaso duten langileak gurerara etor daitezen". Bestetik, azaldu du hitzarmenaren ardatz diren ikasketa horiei "ikusgarritasuna" emateko beharra dagoela: "Gizartean ez daude begi onez ikusita, baina aukera ona da gazteentzat. Lanpostu politikak dira, artisau lanak, eta orain lan asko dago hor".

Hitzarmenean jasotakoak

Aretxabaletako Lanbide Eskolak, Fagorrek eta Ulmak aurrez ziztuzten hitzarmenak berrikusi eta "aliantzak indartu" dituztela azaldu dute. Aste honetan sinatu berri duten dokumentuan, hainbat konpromiso hartu ditu eragile bakoitzak.

ALEk formakuntza mota desberdinak aztertze konpromisoa hartu du, eta baita eskaintzen dituen zikloetako edukiak errebisatzeko ere, "jakintzak eguneko beharretara egokitzeko".

Fagorrek eta Ulmak, bestalde, ALEko ikasleen praktikaldiak bermatuko dituztela adierazi dute, eta horrela badagokio, horien kontratazioa ahalbidetuko dutela. Horrez gain, enpresek langileen birkualifikazioari ere erreparatu diote. Dokumentuan jaso dutenez, formazio beharra duten langileak Soldadura eta Galdaragintza eta Eraikuntza Mekanikoen Zikloak ikastera bideratuko dituzte, Aretxabaletako eskolara.

Bukatzeke, eta aurrekoari lotuta, bai ALEk eta bai Ulma eta Fagorrek "erraztasunak" eman go dituztela adierazi dute, lana eta ikasketak bateratu nahi dituztenentzat.

Ikastetxeetatik lan mundura, euskaraz

Aurreko egubakoitzean, hilak 18, *LH Duala euskaraz* ekitaldia egin zen Bergarako Miguel Altuna Institutuan. Euskararen erabilera sustatzeko ahaleginean erreferente diren Gipuzkoako lantoki eta Lanbide Heziketako ikastetxeei egin duten lana aitortu zitzairen. Antzuolako Goizper Group izan zen aintzatespena jaso zuenetako bat.

Horrez gain, ikasleak ere protagonista izan ziren ekitaldian. Esaterako, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Irene Souto ikasle galiziarrek bere esperientzia kontatu zuen; "mugak gaindituta", duala euskaraz egiten ari dela, hain zuzen ere.

Urratsak lan eremuan

Ekitaldira bertaratu ziren guztiek mezu argia helarazi nahi izan zuten: hizkuntzaren biziberritzea helburu izanda, lan munduan ere euskararen aldeko pausoak ematea "ezinbestekoa" dela.

Gipuzkoan, egun, 2.700 lantoki baino gehiagotan egiten da Lanbide Heziketa duala euskaraz. Horren harira, Miguel Altunako zuzendari Joxu Aranek azpimarratu zuen Debagoieneko enpresetan "naturaltasunez" jarduten dela bertako hizkuntzan.

Arlaban ireki dute 15 tona baino gutxiagoko ibilgailuentzat

Errei bakarra dago zabalik; aurreratu dute oraindik "aste batzuk" beharko direla bidea erabat irekitzeko

U. I. L. LEINTZ GATZAGA

Abenduak euriteen eraginez, errepide azpiko lurra mugitu eta Eskoriatza eta Landa lotzen dituen GI-627 errepideko zenbait puntutan arrakala handiak sortu ziren. Abenduaren 11 ezkerro

egon da bidea itxita, eta astelehen honetan, hilak 21, ireki dute. Nolanahi ere, errei bakarra dago zabalik –semaforo batek bideratzen du trafikoa– eta hamabost tonatik beherako ibilgailuak soilik igaro daitezke bertatik.

Aste honetara arte, errepide zaharretik bideratu dira ibilgailuak, eta horrek "zenbait arazo" sortu dituela adierazi du Juanito Bengoa Leintz Gatzagako zinegotziak. Trafikoa areagotzeaz gain, kamioi handiek "kalteak" sortu dituztela esan du: "Trailerrei argi adierazi zaie ezin direla bertatik igaro, baina ia astero pasatzen da halako ibilgailuren bat (...) Bidegurutze batzuetan aurrera egin ezinda ibiltzen dira, eta aurrekoan, egoera horretan, areka bat behe-



Arlaban, zabalik. JOKIN BEREZIARTUA

ra etorri zen". Horri lotuta, Bengoak gogora ekarri du hilaren 15ean trailer bat herrigunean sartu zela, eta "kalte aipagarriak" eragin zituela.

Lurra mugitzen ari da

Hasieran aipatu bezala, Arlabango bideko errei bakarra ireki dute, momentuz. Langileek igarri dutenez, oraindik lurra "mugitzen" ari da bide azpian. Horrenbestez, aurreratu dute errepidea erabat zabaltzeko "aste batzuk" beharko direla.

EAKo bi debagoiendar, alderdiaren alde banatan

Maidar Otamendi eskoriatzarra Eusko Alkartasunako zuzendaritza nazionaleko kide berria da, eta Esther Larrañaga arrasatearra, berriz, ildo kritikoko bozeramailea. Asteburuan egindako bilkuretan hartu dituzte karguak debagoiendar biek

U. I. L. DEBAGOIENA

XIII. Nazio Biltzarreko kongresua egin zuen EAK aurreko asteburuan, eta, domekan, zuzendaritza nazional berria hautatzeko bozketa egin zen. Maidar Otamendi eskoriatzarra da zuzendaritza nazionaleko kide berrietako bat. Egun eta ordu berean, alderdiko sektore kritikoak beste bilkura bat egin zuen, eta "alderdiaren demokratizazioarako talde eragilea" hautatu zuen. Esther Larrañaga da ildo kritikoko bozeramailea. Zuzendaritza berriari dago-kionez, Eba Blancoren hautagaitzak aldeko 134 boto izan zituen (%54) eta, hala, bere ze-



Esther Larrañaga eta Maidar Otamendi. GOIENA

rendako Maidar Otamendi eskoriatzarra antolakuntzako idazkari berria da. Esan behar da alderdiko 249 konpromisarioetatik 135ek hartu zutela parte batzarrean, eta 134k eman ziotela babesa talde berriari.



Bestetik, ildo kritikoaren bilkuran, Esther Larrañaga arrasatearra bozeramaile duen talde berria eratu zen, "zuzendaritzaren kontra matxinatzeko" asmoz. Testuinguruan jartzeko, hilaren 9an, alderdiko barne araudia

urratzea egotzita, EAKo bost kideri afiliazio akta lau urterako bertan behera uzteko erabakia hartu zuen Nazio Batzorde Eragileak. Horregatik egin zuten domekako kongresu paraleloa.

Barneko desadostasunak

Asteburuak utzitakoen ostean, arrasatearrak zuzendaritza berriaren kontra egin du: "Injustiziaren aurka bi aukera daude: men egin edo matxinatu". Era berean, Otamendik ere eman du bere iritzia sektore kritikoaren inguruan: "Espero dut azken bi urte hauetan egondako liskarrak eta egoera desatsegin eta lotsagarriak amaitzea".

Bestetik, EH Bilduren baitan EAK izan behar duen parte-hartzeari buruz, "eztabaida itxita" dagoela esan du zuzendaritza berriak: "Gobernuaren alternatiba izan nahi dugu eta izango gara, eta horretarako EH Bildu indartsuagoa eta zabalagoa egin nahi dugu". Alderdi kritikoak ere EH Bilduren proiektuarekin "konprometituta" dagoela adierazi du, baina koalizio abertzaleak "oinarriak zabaldu" behar dituela ere badio.

Ekonomia hizpide 'Entzunez eraiki' dinamikako saioan

Arrasaten egingo da, bihar, EAJk abiatutako *Entzunez eraiki* entzute aktiboko prozesuaren bigarren saioa. Eredu sozioekonomikoaren etorkizuna izango dute berbagai, eta, adierazi dutenez, "afiliatu, alderdi-zale zein herritar guztiei" dago irekita 09:30ean Abaroa adinekoen egoitzan egingo den saioa.


Aurreratu dutenez, Jabier Larrañaga Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako diputatuak eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkate eta Dinamikako Garapen Ekonomikoaren arloko arduradunak hartuko dute parte saioan.

"Entzute aktiboa" oinarri

Jeltzaleek azaldu dutenez, prozesu honetan 2030eko Agendako erronkak landuko dituzte, "kollektibotik eta komunitate bateko kide izatearen zentzutik". Horretarako, bost lan-ildo banatu eta herritarrekin egindako elkarrizketak baliatuko dituzte.

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Oñati	46	52	4524	%39,59	854
Arrasate	30	77	8529	%39,00	484
Bergara	25	44	5402	%37,04	458
Eskoriatza	9	18	1541	%37,30	658
Aretxabaleta	6	19	2597	%36,54	353
Antzuola	3	18	824	%39,60	963
Elgeta	3	5	303	%26,56	707
Aramaio	2	5	542	%37,23	472
Gatzaga	0	2	72	%34,12	854
DEBAGOIENA	124	240	24334	%38,02	568

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Osakidetzak hautemandako kasuak erdira murriztu dira

240 positibo baieztatu ziren aurreko astean bailaran, eta oraingoan, berriz, 124 erregistratu dira ofizialki

U. I. L. DEBAGOIENA

Debagoiengan atzemandako kasuek behera egiten jarraitzen dute; herri guztietan erregistratu dira aurreko astean baino positibo gutxiago. Hala, intzidentzia-tasak ere nabarmen egin

du behera eta 568,69an kokatu da. Hego Euskal Herriko lurraldeekin bat egiten duen bilakaera da eskualdekoa ere.

Erietxeetako presioa ere arindu egin da: 373 lagun daude Hego Euskal Herriko ospitaleetan –

aurreko astean baino 134 gutxiago– eta 69 dira ZIUetan daudenak –hamahiru gutxiago–. Debagoieneko Ospitalean ere behera egin du zenbatekoak: azken datuaren arabera, bi lagun daude bertan ingresatuta.

Ostalariak arduratuta, TicketBai badatorrelako

Fakturazio sistema berriaren derrigortasuna uztailen sartuko da indarrean zenbait jardueratarako, eta ezarpena jardueraz jardura egingo da hurrengo urtebetean. Iruzur fiskala saihestea da hiru foru aldundien eta Jaurlaritzaren egitasmoaren xedea

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE
TicketBai sistema indarrean jartzen den unetik jardura ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek –enpresak, negozioak eta autonomoak; ostalariei, besteak beste, bete-betean eragiten die, beraz, aldaketak– fakturazio-software bat erabili beharko dute, eta bezeroaren ordainketa unean bertan erregistratuko dute ogasunek, Internet bidez. Administrazioa aurten hasiko da aipatutako moduan diru-sarrerak kontrolatzen, eta 2024tik aurrera gastuak ere kontrolatu egingo ditu.

Gipuzkoako Ostalaritza Elkar-tea, Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Sailaren laguntzarekin, informazio batzarrak egiten ari da, sistema berriaren ingurukoak azaldu eta ostalariei euren zailtasunak argitzen laguntzeko. Arrasaten izan dira, adibidez, aste honetan. Aldundiek iruzur fiskala saihesteko ezarriko den sistema izan arren, Ane Ruiz Pozuetak azaldu zuen aldaketak ostalarientzat ere izan dezakeela onurarik: "Sistemak informazio asko ematen du. Orain diru-sarrerak kontrolatuko dira, gero gastuak ere bai, eta, hori, BEZa deklaratzeko orduan, adibidez, abantaila da, sistemak informazio asko ematen dizulako. Era berean, eta zehazki ostalaritzari dagokionez, TicketBai sistemara sartzekoa momentu egokia izan daiteke beste gestio sistema batzuk martxan jartzeko. Sistema horiek asko errazten dute establezimendu baten egunerokotasuna, eta errentagarritasuna hobetzen ere laguntzen dute".

Sistema berriarekin lotuta, pizgarri fiskalak ere izango dira –kenkariak sozietateen gaineko zergan eta PFEZn–; oster, baita isunak ere, gauzak behar bezala egiten ez dituztenentzat,



Astean Arrasaten egindako batzarra. J.I.

MAKINA BERRIA, PROGRAMA ETA MANTENTZEA, DENERA 2.000 EURO IZANGO DIRELA-ETA KEXU

2.000 eta 60.000 euro artekoak –azken horiek, softwarea trukatzen den kasuetarako–.

Ostalarien kezak

Arrasateko batzarrean izandako zenbait ostalariren iritziak jasotzen hasita, Doke tabernako Fatima Sanchezen arabera, burukomin bat gehiago izango da tiketarena, "taberna jendez lepo dagoenean, batez ere", moteldu egingo duelako bezeroekiko arreta. Kexu da, gainera, "makina, programa eta mantentze artean, 2.000 euroko gastua" ekarriko diolako. Borondatezko aldian sistema ezarri dutenei dirulaguntzak eman dizkie Aldundiak; zenbait udal ere ari dira laguntzak ematen, eta adi egoteko gomendatu die elkarteak ostalariei.

Oñatiko Goiko Benta ostatuko Miren Maiztegi dio "teknolo-

giara egokitu beharrak" eragiten diola berari "nagia"; teknologikoki "puntakoena" deneko itxura eman nahi dutela euskal ogasunek, eta euren kontura egin nahi dutela hori. Garai zailon ostean –COVIDagatik–, ostalariak "apur batean lasai" utzi behar lituzketela uste du Maiztegi, eta gehitzen du: "Ezin da ostalaritza tratatu egunero lapurretan ibiliko bagina moduan".

Bergarako Tartufo jatetxean iaztik ari dira sistema berriarekin lanean, eta Mirian Gomezek dio aldaketa handia dela: "Orain, kaxak inongo akatsik gabe egitera behartuta gaude". Jatetxeentzat "tira", baina gaueko tabernentzat, esaterako, tiketaren menpe ibiltze hori lan nekeza izango dela dio: "Jendea dago ohituta eskua altxatu eta artatua izatera. Orain, supermerkatu batean moduan izango da dena".

Iragarpen ezkorra egiten du, gainera, Gomezek: "Gaur egun ezagutzen dugun eta Euskal Herrian praktikatzeko den ostalaritzarenak egitera doaz horrela. Europakoaren tankera hartzen ari da dena".



Maite Peña, Bergaran egindako berbaldian. ENEKO AZURMENDI

Gizarte politiken Gipuzkoako eredua goretsi du Maite Peñak

Bergaran izan da berriki, herriko EAJk gonbidatuta. Adinekoen egoitzetako lan gatazkaz ere jardun zuen

J.I. BERGARA

Gizarte politiken Gipuzkoako eredua nabarmendu zuen Bergaran foru diputatuak: "Uste dut garrantzitsua dela gure eredu propioa herritar guztiek ezagutzea, hura babesteko, batez ere". Halaber, hainbat datu ere eman zituen Peñak; esaterako, 5.425 plaza daudela adinekoen egoitzetan gaur egun –%85, publikoak–, 65 zentrotan banatuta. Horrez gain, 1.500 pertsonak jasotzen dute eguneko zentroetako zerbitzua, eta 16.000 dira mendekotasun prestazioaren onuradunak.

Bestalde, COVID-19aren pandemiak gizarte zerbitzuen sistemari nola eragin dion azaldu zuen Peñak: "Pandemiak azkartu egin ditu mahai gainean gertatzen lanketak, batez ere arreta ereduan aurrerapauso bat emateko eta arreta pertsonalizatuagoa izateko".

Aldundian garatzen ari diren Agenda 2020-2030 estrategia ere nabarmendu zuen: "Hamabi ardatz ditugu, eta askotariko ekintzak, 82 milioi euroekin. Esan dudan moduan, arreta eta pertsonalizazioa hobetuko ditugu, eta erabiltzaileen nahiak eta desioak ere kontuan hartuko ditugu".

Ez dela euren eskumena

Saioaren aurretik, Gipuzkoako adinekoen egoitzetako langileek protesta egin zuten UNEDeko eraikineren sarreran, lan baldintza duinak eskatuz, eta Maite Peñari eurekin biltzeko eskatu zioten. Horri buruz galdetuta, diputatuak azaldu zuen ez dela euren eskumena: "Ahal dugun guztia egiten ari gara negoziatzeko mahaian adostasun batera iritsi daitezen, baina hori ez dagokigu guri". Sindikatuen eta patronalaren gauza dela azaldu zuen.

Udaberrian helduko da Aspaceren erakusketa bailarara

Aspacek 50 urte betetzen ditu aurten, eta, ospakizun gisa, Gipuzkoako hainbat herritan 50 urte inklusioa bermatzen erakusketa izango da ikusgai; udaberrian, esaterako, Bergaran, Arrasaten eta Eskoriatzan egongo da ikusteko aukera. Erakundearen jarduna azaltzea eta gizarteari eskerrak ematea da ekimenaren helburua.

%24,4 handitu ditu Laboral Kutxak irabazi bateratuak

108,8 milioira iritsi dira 2021ean. Laboral Kutxatik adierazi dute, bestalde, euren merkatuan kaudimen handieneko entitateak izaten jarraitzen dutela. Beran-kortasuna %2,80raino jaitsi dela ere azaldu dute –"sektoreko batez bestekoa (%4,22) baino askoz txikiagoa da". Kreditu-inbertsioaren zorroa, berriz, %4,8 handitu zen iaz.



Ezkerretik eskuinera, Yves Roos arduraduna, Bego Dominguez, Ana Inclan, Amaia Prat eta Tania Meabe. HARRI ZURI

Hamarkada bat bezeroen ongizatea ardatz hartuta

Hamargarren urteurrena du aurten Bergarako Harri Zuri Hartz Klinikak, eta ospatzeko modurik onena "bezeroen ongizatea eta erosotasuna hobetzen jarraitzea" da, Yves Roos arduradunaren esanetan; urteurrenarekin batera, lantaldea handitu egin dute

Bergarako Harri Zuri Hartz Klinikak (Ibargarai hiribidea 21) odontologia zerbitzu orokorra eskaintzen diete bezeroei, inplantologia eta ortodontzia ardatz hartuta. "Profesionaltasuna eta bezeroekiko daukagun gertutasuna dira gure lantaldea definitzen duten balioak", nabarmendu du Yves Roosek, klinikako arduradunak.

Odontologia digitalean adituak dira eta hamar urte baino gehiagoko esperientzia dute arlo horretan. "Kamera digital bat erabilia, ahoa eskaneatzen dugu eta lortutako irudiekin koroak (zorroak) sortzen ditugu. Debagaien mailan lehenak izan ginen CEREC instalazioa ezartzen. Zorroak modu digitalean sortzeko diseinu makina bat da.

Horrez gain, erradiografiak hiru dimentsiotan ateratzen dituen CBCT instalazioa edukitzen ere lehenak izan ginen bailaran", dio Roosek.

Zerbitzu osoa bezeroei

Bezeroei zerbitzu osoa eskaintzen diete Harri Zurin, "hasieratik bukaerara arte", arduradunaren esanetan. "Hau da, guztia egiten

dugu: errehabilitazio konplexuen azterketak eta aho garbiketak egiten ditugu, hortzak berriztatzen ditugu, inplanteak ezartzen ditugu hortzak galdutako tokietan, hozkada zuzentzen dugu ortodontziaren bitartez eta, beharra izanez gero, odontologia estetikoarekin ere bai. Izan ere, beharrezkoak diren instalazio guztiak ditugu gure klinikan, baita zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den jakintza zabala ere".

Teknologiari dagokionez, hiru dimentsioko X izpiak dituzte – batzuek hortzetako TAC gisa ere ezagutzen dutena. "Horrez gain, laser bat ere badaukagu, hortzoietan doikuntza zehatzak egiteko, inolako minik eragin barik. Gainera, sedaziorako teknika lasaigarriak ere baditugu, zaurgarriagoak izan daitezkeen bezeroentzat".

Lehen bisita egiterakoan, zer?

Hartz klinikara lehen aldiz doan bezeroari historia medikoa osatzen diote, hortzetako osasunari buruzko galderak eginda. Osteon, erradiografia panoramiko digitala egiten diote, hortzen eta hortzoien azterketa egin eta hozkada baloratzearekin batera. "Erradiografiak aztertu osteon, tratamendu plan bat egiten dugu, ahoa garbitzeko; hau da, hortzak garbitu eta balizko kariesak kentzeko". Era berean, lehen bisita hori inplanteak ezartzeko azterketa egiteko baldin bada, hiru dimentsioko erradiografia ateratzen diote bezeroari. "Baloratu dezakegu hortz galduen birjarpena egitea ere, irribarrearen hobekuntza estetikoarekin batera".

Aurten hamar urte

Esan moduan, aurten hamargarren urteurrena du Harri Zuri

Hartz Klinikak, eta odontologia modernoan erreferente izaten jarraitu gura dute, gertuko zerbitzua eskainiz eta bezeroekiko enpatikoak izanda. "Beraz, uste dugu gure hamargarren urteurrena ospatzeko modurik onena dela gure bezeroen ongizatea eta erosotasuna hobetzen jarraitzea", dio Roosek.

Urteurrenarekin batera, espazio edo kabinete berri bat zabaldu dute, azterketak eta aho garbiketak "modu erosoagoan" egin ahal izateko eta larrialdiak artatu ahal izateko. "Horren helburua da hobeto antolatutako eta banatutako espazioak edukitzea klinikan, gure tratamenduak ahalik eta erosoan izan daitezen eta bezeroen itxaronaldiak ahalik eta motzenak izan daitezen".

Lantaldeari erreparatuta, urtarilaren 22az geroztik, langile bat gehiago daukate taldean: Bego Dominguez. Hala, gaur egun bost langilek osatzen dute Harri Zuri Hartz Klinikak. "Bego laguntzen ari zaigu gure bezeroekiko arreta kudeatzen eta hobetzen. Esan moduan, gure bezeroek espazio handiago bat izango dutelako aurrerantzean".

BEZEROEN ONGIZATEA ETA EROSOTASUNA BERMATZEN JARRAITU GURA DUTE URTEURRENEAN ERE

BEGO DOMINGUEZ BATU DA LANTALDERA ETA HORTZ KLINIKAKO ESPAZIOA ERE HANDITU EGIN DUTE

HARRI ZURI
HORTZ KLINIKA

Odontologia orokorra • Inplantologia
Periodontzia • Odontopediatria
Endodontzia • Hartz-protesiak
Ortodontzia • Hartz-estetika • 3D TAC

Ibargarai 21, behea - BERGARA
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72
www.harrizuri.com

Beste kabinete bat ireki dugu eta lantaldea handitu dugu, zuri zerbitzu hobia emateko.

Eskerrik asko, 10 urte hauetan gure alboan egotearren!

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Ekimen kooperatiboak eta lurraldetasuna. Biak izan zituzten hizpide joan den egubakoitzean KoopFabrikak antolatuta Arantzazulaben egin zuten jardunaldian. Kataluniako eta Euskal Herriko esperientziak partekatu zituzten bertan. Arianne Kareaga da KoopFabrikako koordinatzailea.

Zer moduz joan den asteko jardunaldiak?

Oso pozik gaude izandako erantzunarekin. Jende askok hartu zuen parte jardunaldietan eta online ere askok jarraitu dituzte. Landutako harremanekin lotuta ere oso pozik gelditu ginen. Jardunaldiak egubakoitzean izan baziren ere, bi egun lehenago etorri ziren kataluniarrak gurera eta esperientziak elkartrukatu zituzten hainbat eragilerek: Nafarroako Gobernuarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Errenteriako Udalarekin, Fagorrekin, Mondragonekin, D2030ekin... Aberasgarria izan da, zalantza barik.

Kataluniako ekintzailetza sozialaren eta gurearen arteko desberdintasunak zeintzuk dira?

Hasiko nintzateke antzekotasunetatik. Ekonomia soziala edo ekintzailetza soziala kooperatibismotik eta kooperatibak eratuzetik ulertzen dugu bai han eta baita hemen ere. Gainera, lurraldeen aniztasunak ere antzerako kasuistikak ematen dizkigu. Desberdintasuna izan daiteke han azken urteetan erakunde publikoetatik dagoen babesa ekintzailetza sozial horren sustapenerako. Hemen ere egon badago, baina askoz ere txikiagoa da eta ez da lurralde osoan zabaltzeko estrategia baten barruan egiten.

Nola egiten dute, bada?

Generalitatetik lurraldea 14 zatitan banatu eta bakoitzean Ateneu Cooperatiu delakoak sortu dituzte. Lurraldez lurralde dauden eragileak dira protagonista Ateneu horietan. Alegia, erakunde publikoak ipintzen ditu baliabideak eta benetan sustatzen dutenak dira ehun kooperatiboko

"Paradigma aldaketa egiteko bokazioa badago, baina praktika gehiago falta da"

ARIANNE KAREAGA LANKIKO IKERTZAILEA ETA KOOPFABRIKAKO KOORDINATZAILEA Ekintzailetza sozialaren eta kooperatibagintzaren inguruan dihardu lanean Arianne Kareagak, Lankiko ikertzaile eta KoopFabrikako koordinatzaile gisa duen jardunetik



Arianne Kareaga. GOIENA

tokian tokiko eragileak. Aurrekontua itzela da, eta apustu politikoa oso esanguratsua. Orain, ekonomia sozial eta solidarioko lege bat sortzen ere badabiltza.

Zein garrantzi du gurean arlo publikoak ere apustu hori egitea? Euskal Herrian badaude lan egitea eta bizitzea oso zaila egiten den lurraldeak. Ehun kooperatibo sendorik ez dagoen tokietan laguntza

publikoa behar da horren aktibaziorako.

Ekintzailetza soziala, zergatik eta zertarako?

KoopFabrikatik sustatzen dugu ekintzailetza sozial kooperatiboa jendeak bere bizitzak modu autoeratu eta kolektiboan antolatzeko. Lana erdigunean egotea eta lanaren burujabetza praktikatzeko inportantea da. Gainera, tokiko ekosistema kooperatiboak sortzeari ere garrantzi handia ematen diogu. Azken batean, ez izatea kooperatiba isolatuak, baizik eta lurraldean txertatuak eta lurraldearen motor izatea. Ekintzailetza sozial eta kooperatiboa komunitatea antolatzeko modua izan daiteke.

Zer da Debagoiena ekintzailetza sozialean? Motorra da?**Aitzindaria da?**

Esango nuke baietz. Esango nuke badagoela azken hamarkadetan sortutako autoeraketaren kultura eta praktika oso bat eremu desberdinetan. Arrasateko kooperatibak dira horren erakusgarri, baina harago ere badaude beste esperientzia batzuk; esaterako. Goiiena bera, Emun... Elkartegintza eta herrigintzarako hauspo bat badago. Egia da Euskal Herri osoan dagoen zerbait dela, baina hemen antolatzeko gaitasun eta praktika hori oso esanguratsua da. **Beste eskualdeetan ere badabil indartzen praktika hori?**

Nik uste dut Gipuzkoan bertan ere badagoela kultura hori. Kontua da horren artikulazioa dela garrantzitsua. Kooperatiba edo ekimen sakabanatuak izan barik, euren arteko erlazioak beharrezkoak direlako. Eta hori da, hain zuzen, D2030ek bilatzen duena. Ekimen asko daude, baina ez dauzkagu horiek saretuta, eta hori bultzatzera dator, besteak beste, D2030. Nik uste dut hori falta dela, bereziki.

Arlo publikotik nola indartu daiteke ekintzailetza sozial eraldatzaile hori?

Lankidetzazko gobernantza praktikan ipintzea izan daiteke bide bat. Alegia, administrazio publikoa jartzea lurralde bateko pertsonen eta beharren zerbitzura. Azken finean, hamarkadetan eraiki duen logika ertsi hori eraldatu behar du administrazio publikoak, eta beste eredu batzuen alde egin.

Uste duzu eredu aldaketa hori etorriko dela?

Uste dut diskurtso mailan badagoela ulermen hori. Alegia, erronkei eta gizarte aldaketei lotutako desafioei bakarrik ezin diegula aurre egin. Hor daude Arantzazulab, Debagoiena 2030... Gertatzen dena da praktika falta dela. Hamarkada askotan eraiki dena ezin da egun batetik bestera aldatu eta ulertu behar dugu oso arnas luzeko prozesuak direla, ikasi eta desikasi behar dela asko. Paradigma aldaketa baterako bokazioa badagoela esango nuke. Ulertu behar dugu sakoneko aldaketa baten bila goazela.

"EKINTZAILETZA SOZIALAREN SUSTAPENERAKO BABES HANDIA DAGO KATALUNIAN"

"TOKIKO EKOSISTEMA KOOPERATIBOAK SORTZEARI GARRANTZI HANDIA EMATEN DIOGU"

Agur, MAIKA

GORETTI ANDRINUA IRAOLAGOITIA
BERGARA

Bai, MAIKA letra handiz idatzi dut. Handiz, bai, agurtzen ari garen pertsona handia izan baita. Handia, bizitzari hitzak eman ahal dizkion zentzu guztietan.

Hemen gauden edo egon gintezkeen edo egon nahi izango luketen guztiek dute pentsaera hori, eta horrek eraman nau MAIKA handiz idaztera, hala nola ama HANDIA; arreba HANDIA; lehengusina HANDIA; iloba HANDIA; lagun HANDIA; alaba HANDIA –egon nahi luketenak ere esan dut eta–; koinata HANDIA.

Nola esan agur hainbesteren izenean, hainbeste eman duen horrelako lagunari eta nola sinetsi ematen zigun hori guztia galtzear gaudela. Bizitza asko aldatuko da.

Seguru nago, halere, berak laga duela zeinek jarraitu horretan erakutsita, ez zuen bakarrik *emon* egiten, emotearen arrazoiak eta onurak ere erakutsi baitzituen. Badago, bai, horretan ikasi duena –denok pixka bat–.

Zuen eta gure maistra izan da, bizitzaren maistra, ikasgai magistralak emanez beti, edozein esaldi xumeenarekin ere.

Agurra idatzi bai, nola agurtu gure lagun hau...

Pentsatzen aritu naiz, eta pare bat kantu etorri zaizkit burura, nire bihotzak egoki

ikusten dituenak –berak ere asko abestu izan dituenak, seguru nago–, eta pentsatu dut horiek aipatzea. Nik neuk agurrarekin lotzen ditut, era askotako agurrekin, eta oraingoa, BERARI eman beharreko agurrarekin.

Silvio Rodriguezek kantatzen zuen: *Ojalá que las hojas no te toquen el cuerpo cuando caigan / para que no las puedas convertir en cristal / ojalá que la lluvia deje de ser el milagro que baja por tu cuerpo / ojalá que la luna pueda salir sin ti / ojalá que la Tierra no te bese los pasos. / Ojalá se te acabe la mirada constante / la palabra precisa, la sonrisa perfecta / ojalá pase algo que te borre de pronto / una luz cegadora, un disparo de nieve / ojalá por lo menos que me lleve la muerte / para no verte tanto, para no verte siempre / en todos los segundos, en todas las visiones / ojalá que no pueda tocarte ni en canciones.*

Seguru aski, egunen batean, kantu honek dioena, beste arrazoi batengatik, desioko zuen berak.

Gaur hemen gaudenoi zurekin inoiz ez gertatuko zaiguna da, ez dugu nahi ezta. *Ojala* hau orain ere hutsean geldituko da. Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Zeozergatik izango da, ezta? Bai, denok dakigu zergatik, bakoitzak bere arrazoiak izanda ere. Denak handiak, zilegiak, denak MAIKAREN izaerak eraginda.

Beste kantu bat ere etorri zait: *Aitormena. Ez dira betiko garai onenak / Azken finean gizaki hutsak gara / Barearen ostean dator ekaitza / Udaberri berririk ez guretzat.*

Hauek dira abestiaren hasierako lerroak. Niretzat –eta espero hemen gaudenontzat– proposa une honetako sentimenduak definitzeko edo deskribatzeko.

Aipatu ere abestiaren azken lerroak: *Bai, zin dagizut, ez dizudala inoiz*

gezurrik esan eta / Zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz / Aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena / Baina orain maitia lehen baino lehen aska gaitezan. Askatu. Tristuratik askatzea.

Seguru nago MAIKAK esango zuela: "Es lo que toca". Ba, bai, baina: *¡Lo que toca a veces cuánto nos duele!*

Bere oroitzapenarekin bizitzen jarraituko dugu, berak egiten zituen *irribarreen* oroitzapenekin.

Mila esker bizitzan emandako denagatik. Pena da bueltatzeko hain denbora gutxi izana. Musu bat.

Agur bat idatzi nahi nuen, eta kostata aritu naiz, ez hitzik ez dudalako, ez, ez nuelako nahi agur esan. Horregatik, agurra izanda ere: gero arte, beti arte, MAIKA.

Zuek denok ere agur eder bat eman nahi izango zeniotelakoan, denon agurraren zatitxo bat egitera ausartu naiz.

jasotzeko orduan gizonen eta emakumeen arteko sistema desberdina bidegabeaz hausnartzera.

Nahiz eta emakumeek inoiz baino gehiago parte hartzen duten lan-merkatuan, inoiz baino argiago izan autonomia ekonomikoaren beharra, gaur egungo soldatetan arrakala hori dago oraindik: EAEn %23koa da, eta 2015a ezkerro 1,7 puntu baino ez da murriztu.

Pentsioen genero-arrakala ez da gertatzen emakumeek ez dutelako lanik egin. Baizik eta euren lana ez delako errekonozitzen. EAEn emakumeen batez besteko pentsioa gizonena baino %37 txikiagoa da, gutxi gorabehera.

Horregatik, emakume pentsiodunek gizonen baino arrisku handiagoa dute bakardadean, pobrezian eta bazterketa arriskuan bizi izateko. Euskal Herrian emakume asko dira hilabete amaiera iritsi ezin direnak, eta 63.000 alargun 1.080 eurotik behera daude.

Emakumeei dei berezia egiten diegu astelehenero egiten diren mobilizazioetara joan daitezen, plazetara azal daitezen.

Elkarrekin, alarguntza pentsioa, autonomia ekonomikoa, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa osatzea eta abar erreibindikatzeko. Egiturazko neurriak eskatzen ditugu arazoa gainditzeko.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

Otsailaren 22a: soldata berdintasunaren aldeko Europako Eguna

ITZIAR USANDIZAGA
PENTSIODUNEN IZENEAN
DEBAGOIENA

Asteartean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko Europako Eguna izan zen. Pentsiodunok egun hau bideratu genuen soldata bat

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Zero kilometrokoak

Pertsona orok bere bizitzan zehar fase ezberdin asko pasatzen ditu: eskola garaia, harremanak zabaltzea, bizimodua eratzea, familia osatzea eta hortik aurrera erre tiroa hartzea eta pozik bizi izaten jarraitzea.

IBILBIDE PROFESIONALA AMAITZERA DOANEAN SEKULA BAINO argiago ikusten dugu zelako garrantzia duen gertuko ekonomia suspertzeak eta gure ondorengoek bizimodua ateratzeko behar dituzten lanpostuak sortzeak. Geroz eta balio handiagoa du kapital horren kontrola Euskal Herrian edukitzeak, eta ez ezagutu ere egiten ez dugun zerbaiten eskuetan lagatzeak; ezin da-eta norbaiten eskuetan esan. Dena baitago deshumanizatuta.

Gaur egun, dena da eszenan jartzea eta iritzia sortzea, film bat balitz bezala, eta duen sinesgarritasunaren arabera munduko burtsak, Ibex35, Nasdaq, Nikkei... dantzan jartzea. Dantza horrek irabaziak utziko dituelakoan sortutako eszenaren arabera. Aukera hori baino sinesgarriagoa da komunitate berean bizi garenon bizimodu duina bermatzeko ezinbestekoak

EUSKAL HERRIAN AUZOLANAREN OINARRIZKO ESANAHIAIRI HELDU BEHAR GENIOKE

diren zero kilometroko enpresak osatzen dituzten aldeek norabide batean lanean jartzea eta harremanak konfiantzan oinarritzea. Enpresak bi alde balira bezala ulertzen ditugu: alde soziala langileen interesak defendatzeko eta alde enpresariala enpresarenak.

Iruditzen zait etorkizunari begira barneratu behar dugula ez direla bi alde, alde bat osatzen dutela eta helburu bakarra izan behar dutela: enpresen osasuna –langileena eta enpresarena– bermatzea. Euskal Herrian auzolanaren oinarritzko esanahiari heldu behar genioke orain arte bi alde horien harremanak errazteko eta alde bakarrera itzultzeko. Auzolana tresna ezaguna dugu, zero kilometroko enpresa osatzen dugun pertsona guztiok zeregina dugu enpresaren osasuna mantentzeko. Horrela, Euskal Herriko kapitala duten enpresak defendatuko ditugu, eta bertan lanean ari diren langileak ere bai, ondorengo bizimodua ateratzeko aukerak indartuta.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Lucia gogoan

JUNE FERNANDEZ
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ikara. Gogoan dut Lucia Martinez Odrizolarekin izan nuen lehen klasea. Ikasgaia: Kazetaritza Espezializatua. Aurreko ilaran eseri nintzen, angelu kontrapikatutik are eta handiagoa zirudien. Altua zen, ahots indartsua zuen, begirada erronkaria. Azalpenak ematen zituen heinean, ur botila bat botatzen zuen airera, bere titan gorputza gure gainean kulunkatzen zuen bitartean.

"Ba al dakizue zer den depresio bat?". Bai, noski, ezintasunari lotutako osasun-gaitza. Galdera ez zen horren sinplea, ordea. "Beste depresio

mota batez ari naiz: geografian, itsasoaren maila azpian dauden lurraldeei deitzen zaie", erantzun zigun. Ander Izagirreren *Los sótanos del mundo* (Munduko sotoak) kazetaritza-liburua agintzeko baliatu zuen galdera-tranpa hura. Nork esango lidake urteekin Ander bihurtuko zela neure mentore eta laguna. Hori ere Luciari zor diot, saregile trebea baitzen.

Luciak kartel bat jarri zuen bere bulegoko atean, ikasleak kikiltzeko xede zuena: "Kontuz txakurrarekin". Beldurraren beldurrez sartzen ginen tutoretzara; gerora ulertu genuen bihurrikeriaren ikur baino ez zela abisu hori.

Barrea. Ikara baretu zenean deskubritu genuen Lucia zela irakasle guztien artean onena, erredakzioko errealitatea klasera ekarri zigun bakarra. Izorratzen gintuen zuzentzeko zuen zorroztasunak. Izan ere, ariketa gaitzeko baldintzak ziren karaktereen muga errespetatzea eta bi ortografia-huts baino gehiago ez egitea.

Lucia izan zen genero ikuspegiak mintzo zitzaigun bakarra, baita hizkera ez sexistaren garrantziaz eta indarkeria matxistaren berri emateko irizpideez. *Feminismo* berba ahoskatu barik, kazetaritza feministaren zimenduak irakatsi zizkigun.

[...]

goiena[™]

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.


GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Pertsonen bizi-kalitatea eta duintasuna ditugu helburu"

IÑAKI AGIRIANO SENDAGILEA ETA AMSOGRA ELKARTEKO ORDEZKARIA

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE Nikaraguako elkartasun proiektuetan diharduen AMSOGRA elkarteak 20 urte bete ditu. Gobernu kanpoko erakundea da, eta Arrasaten du egoitza. Debagoieneko hainbat udalek eta eragilek sostengatzen dute. Iñaki Agirianok (Bergara-1958) hasieratik dihardu bertan. **Nikaraguan, non ari zarete?** Bi lekutan gaude: Masaya hiri kanpoaldean eta Nueva Segovia probintziako Ocotalen. Jende oso txiroa da; periferiako auzoetako jendea da Masayan, eta iraupeneko nekazaritzatik bizi diren *chorotega* indigenak Ocotalen. **Osasungintza da zuen lan lerro nagusietako bat.** Bi osasun zentro ditugu. Santa Amalia zentroa 2007a ezkerro sostengatzen du Arrasateko Udalak. Sendagilea, erizaina eta klinikako laguntzailea ditugu. 3.000-4.000 biztanle artatzen dituzte. Mozonten dugu beste osasun zentroa. Helburua da



Iñaki Agiriano, Santa Amalia osasun zentroa atzean duela. L.Z.L.

osasungintza pertsonengana hurbiltzea. Distantzia handiak egin behar dituzte, bestela, oinez, eta, askotan, ez dute bide hori egiten. **Erditzeen jarraipena egiteko zentro bat ere martxan duzue.**

Mozonte ingurua oso menditsua da eta emakume askok lauzpabost ordu dituzte oinez etxetik osasun zentrora. Erditzeko data gerturatzen denean, zentrora etortzeko eskatzen diegu, eta erditu

bitartean bertan egoteko aukera dute. **Botikak, makinak, materiala... eskuratzen dituzue.** Denborarekin ikasi egin dugu, eta material gehiena han erosten dugu orain. Dirua bertan gelditzen da, eta garraio gastuak aurrezten ditugu. Matxurak daudenean ere bertan konpontzen dituzte. Hemendik, gehienbat, kolostomia poltsa eramaten ditugu. Erakunde batek oparitzen dizkigu. Urtean 6.000-8.000 poltsa eramaten ditugu azken zazpi urteetan. **Etxebizitzak eraikitzea da zuen beste lan lerro garrantzitsuenetakoa.** Jende gehiena baldintza oso-oso txarretan bizi da; gela bakarreko eta euri sasoian urez betetzen diren hamar bat metro karratuko etxeetan. Sukalderik ere ez dute; lau harri eta sua erdian. Hormak, berriz, taquetzalezkoak dira –kanabera eta buztina–, oso egokiak changas deituriko gaixotasuna transmititzen duen intsektu batendako. Etxebizitza osasuntsuagoak behar zirela ohartuta hasi ginen lanean, eta nekazarien parte hartzearekin 35 eraiki ditugu dagoeneko. Bizpahiru gelakoak dira, sukaldearekin, eguzki-plakekin, leihoetan eta ateetan eltxo-sareekin eta

gertuan komunarekin zein edateko urarekin. Nabarmen jaitsi dira gastroenteritisak zein changas, denge eta malaria kasuak. **Bertakoen formakuntzari ere jartzen diozue arreta.** Bai. Osasun langileak prestatzen saiatzen gara eta jostintza saioak ere antolatzen ditugu, bertako emakume bati esker. Eskoletan gure aletxoak jartzen dugu, eta ikasketak egiteko bi beka lortu ditugu. **Nondik lortzen duzue finantzaketa?** Debagoieneko udal gehienetatik: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Bideberri mankomunitatea –Antzuola, Elgeta eta Gatzaga–, eta baita ere Mallabitik eta Zumarragatik. Enpresa pribatuetatik ere jasotzen ditugu laguntza batzuk. **Urtean bitan joan ohi zarete Nikaraguara eta 2019a ezkerro ezin izan duzue bidaiatu. Aurten ze asmo duzue?** Azken urtean hiru aldiz saiatu gara, baina ezin izan da. Aurten bai, joatea da asmoa. Dena den, pozik gaude; proiektuek berdin-berdin jarraitzen dute martxan. Osasun zentroak martxan dira, eta bi urteotan lau etxebizitza berri eraiki dira.

ITURRI ONETIK

Aranzadik eta Ipintzak, 50 urte

Bergarako Aranzadi Ikastolak eta Ipintza Institutuak 50 urte betetzen dituztela-eta, ospakizunetan murgilduko dira datozen hilabeteotan. Ikastolak bi ekitaldi azpimarragarri aurreikusi ditu, oraingoz: erakusketa Aroztegi aretoan maiatzaren 13tik ekainaren 5era eta jaialdi handia maiatzaren 28an. Institutua ere burubelarri ari da datorren ikasturtera begira ospakizunak antolatzen. Zehaztuta du Aroztegi aretoan argazki erakusketa. Irailaren 30etik urriaren 23ra bitartean egingo da.

ALBISTE IZAN ZEN



2010-02-20

Aristi eta Irizar, Lokatzako harrobian

Lokatz Ziklismo Eskolak urteak daroatza txirrindularitzan lanean harrobiarekin Bergara aldean. Bertan aritutako batzuk profesional mailara ere heldu dira; Leturia anaia bikiak, esaterako. 2010ko Lokatzaren argazki horretan daude anaioak. Baina baita gaur egun Euskaltel taldean ari diren Mikel Aristi eta Julen Irizar ere. Aste honetan albiste izan dira biak, Zamudion Euskaltelek egin duen aurkezpena dela eta.

HAU BE BADOGU!

PPren gorabeherak, 'trending topic'

Pablo Casadoren eta Isabel Diaz Ayusoren arteko ikamikaren ondoren, Twitterren berba izan dira Alderdi Popularraren gorabeherak: **@edubayon:** "Bat baino gehiago dardarka ari da orain Alderdi Popularrean". **@csolores:** "Diaz Ayusok haur-eskola publikoak ixten dituen bitartean, Casado Ayusoren ustezko ustelkeria agerian uzteagatik bota nahi dute". **@barrikako_semea:** "Dirudienez, Casado salduko ez duen bakarria bere ama izango da, beste guztiek konturatu orduko itsasontzitik salto egin dute".



Eugenio Uribarren zinegotzia, Maria Ubarretxena alkatea eta Victoriano Fuentes zinegotzia, Iturbide egoitzaren aurrean. T.M.

Eguneko Arreta Zentroak 2023an irekiko ditu ateak

Astlehenean hasiko dituzte Iturbide egoitzako zati batean Eguneko Arreta Zentroa egiteko lanak, eta zazpi hilabetea bukatzea aurreikusten dute. "Datorren urte hasierarako erabilgarri izatea espero dugu", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Zerbitzu berri bat izango da, orain arte Arrasaten egon ez dena. "Badaukagu eguneko zentroa, baina hori Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu bat da. Modu horretan, zerbitzu berri hau izango da menpekotasun maila baxua daukaten pertsonen zuzendutakoa", adierazi du Maria Ubarretxena.

Zazpi hilabete inguruko aurreikuspena daukate. Horretarako, 474.448 euroko inbertsioa egingo du Arrasateko Udalak. "Iturbide egoitzako eskuineko zati batean egingo dute zentroa: jangela, egongelak, askotariko ekintzak egiteko aretoa eta horrelako zentro batek behar dituen instalakuntza moderno guztiak edukiko ditu", azpimarratu du alkateak. Halaber, 300 metro karratu inguruko espazioa izango du zentroak eta, gehienez, 48 pertsonarendako zerbitzua eskaini ahaliko du.

Urte bukaerarako lanak amaitu eta 2023a hastearekin batera,

zerbitzua eskaini ahal izatea aurreikusten dute. "Modu paraleloan, araudia ere garatzen ari gara eta zerbitzua ere kontratatuko dugu", dio alkateak.

Hasieran, goizeko zerbitzua

Iñigo Garitano Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak adierazi duenez, onartzeaz dute araudia. "Zentroak astelehenetik egubakoitzera eskainiko du zerbitzua. Hasiera batean, goizeko zerbitzuarekin hasiko gara, 10:00etatik 13:00etara, eta eskariaren arabera, talde gehiago osatzen badira, aukera egongo da arratsaldeko txanda ere eskaintzeko". Egokituko den lokalak ahalbidetuko du bi taldek aldi berean jasotzea zerbitzua.

MENPEKOTASUN BAXUA DUTENEI ZUZENDUTA EGONGO DA, ESTIMULAZIO KOGNITIBOA LANDUZ

tzua. "Edozelan ere, epe motzera ez dugu ikusten horren beharrik edukiko dugunik, baina, beharra izanez gero, aukera izango genuke", dio Garitanok.

Hamabi pertsonako taldeak

Gutxienez, hiru zupalau pertsonako taldeak izango dira, eta, gehienez, hamabikoak. Talde bakoitzarekin dinamizatzailer bat egongo da, aurrez landutako jarduerak programa bat garatzeko eta zentroak dituen helburuak lortzeko. "Hau da, estimulazio kognitiboa lantzeko eta menpekotasun egoera horiek ahalik eta gehien atzeratu ahal izateko. Helburu nagusi horrekin, datozten pertsonen egoerak aztertuta, programa horiek egokitzen joango gara. Beraz, hiru ordu horietan, hainbat ekintzaren bidez, programa horiek garatuko ditugu, banaka zein taldeka".

Urtean zehar Gizarte Zerbitzuen Saila informatzen joango da, "interesa dutenek jakin dezaten zer egin eta nora jo".

Hezkidetza lantzeko hitzaldia egingo dute, gurasoei zuzenduta

Haurrak, nerabeak eta hezkidetza. Nola landu etxean? hitzaldia egingo du Nerea Lores adituak martxoaren 2an, eguaztena, 18:00etan, Kultureteko areto nagusian, euskaraz. Izen-ematea Arrasate.eus webgunean egin beharko da.

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean martxan

jarritako *TREBA Gurasoak* programaren baitan, bigarren hitzaldia izango da hau. "Programa honen helburua da gurasoei seme-alaben heziketaren inguruan hausnartzea eta gurasoei egunerokotasunean sortzen zaizkien kezka eta zailtasunak konpartitzeko guneak eskaintzea".

Hurrengo hitzaldia apirilaren 6an izango da, eguaztena, Donna Apellanizen eskutik: *Emozioen garrantzia familian. Nola zaindu seme-alaben emozioak*.



ARRASATEKO EMAKUME TXOKOAK

'Feminismoa etxe', irabazlea

June Baonza Pagaldaireren kartela aukeratu du Emakume Txokoak. Beraz, kartel hori izango da Martxoaren 8ko irudia eta baita herriko elkarte eta eragile feministekin elkarlanean antolatutako egitaraua iragarriko duen eskuorrikoa ere. Hamar lan aurkeztu dituzte kartel lehiaketan eta Emakume Txokoan jarriko dituzte ikusgai, martxoaren 7tik 18ra.

Udalak 3.978 euro bideratu ditu Leintz Eskola Kirolera

Irailan, lehen aldiz, dirulaguntza lerro berri bat jarri zuen abian Arrasateko Udalak, "2021-2022 ikasturte honetan udalerriko gazteenek Leintz Eskola Kirola ekimenean parte hartzearen bermatzeko". Hala, Udal Gobernuak aditzera eman duenez, 32 familia eta 40 haur lagundu ditu Udalak, eskola kirolako jardueretan parte har-

zaten. "Leintz Eskola Kirolako matrikularen %90 diruz laguntzean oinarritzen da laguntza".

Gobernuak dio dirulaguntza hori familia ahulenei zuzenduta dagoela: "Eskola kirola ezinbesteko eta berebiziko garrantzia duen tresna da gure udalerriaren eta arrasatearren etorkizuna kirolaren balioetan hezteko: bizikidetzaren, euskararen, berdintasunaren, aniztasunaren, parte-hartzearen eta naturarekiko harremanaren oinarritzko balioak lantzeko tresna".

Urte "positiboa" izan da, ekonomikoki eta sozialki

Harreman-entzat urte "garrantzitsua" izan zen 2021a. "Beste komertzio askoren antzera, pandemiak eragindako geldiuneari aurre egin behar izan diogu, eta gure asmoei eustea lortu dugu. Beraz, balantzea positiboa da, "ekonomikoki zein sozialki"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hasteko, boluntarioen hamargarren urteurrena ospatu zuten hainbat ekitaldirekin. Boluntario berriak erakartzeko helburua ere bazuen ekimen horrek, eta eman ditu bere fruituak: "Bi kide berri hasi dira gurekin lanean eta gaur egun hogeitersona inguruko lantaldea gara. Azpimarratu nahi dugu gure ateak zabalik daudela nahi duten guztientzako, zenbat eta gehiago izan, orduan eta indar handiagoa izango dugu eta".

Horrez gain, bailarako hainbat komertzioarekin jarraitu dute lanean; adibidez, Arrasateko eta Bergarako Ereindajaneekin eta Sanprubusarekin. Bestalde, Ibai-arteren eskutik, bidezko merkataritzako txokolatea herrian zabaldu zuten eta zenbait azoka ere berreskuratu ziren: Elkartasun Eguna Arrasaten, Antzuola eta Aretxabaletako azokak bertako gobernu kanpoko erakundeei esker, Ara-

maioiko Erretiratuen Eguna eta Oñatiko Elkar Hezi ikastetxearen azoka.

Dendak 25 urte bete ditu

Harreman Denda zabaldu zutenetik 25 urte dira aurten eta Debagoienean bidezko merkataritzaren zabalkundea egiteko lanetan jarraitzen du gobernu kanpoko erakundeak, dendaren zein bestelako ekimenen bidez. "Zergatik? Pobreziaren kontrako tresna eraginkorra delako", azpimarratu dute. "Hirugarren munduko lurralde askotan produktu estrategikoak ekoizten dira: kafea, kakaoa, azukrea... Urtero milioika dolar mugitzen dituzten produktuak, baina dirutza horren %90 edo gehiago lehen munduko multinazional handien eskuetan geratzen da. Nekazariak oso portzentaje txikia jasotzen dute, eta esplotazio egoerak mantentzen dira: lan baldintza penagarriak, haurren lan esplotazioa...".



lazko urriaren 10ean boluntarioekin ateratako argazkia, Seber Altuben. E.A.



NIRE USTEZ

ANE SANCHEZ ZEZIAGA

Dragoiaren aztarna

Arrasateko kaleetan barrena saltoka ibili naizen egunetatik, beti pentsatu izan dut historia ugari ezkutatzen zituzten hormen artean murgiltzen nintzela. Baina txikitatik kondairen mundura eramaten ninduen leku berezi bat etortzen zait orain burura: Santa Barbara.

Ezaguna da arrasatear guztiontzat dragoiaren istorioa. Zein ume ez da liluratzeko pentsatzean bere herrian behin ahotik sua botatzen zuen dragoi bat bizi izan zela?

Leku honek lagun arteko jolasaldi ederrak eskaini izan dizkit gaztaroan. Egun ere, bere gotorlekura noanean, sentimen berezi batek inguratzen nau. Irribarre inkontziente bat ateratzen zait. Dragoiaren boterea ote?

Ez dakit fenomeno hau azaltzen, baina ziur nago dragoi honek baduela arrasatearrongar garrantzi berezia. Umetan kondairen mundura eraman gintuen bidaian eta gaztetan herriko parrandazaleekin gau ederrak pasatzeko aitzakia oparitu digu. Udako solstizioan, suaren inguruan, bere presentziaz gozatzen dugu, hastear den gau magikoari harrera eginez.

Otsailaren **25**a, ostirala, eta **26**a, zapatua

BEZa*

oparituko dizugu

elikagaietan, freskoetan,
drogerian eta lurrindegian.

Edariak, parafarmazia eta haurtxoentzako produktuak barne.

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

*40€-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan eta 40€-tik gorakoa EROSKI Hipermerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabriar, Erixiar eta Aragoian.

Kutxatik igarotzean zuei EROSKI club txartela pasatzen baduzu, egingako erosketaren BEZari, sustapenera atxikitako saltekin, dagokion zenbatekoa sartuko dizugu lotutako EROSKI club kontuan. Erosketa bakoitzean gehienez sartu daitezkeen zenbatekoak: 250€. Kontuak itzazu gainerako baldintzak dindan.

Baita supermercado.eroski.es/ea webgunean ere.



EROSKI

ARRASATE



Musakola ARRASATE



Tel.: 943 71 10 30

Ospitaleko aparkalekua egokitzen ari dira asteon

Martitzenean ziren lanekin hastekoak Mularri enpresako langileak, baina, azkenean, eguaztenean hasi zituzten. Hasiera batean, hiru egunean bukatzea aurreikusi dute; beraz, gaur bukatu beharko lituzkete behin-behineko aparkalekua egokitzeko lanak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ospitaleko aparkaleku hori, Maria Ubarretxena alkatearen esanetan, behin-behinekoa da, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean ez baitago aurreikusita aparkalekurik gunerretan. Era berean, lurraren baldintzak direla-eta, "teknikoki ezinezkoa da eremua asfaltatzea", alkateak azaldu duenez. Hori dela-eta, drainatze lanak egiten ari dira, putzuak saihesteko, eta lurra hartxintzargeruza batekin beteko dute. "Egia esan, zuloz beteta zegoen aparkalekua eta putzuak sortzen ziren. Kexak jaso ditugu, baita ospitaletik ere, egoera txarrean zegoela esanez. Beraz, ea interbentzio honekin egoera hobetzen den", dio Ubarretxenak.

Martitzenean ziren hastekoak, baina, kamioi baten matxura baten ondorioz, eguaztenean hasi zituzten lanak. Esan moduan, hiru egunean bukatzea aurreikusi dute, eta, beraz, gaur bukatu beharko lituzkete. Edozelan ere, egokitzen lanak dirauten bitartean aparkalekua ezingo denez erabili, ez da TAO-rik egongo ospitalearen inguruan. Bestalde, Maria Ubarretxena alkateak gogorarazi du laster emango dituztela aditzera TAO sisteman egingo dituzten aldaketak, eta aldaketa horiek zonan ere eragina izango dutela aurreratu du, "egoera hobetzeko helburuarekin".

Auto asko inguru horretan

Bestalde, ospitale inguruan auto asko pilatzen dela adierazi du alkateak. "Ospitalean lan egiten duten mediku, erizain eta abarrenak; eremu horretako bizi-lagunenak eta kontsultara bialara osotik etortzen diren herritarrenak". Hala, Osakidetzak ospitale berriarekin batera egingo duen lurpeko aparkalekuak inguruari arnasa emango diola uste du.



Eguaztenean hasi zituzten aparkalekua egokitzeko lanak, eta bukatzeaz dira. E.A.



Hondeamakinak, atzo, lanean. E.A.

Txaeta kalean aparkaleku berria

Txaeta kalean, Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuen ondoan, 42 aparkaleku egingo ditu Osakidetzak, eta lanak hasi ditu Orsa SL enpresak. 80.000 euro inguruko aurrekontua dauka obrak, eta enpresak hiru astean bukatzea aurreikusi du.

Arrasaten 13.483 ibilgailu

Trafikoari lotutako hainbat datu eman ditu Gobernuak. Esaterako, Arrasaten 13.483 ibilgailu daude, egun, erregistroan izena emanda. "2016an, 12.805 ibilgailu eta 22.052 biztanle zeudela

kontuan hartuta, bost urtean 678 ibilgailu gehiago ditugu, biztanleriak bere horretan jarraitzen duen bitartean". Horrez gain, beste 5.000 ibilgailu jasotzen ditu egunean eta 6.555 aparkaleku daude herrian.

Andaluziaren Eguna ospatuko dute bihar Al-Andalus elkarteak

Musakolako zentroan, 13:30ean, fino ardoarekin egindako "ohorezko" brindisarekin ekingo diote egunari, eta Andaluziako ereserkia abestuko dute. 18:30ean, ongietorria egingo diete autoritateei zein bazkideei, eta gero, La Niña Pastoriren omenezko kontzertuek gozatzeko aukera izango da, 19:00etan eta 23:00etan. Bitartean, 21:00etan, senidetahun

afaria egingo dute, baina 45 lagunek afaldu ahal izango dute, gehienez. Gauerdian emango diote amaiera festari.

Musika emanaldiari dagokionez, La Niña Pastoriren errepertorio zabala eskainiko dute Tabita abeslariak eta bere bandak, "une oro errespetatuz moldaketak, melodiak eta ikuskitzunezko soinuk".

"Badirudi normaltasunera bidean gaudela eta ekintzak egin ditzakegula. Beraz, animatu eta etorri gureru", esan dute.

Euskara eta natura txirikordatu dituen berbaldia Kulturaten

Eñaut Agirre Goia filologoak eta Iñaki Sanz-Azkue biologoak euskarak naturatik jaso duena ikertu eta *Gure faunari eta florari begira* liburuan jaso dute. Martxoaren 1ean, martitzena, euren ondorioak eta liburuaren nondik norakoak azalduko dituzte, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian. Besaide Mendizale elkarteak eta AEDk elkar-

lanean antolatutako berbaldia da, *Euskara eta natura txirikordatu* Arrasaten izeneko. "Askotan entzun eta esan izan dugu euskaldunok harreman berezia daukagula naturarekin, gure identitatearen ezaugarrietako bat dela hori. Hala ote? Zer eragin izan du euskaldunok naturarekin daukagun harremanak gure ohituretan, gure hizkuntzan? Zein arrasto utzi du gure ahozko ondarean? Gure kondaira, sinismen, ipuin, hiztegi, kulturaren, oro har?", diote.

"Etxebizitza duina" aldarrikatuko dute astelehenean

Etxebizitza duina langile guztiontzat lelopean, elkarretaratzea deitu du LAB sindikatuak astelehenerako, 18:00etan, *Arrasate-Mondragon* letrak dituen San Andresko biribilgunean. "Langileon bizi baldintzen prekari-zaziorako funtsezko elementua da etxebizitzarena, eta espekulaziorako eta aberastasuna metatzeko erabiltzen ari dira".

"Bermeak" dituen prozesu bat gura du Podemos Arrasatek

"TAOri buruzko prozesu parte-hartzailea eskatzen dugu, baina berme guztiekin", dio Podemos Arrasateko zinegotzi Eva Abuinek. "Izan ere, aurreko prozesuari erreparatuta, herritarren ausazko mahaiaren eskarien ondoren hartu diren erabakiak ez datoz bat. Beraz, benetako prozesu bat gura dugu, eta ondoren, herritarrei galdetu".

OHARRAK

Podemosen batzarra

Gaur, egubakoitza, 18:00etan, batzarra egingo du Podemos Arrasatek, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. "Etorri eta parte hartu", esan dute.

San Isidro, batzarra

Martxoaren 6an, domeka, urteko batzar orokorra egingo du San Isidro elkarteak. Lehen deialdia 11:30ean eta bigarrena 12:00etan.

Trafiko mozketa

Osiñako bidegurutzean lanak hasiko dituzte astelehenean, eta aste osoan trafikoa moztuko dute. Informazio gehiago, Goiena.eus-en.

Mobilizazioa Madrilen

Landa eta ehizaren alde manifestazioa egingo dute martxoaren 20an, eta Arrasatek joateko aukera egongo da. Gaur dago izena emateko aukera, Arrasateko Ehiza Elkarteak, 18:00etatik 20:00etara: Garro Jenerala 3, behean.

Amaian eta parrokian kontzertu bana gaur

Arrasate Musikaleko ikasleek Aratusteen bueltako emanaldia taularatuko dute Amaia antzokian, 18:30ean hasita. 20:00etan, oster, Goikobaluk eta Arrasateko Gazte Abesbatzak helburu solidarioekin abestuko dute alde zaharreko San Juan parrokian

Hasier Larrea ARRASATE

Inauterietako festa giroan murgiltzeko kantuak eskainiko dizkiete ikus-entzuleei musika eskolako zazpi taldek gaur, ostirala, Amaia antzokian. Guztira, ehun musikari inguru igoko dira oholtzara, besteak beste, *Pas*, *Furra-Furra*, *New York New York* eta *La Vaca* abestiak interpretatzeko. Arrasate Musikalekoek ikasturtean zehar jo ohi duten kontzertu berezietakoa izango da, mozorroek ere euren protagonismoa izango baitute.

Bestalde, datorren asteko domekan, martxoak 6, musika eskolako bandak hartuko die testigua eszenatoki berean,



Arrasate Musikaleko ikasleak, 2019an egindako Aratusteetako kontzertuan. GOIENA

12:30ean, piraten garaia gogorra ekartzeko asmoz interpretatuko dituzten doinuekin.

Doinu solidarioak

Gaurko Amaia antzokiko emanaldia bukatze aldera hasiko da San Juan parrokiako ekitaldia, arratsaldeko zortzietan. Harreman elkarteak Indiako Ankur harrera-etxean 200 haur artatzeko egitasmoa eta Mundukideren Mozambikeko nekazaritza proiektua finantzatzeko xedez, Goikobaluren hiru koruk –nagusiak, txikiak eta *izartxoak*– eta Arrasateko Gazte Abesbatzak emanaldi berezia eskainiko dute. Abenduan bi hilabetez atzeratu zuten kontzertua, eta itxaronaldiak merezi izan duela erakusteko irrikaz irtengo dira herriko abeslariak.

Harremanek, berriz, euren partaidetzatik esker ona adierazi die abesbatzei, eta herritarrei gonbidapena egin die San Juan parrokiara joan daitezen: "Goza dezagun koru zoragarri hauek egiten duten musikaz, eta, bide batez, lagun diezaiegun premia larriko egoerak bizi dituzten pertsonei".

Bi aktore ezagunen antzezlan barregarria domeka arratsaldean

Iker Galartzak eta Zuhaitz Gurrutxagak *Lehendakari gaia* komedia aurkeztuko dute etzi, 19:30ean hasita, Amaia antzokian. Txalo konpainiak ekoiztu, Ramon Madaulak idatzi eta Begoña Bilbao zuzendu duen obrak hautatu berria izan den lehendakariaren inbestidura-ekitaldiko hitzaldia du abiapuntu. Galartzak hezur-haragitzen duen politikariak arazo larriari aurre egin beharko dio, aurpegiko keinu arraro, barregarri eta jasanezinek diskurtsoa behar bezala ematea galarazten baitiote.

Ataka estu horretatik irteten psikiatra batek –Zuhaitz Gurrutxagak– lagunduko dio. Bien artean berriketaldi dibertigarri eta nahasgarria sortuko da, norberaren ezkutuko sekretuak, benetako motibazioak eta dauden lekuan egotearen arrazoiak azaleratuz. Bide batez, bi pertsonaiek euren eginkizunetarako boka-ziorik ba ote duten jakin ahal izango du publikoak. Sarrerak 10 eurotan daude.




EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!

IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ

JAI ZALE • DAT • ETXOSTE






2020ko Aramaioko Inauterietako mozorro lehiaketa. GOIENA

Mozorroak prest kalejirarako

Mozorro lehiaketan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Aurten, sarien kopurua handitu egin dute: lehenengoarendako 150 euro eta bigarrenarendako 90 euro. Bazkari antolaturik ez denez egongo, hitzordua 17:30erako egin dute, frontoian

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Urtebeteko geldialdiaren ondoren, mozorroek berriro ere hartuko dituzte kaleak. Maskara batzuk alde batera utzi eta beste batzuk janzteko garaia iritsi da. Festa giroan murgilduko dira aramaiok arrak Aratustek ospatzeko.

Azken urteetako ohitura jarraituz, kalejira eta mozorro lehiaketa egingo dute, bihar, zapatua, arratsaldean. 17:30ean frontoitik irtengo dira eta plazaraino kalejiran joango dira. Lehiaketan parte hartu gura duenak izena eman dezake kultura etxean; gaur da azken eguna horretarako. Edo bihar, frontoian bertan.

Taldekako mozorroak

"Izen-ematea zabalik dagoenez, ez dakigu zenbat taldek parte hartuko duten. Kuadrillak ka-

lejiran joango dira frontoitik plazaraino, ohikoa den moduan bakoitza bere musikarekin", azaldu du Kultura teknikari Itxaso Aspiatzuk.

Herriko talde soziokulturalerako ordezkariek osatutako talde batek epaituko ditu herritarren mozorroak: talde bakoitzak bere dantza edo aurkezpena egingo du plazan, eta epaimahaiak talde horien lana epaituko du. Gogoratu mozorroak prestatzeko gaia libre dela, eta bakarka edo taldeka aurkezteko aukera egongo dela. Taldeak egiten bada, taldeak gutxienez

HERRIKO TALDE SOZIOKULTURALETAKO ORDEZKARIEK OSATUKO DUTE EPAIMAHIA

lau pertsonakoa izan beharko duela nabarmendu behar da.

Aurten, mozorro lehiaketako sariak handitu egin dituzte: hala, haurren kategorian, lehenengoak 150 euro irabaziko ditu eta bigarrenak 90 euro; eta 14 urtetik gorakoaren kategorian, lehenengoak 150 euro eta bigarrenak 90 euro. Gainera, originaltasuna ere sarituko dute, 90 euroekin.

Itur-Zuri: txokolate-jana

Lehiaketaren ondoren, txokolate-jana egingo dute plazan, Itur-Zuri emakume elkartearen eskutik. Aramaioko Inauterietan musika giroan amaituko dituzte. Disko-festa egingo dute plazan. Orduko eta egungo musika doinuak entzungo dira, aramaiok arrak dantzan jartzeko balioko dutenak.

Aurten ez dute bazkari antolaturik egingo.

Mozorro tailerra egingo dute

Aratuste-martitzenean, martxoaren 1ean, makillaje eta mozorro ikastaroa egingo dute Aramaioko ludotekan. Umeei eta gazteei zuzendutako ikastaroan, Inauterietarako makillaje samurra egiten ikasiko dutela azaldu du Ana Martiarena Kultura zinegotziak, eta baita mozorroak edo antifazak ere.



Mozorroa edo antifaza.

Adin guztietako gaztetxoei zuzendutako ikastaroan, hainbat animalien aurpegiak margotuko dituzte, baita superheroien aurpegiak eta marrazki bizidunetako pertsonaia gustukoeneren aurpegiak ere. Horrez gain, ludotekako hezitzaileen eskutik aurpegi babesteko mozorroak egiten ikasiko dituzte.

Udal ordezkariek gogoratu dute 5 urtetik beherako umeei pertsona heldu batekin joan beharko dutela ikastarora; nagusien ardurapean egongo dira horiek.

Eskolan, euskal Inauterietan

Aramaioko eskolan ere ospatuko dituzte Inauterietan. Martitzenean, martxoaren 1ean, egingo dituzte ospakizunak. *Euskal Inauterietan* izango da gaia. Eskolako neska-mutikoak, mailaka, euskal Inauterietako pertsonaiez mozorrotuko dira. Besteak beste, kalean ikusiko diren mozorroak izango dira: *mamoxarroak*, *txatxoak*, Mundakoko lamia...

Martitzen arratsaldean, eskolatik plazara kalejira egingo dute gaztetxoek. Ondoren, plazan bertan, aurrez prestatutako hainbat dantza dantzatuko dituzte. Behin dantzak amaitutakoan, eskolara bueltatuko dira. Guztien gozamenerako, txokolate beroa dastatzeko aukera izango dute eskolako gaztetxoek. Eskolako komunitateak mimos prestatu du jaia.

Mozorrotzeko gogoz

"Jendea gogoz dago normalitate itzuli eta gauzak behar diren moduan egiteko", dio Kultura zinegotzi Ana Martiarenak. Horren harira, nabarmendu du badakiela jendea mozorrotzeko gogoz dabilela, eta mozorrotzeko ohitura duten lagun taldeak dagoeneko hasi direla zerbait prestatzen.

Aldaketa nabarmenena bazkaririk ez egitea izango denez, bakoitzak bere kontura bazkaldu eta 17:30ean frontoian elkartzeko dei egin dute.

ITUR-ZURI ELKARTEAK TXOKOLATE-JANA EGINGO DU; ONDORREN, DISKO-FESTA EGONGO DA PLAZAN

'Mamma mia!' jaialdia gaur

Trikikalejira trikiti elkarteak antolatuta, triki-pandero jaialdia egingo dute gaur, 18:00etan, kultura etxean. *Mamma mia!* izango da jaialdiaren gaia. 70eko hamarkadako garaia irudikatuko dute kultura etxean; protagonista, baina, trikitia izango da. Trikiti taldeen soinu entzutetsuenak eramango dituzte oholta gainera, eta jaialdia amaitzeko *Mamma mia* joko dute. Sarrerak 3 euroren truke jarri dituzte salgai. Aurrez saldu ez direnak gaur eskuratzeko aukera egongo da.

Lagunarteko hiru bertso saio, lehiara fin heltzeko

Aramaioko bertso eskolak Arabako Bertsolari Txapelketa prestatzeko ekitaldiak antolatu ditu martxoko hiru ostiral arratsaldetarako, 19:00etan hasita, Sastiña ermitan. Lehena datorren ostiralean egingo dute, hiru aramaioarren parte hartzearekin

Hasier Larrea ARAMAIO

Eztarriak garbitu eta motorrak berotzeko balio izango die Arabako Bertsolari Txapelketan parte hartuko duten zazpi aramaioarrei martxoaren 4an, 18an eta 25ean egingo dituzten jendaurrekoak. Txapelketa bakarkako ohiko formatura itzuliko da aurten, iazko binakakoa atzean utzita. Orduko hartan, Martin Abarrategik eta Manex Agirrek osatutako bikoteak jantzi zuen txapela, baina Agirrek berak aitortu du Iñaki Viñaspreiri dagokiola titulu hori defendatzea, 2019ko banakakoan garaile irten zelako.

Martin Abarrategik ez du apirilaren 1ean hastekoa den norgehiagokan parte hartzerik izango, kanpoan ikasten dabilako. Nolanahi ere, aramaioarren presentzia handia izango du lehiak: Agirrez gain, Andere Arriolabengoak, Danel Herrartek, Peru Abarrategik, Aitor Ugartek, Paula Amilburuk eta Xabi Igoak parte hartuko dute.

Bertso eskolako lagunak

Hain justu, horiek azalduko dira herrikideen aurrean Sastiñako ermitako jardunaldietan, inguruko herrietako beste bost bertsolariarekin batera. Guztiek bat egiten dute astero Aramaioko bertso eskolan. "Pozik gaude hamabi lagunok igoko garelako oholtzara martxoan zehar; kua-drilla majoa osatzen dugu", adierazi du Agirrek.

Hala, saio bakoitzean launa bertsolarik abestuko dute. Datorren ostiralean, Andere Arriolabengoak, Danel Herrarte, Manex Agirre eta Peru De Pedro izango dira protagonistak; martxoaren 18ko saioan, Ane Zuazubiskar, Peru Abarrategi, Aitor Ugarte eta Zigor Enbeita igoko

KORRIKA KULTURALAREN EGITARAUAN SARTU DITUZTE SASTIÑAKO BERTSO SAIOAK

dira oholtzara; eta martxoaren 25ean, berriz, Paula Amilburu, Xabi Igoa, Asier Galarza Muxi eta Aitor Esteban. Gaiak jartzen ere bertso eskolakoak arituko dira, eta, elkar ondo ezagutzen dutenez, zirikatze eta umorea erabiltzeko aukerari ateak irekiko dizkiotela pentsa daiteke.

Aipatzekoa da Udalararen laguntzarekin eta Korrika Kulturaren egitarauaren baitan programatu dituztela Sastiñako bertso saioak.

Azkenaldian, "gutxi"

Pandemiaren testuinguruagatik "ohi baino saio gutxiago" egin dituzte azken urtean zehar; 2022ko txapelketa bera ere urtarilean zen egitekoa, baina hiru hilabete atzeratu behar izan dute. Txapelketaren atarikoan sartuta, "azken hilabeteetako giro geldoa pizten" ari dela dio Agirrek. Ea, bada, martxoko saioetatik bizi-bizi irten eta maila txukuna ematen duten aramaioarrek, beste behin ere.

Landa-guneetako plan bereziak kontsulta daitezke udaletxean

Joan den urtarrilaren 27ko osoko bilkuran, landa-guneak arautzen dituzten plan bereziei hasierako onarpena eman zieten udal ordezkariak. Gune horiek bi fasetan banatu dituzte: lehenengoak Arriola, Arexola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolak hartzen ditu; eta bigarrenak, Azkoaga, Etxaguen, Gantzaga, Gureia eta Untzilla.

Hasierako onarpenaren iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu zen otsailaren 18an. Hortaz, espedienteak martxoaren 18ra arte jarriko dute erakusgai udal bulegoetan, edozein interesdunek aztertu eta bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ditzan.

Udal webgunean plan bereziaren nondik norakoak aztertzeko dokumentazioa dago argitaratuta, herritarrek kontsultatzeko gertu.

KZgunea martxoaren 4ko arratsaldean zehar zabalduko dute

Administrazio izapideak Internet bidez egin, ikastaroak jaso edo teknologiarik buruzko zalan-tzak argitu nahi dituenak KZguneako dinamizatzailearen aholkuak aurrez aurre jasotzeko aukera izango du datorren ostiralean, 16:00etatik 17:45era, kultura etxean bertan.

Bestela ere, herritarrek telefonoz jaso ditzakete egunerokotasuneko kontuak teknologiaren bitartez konpontzeko argibideak, 945 06 25 55 zenbakira deituta. Aramaioko dinamizatzailearekin kontaktatzeko helbide elektronikoa honako hau da: tutor.aramaio@kzgunea.net. Eta webgunea ere bisita daiteke, kzgunea.eus idatzita.

'TicketBAI' jartzeko laguntzak enpresei eta autonomoei

Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza deialdi berezia jarri du martxan, merkataritza sektoreari *TicketBAI* abian jartzearekin lotutako software inbertsioak finantzatzeko laguntzeko asmoz. Gehienez zortzi enplegatu dituzten langile autonomoak, gehienez bederatzi autonomoz osatutako sozietate zibilak eta merkataritza sozietateak batu daitezke deialdira. Eskatzaile bakoitzak 1.000 euro jaso ditzake asko jota, eta gutxienez 200. Horrekin batera, Udaletik gogorarazi dute euskaraz ere instalatu daitekeela administrazioek ekonomia jarduera kontrolatzeko martxan jarri duten sistema.



Iazko binakako txapelketako saio batean, Manex Agirre bertsoa botatzen. BERTSOZALE ELKARTEA



ATGA

Gazte lokaleko mural berriak

Azken egunotan, gazte lokal barruko hormak margotzen aritu dira bertako erabiltzaileak eta Gazte Asanbladako kideak, "kutsu politikoa" emateko. Guztira, lau mural egin dituzte, eta azken errepasoa emateko elkartuko dira martxoaren 5ean. Argazkikoaz gain, Eguzkierripako irudia eta armarri bat ere margotu dituzte, besteak beste.



Herriar bat, saltoki baten aurrealdean jarritako arropari begira. MIRARI ALTUBE

Ixadebalde azoka gertu martxoaren 3an egiteko

Hamaika merkatarik hartuko dute parte eta saltokien aurrealdean, herritarren eskura, izango dituzte merkatutako produktuak, hala nola oinetakoak, arropak eta jatekoa, hurrengo egunean eta egubakoitzean egun osoz eta zapatuan goiz partean

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarte-ko kideak Ixadebalde merkealdien azokari begira jarrita daude azken egunotan. Martxoaren 3tik 5era bitartean, udazkeneko eta neguko jeneroa aterako dute gehienek saltokien aurrealdera, eta jatekoa ere bai beste batzuek.

Hamaika merkatarik

Hamaika merkatarik egin dute bat 2022ko lehen Ixadebalde azokarekin. Arropak, osagarriak eta oinetakoak eskainiko dituzte besteak beste, honako hauek: Amaia ume denda, Asensio, Belar Meta, Haurrak, Kilima, Titare, Almila Shop, Tak eta Zubia. Eta jatekoa eta edatekoa izango dute, Kilokak eta Hankabeltz urdaitegiak.


Aurreko aldieta legez, eskaintza "politak" dituztela herritarrendako iragarri dute: "Kalitateari eutsita prezio ezin hobeak eskainiko dizkiegu". Haurrak dendako Silvia Alvarezek onartu du sasoi "zaila" izan dela, eta

orokorrean, jenero asko geratu dela dendatan: "Azokak hori ateratzeko aukera emango digu". Horregatik, aprobetxatzeko dei egin die aretxabalarrei.

Zozketak bezeroen artean


Saltokien aurrealdean jarriko dituzte produktuak hiru egunetan: martxoaren 3an eta 4an goizez -10:00-13:00- eta arratsaldez -16:30-20:00- eta 5ean, zapatuan, goizez -10:00-14:00-.

Oraingoan, ez dute antolatu kalea girotzeko ekitaldirik, baina opariak bai, horiek izango direla aurrekoetan legez iragarri dute. Merkatarik bakoitzak 50 euroko bonuak zozketatuko ditu erosketak egin dituzten bezeroen artean, Ixadebaldek atek itxitakoan.



UXUE ERAÑA BELAR META JANTZI DENDA

"Beharapenen ondoren geratutako arropa kentzea komeni zaigu jenero berriari lekua egiteko; hortaz, azoka oso ondo datorkigu".



ALBERTO ASENSIO ASENSIO JANTZI DENDA

"Beharapenetako arropak aterako ditugu; ekonomikoki ez da errentagarria, baina jeneroa kentzeko egokia bai. Gainera, kaleak girotzen ditu".

Ohiko jarduna berreskuratzen hasiko da Basotxo martxoan

Donostiara joango dira hilaren 24an, eta zaindariaren eguna ere ospatuko dute, data zehaztu gabe izan arren

M.A. ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak jakinarazi du ohiko lan-jardunari heldu eta bertan behera utzitako ekintzei helduko dietela martxoan. Honela adierazi du Aitor Alberdi presidenteak: "Koronabirusak eragindako osasun egoera gaintitzen hasi gara, eta, neurri murriztaileak kendu dituztenez, jarduera guztiak abiaraziko ditugu".

Donostiara martxoaren 24an

Martxoaren lehen ospatu izan duten Aingeru Guardakoaren eguna, zaindariarena, atzeratu egin dute: "Ez da bertan behera geratu, eta data berria zehazterakoan jakinaraziko zaie bazkideei". Txangoei dagokienez, dagoeneko hasi dira antolatzen. Martxoaren 24an, eguna, Donostiara joango dira, goiz-pasa; gero, Urnietako Oianume sagar-



Basotxoko abestalea, azaroan. M.A.

dotegian bazkaldu eta iluntzean itzuliko dira. Izena emateko epea zabalik dago, martxoaren 16ra arte; Basotxotik pasatu behar da, 11:00etatik 12:00etara.

Arkupen emango dituzten ikastaroak antolatzen ere hasi direla gaineratu du.



"Sekulako" Aratusteen zain daude herritarrek

Musika eskolaren 'Egubakoitz argal' emanaldiarekin ekingo zaio mozorro-festari gaur, eta egun handia domeka izango da, kuadrillen desfilearekin. Martitzenean, neska-mutikoei ospatuko dute, eta agurra Txinen hiletarekin emango diote herritarrek

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Egubakoitz argal ikuskizunak abiaraziko ditu Aratusteen gaur. Leizarra musika eskolako kideak, pirata jantzita, kalejiran joango dira Mitarte kaleraino, eta ondoren, kiroldegian eskainiko dute emanaldia (18:00). Bederatzi taldetan banatuta, 85 dantzarik parte hartuko dute, txistularien, trikitilarien eta gaiteroen laguntzarekin. Hego Euskal Herriko eta Errioxako dantzak dantzatuko dituzte; talde bakoi-tzak pieza bana, eta, azkenean, guztiek batera, beste hiru dantza egingo dituzte.

Egun handia, betiko legez, domeka izango da. Kuadrillek



Dantzari bi 2020 emanaldian. I. SORIANO

isilean jardun dute lanean, eta etzi erakutsiko dituzte gertatutako karrozak; kamioi handiek ez dute hutsik egingo, ezta umore handiz prestatutako mozorroek ere. Txino dantzarekin abiatuko da jaia, eguerdian, eta ondoren etorriko da desfilea, txarangak girotuta. Arratsaldean, DJa izango da plazan (18:00) eta mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte (18:45).

Nerabeendako jolasak ere izango dira, "aisialdiaz era osasuntsuan goza" dezaten. Zezen mekanikoa, *bubble balls* lehiaketa eta quad zirkuitua izango dituzte Kurtzebarriko kantxan (17:00).

Ikasleak, ikastetxeetan

Martitzenean neska-mutikoei girotu ohi dituzte herriko kaleak, baina aurten, 5 urtekoak bakarrik elkartuko dira (10:30), hain zuzen ere, txino dantza egiteko -eguraldi onarekin plazan, eta bestela, pilotalekuan-. Gainera, koei, nork bere ikastetxean ospatuko du. Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzakoak kantxan elkartuko dira, eta Lehen Hezkuntzakoak, arratsaldean, Herriko Plazan: "Euskal Herriko pertsonaiekin mozorrotuko gara eta dantza egin, euskal tradizioaren eta kultura ondarearen transmisioa izanik helburua".

Basabeazpi gunekoei dagokienez, gaur, egubakoitza, Arizmendiko txarangarekin irtengo dira: "Herriari jakinarazteko Aratusteen badatozela. Martitzenean gunean bertan egingo dugu jaialdixoa". Almenekoak, oster, gaur mozorrotuko dira, eta jolasak, dantzak eta desfilea egingo dituzte, besteak beste.

Pausoka haur eskolakoak erakinean ospatuko dute: "2 eta 3 urteko piratak altxorraren bila irtengo dira, eguraldia lagun izanez gero".

Frontenis txapelketan izena emateko epea bukatzeaz da

Emakumezkoen frontenis txapelketa antolatuta du UDAk, eta dagoeneko, bederatzi bikotek eman dute izena. Horretarako epea oraindik zabalik dago, hila-ren 28a arte, hain zuzen ere -10 euro ordainduta bikoteko-, eta helbide honetara idatzi behar da: emakumefrontenisaUDA@gmail.com. Txapelketa martxoaren 5ean eta 6an jokatuko da.

Spako igerilekua itxita egongo da datorren astean

Ibarra kiroldegiko ordezkariak aditza eman du spako igerilekua itxita egongo dela otsailaren 28tik martxoaren 4ra. Osasun Sailak ezarritako arautegia betetze aldera, mantentze-lanak egingo dituzte egun horietan.

Gune horretan dauden sauna eta etzaulki termikoak, oster, erabilgarri egongo direla adierazi dute.

aurten BAi!!

ondo pasan!!



aratusteen
ak



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com



"Proiektua ondo doa, baina sentipen gazi-goza dut"

EÑAUT ZUBIZARRETA BIOLONTXELO-JOLEA

Trigger izenpean garatutako 'Poliedro Vol. I' lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Arkupen, beste bi txelo-jolek eta dantzari batek lagun eginda

Mirari Altube ARETXABALETA

Eñaut Zubizarreta Mendietak (Aretxabaleta, 1992) munduan zehar biolontxelo ulertzeko dau den ikuskera berriak ikertu ditu *Poliedro Vol. I* lanerako, eta horren bueltan batutakoak eramango ditu gaur (19:00) Arkupera.

Lehenengoz izango zara Arkupeko oholztan?

Neure proiektua aurkezten bai. Formatu handiarekin nator, Quico Puges eta Jokin Garmendia txelo-joleek eta Amaia Lu-luaga dantzariak lagun eginda. **Etxean egoteak urduritasuna areagotzen du?**


Urduritasun kontuak albo batera utzita ditut eta etxean jotzeak segurtasuna ematen dit niri.

Pandemia gogorra izan da sortzaileendako, baina azken hilabeteotan geratu barik zabilta.

Gogorra izan da, baina proiektu berria garatzen harrapatu ninduen ni pandemiak, eta sukaldeko lanak egiteko baliatu nuen. Irailetik hona, oster, atzera eta aurrera nabil; gustura.

Poliedro martxan jarri zenuenetik urtebete pasatu da.

Proiektua lantzen 2019ko irailean hasi nintzen eta 2021eko otsaila arte lanak aurreratzen jardun nuen; konposatze lanetan, esaterako. Orain dela urtebete, justu, finantzatzeko baliabideak



Eñaut Zubizarreta. A. ARANBURUZABALA

topatzen hasi nintzen; *crowdfunding*-a abiatu nuen. Nahiko intentsua izan zen garai hura, diru-bilketa uztartu behar izan nuelako grabaketa eta idazte lanekin. Erditu aurreko azken fasea izan zela esango nuke.

Erditze hartatik urtebetera, pozik emaitzarekin?

Proiektua ondo doa, baina sentipen gazi-goza dut. Proiektu honekin gura nuen bi frontetan ereitea: batetik, publiko orokorrean, erakusteko jendarteari txelo beste era batera jo daitekeela, eta horren emaitzarekin

gustura nago; baina, bestetik, nire gogoa zen trebatzen hastea hari-instrumentistak, ikasleak zein irakasleak. Trebakuntza saioak emateko proposamenak egin luzatu nituen musika eskolatan, baina ez dut erantzunik jaso bueltan. Nire lana ez da bakarrik musikala, soziala ere bada, jakintza zabaltzea, eta erantzunik ez jasotzea tristea da.

Txelo bakarrik entzutera ohituta dago publikoa?

Trebakuntza lan horretan dihardut, esandako moduan. Gainera, egiten dudana ez da oso esperimental, mendebaldeko musika modernoek kokatuta da, baina, gitarra edo baxu batekin egin beharrean, txeloarekin eginda.

Bideoklipa aurkeztu berri duzu.

Argi-ilunak kantarekin egiteko aukera izan dut, Belaguan, betidanik ezagutzen dudana paraje berezian. Arantzatxo hori atera dut, eta gustura nago emaitzarekin eta izan duen harrerarekin.

Beste proiektu batzuetan ere bazabiltza.

Bai; Iban Galan *Desegin* ilustratzailearekin eta Jon Garcia musikariarekin aurkeztu dugu *Desitsatsi* erakusketa bizia. Galan lau koadrotatik abiatuta musika egiten dugu uneen bertan gitarrarekin, txeloarekin, sintetizadorearekin...



BENAT ABASOLO

Hamabigarrena ere, "gustukoa"

Oñati eta Aretxabaleta artean, Kortaburu, Gorordo eta Urrexolagarai inguruan, ibili ziren 30 bat lagun joan den zapatuan, Loramendi elkarteak Toponimia taldekoak gidari. Eta zortzi kilometro pasako ibilbidean kontu eta pasarte bitxi asko ezagutu zituzten elkartutakoek, "ezin gusturago". Hamabigarren eta azken ibilaldi toponimikoa izan da.

Bola-txapelketa antolatu dute biharko, bolatokian

Pandemiak eragindako geraldia- ren ondoren, bolatokia berrina- guratuko dute bihar, zapatua, txapelketa jokatu (12:30). Or- dubete lehenago zabalduko dute, izena emateko -5 euro- eta bero- tzen hasteko. Irabazleak jasoko ditu 100 euro eta urdaiazpikoa; bigarrenak, 75 euro eta txerri- be- soa; eta ondorengoak, 50, 30 eta 20 euro, hurrenez hurren.

Eta martxoan sartu berri- tan, hilaren 5ean, beste txapelketa bat jokatu da bertan: Izan Bidea bola-jaurtiketa. Aretx- abale- tako Sarek antolatu du hori, *Gari Atxabaltara* leloarekin. 12:30ean hasiko da, eta izena emateko ordubete lehenago ire- kiko dute.

Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldiak antolatzen hasi dira

Korrika batzordeak buru-belarri dihardu lekukoa etorri aurreko kontuak eta ekitaldiak antolatzen; ia hoge- i lagun elkartu dira aste honetako bileran.

Korrika lagun izateko gonbi- dopenak martxoaren 7tik aurre- ra banatuko dituzte saltoki, os- talaritza zerbitzu eta enpre- setan. Era berean, martxo bukaerako eta lekukoa datorren egunerako ekintzak zehazten hasi dira, hala nola antzezlan bat umeendako eta herriko taldeen kontzertuak. Korrika Txikiak ere ez du hutsik egingo. Hurrengo bilera martxo- ren 7an, astelehenean, egingo dute (18:30) eta ateak zabalik dituzte ekarpenak egin gura di- tuenarendako.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Dorletako parkea berritzeko proiektua, aukeratzeko prozesuan

Partaidetza prozesua martxan da Dorletako parkean egin nahi dena zehazteko. Hiru proposamen daude eta nahi duenak bere gustukoena aukeratu dezake. 80.000 euro inguru bideratuko dira lan horietara, eta lanak uda aurretik hastea aurreikusten dute

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Udalbatzak 2022ko Eskoriatzako udal aurrekontua onartu zuenean, Dorleta auzoko haur-parkea berritzeko proiektura 80.000 euro inguru bideratuko zituztela adierazi zuten udal ordezkariak. Hori horrela, hiru proposamen jarri dituzte jendaurrean, eta aukera dago hiru proiektuen arteko bozketa egiteko, udal webgunean dagoen dokumentazioa beteta.

Auzoan galdeketa eginda

Dorletako parkea eraberritzeko asmoarekin, 2021eko uda partean galdeketa egin zitzaizen bertako bizilagunei, eta, orduan jasotako erantzunak kontuan hartuta, parkea eraberritzeko hainbat proiektu proposatu ditu Eskoriatzako Udalak. Hiru proposamen aukeratu dituzte, eta hiru horiek, orain, jendaurrean daude, aukeraketa egiteko. "Dorletako parkea berritzeko proiektua agintaldi honetako programan sartu genuen, eta, pandemiagatik urtebete galdu dugun arren, martxan jarri dugu. Helburua da, *Partxis* plazan egin genuen moduan, herritarrei, bereziki, haurrei, hiru aukera ematea gehien gustatzen zaiena aukeratzeko. Guztira, 80.000 euroko edo 85.000 euroko proiektua izango da, egiten den aukeraketaren arabera. Joan den egubakoitzean argitaratu genituen hiru proposamenak, eta ikusgai daude Dorletako parkean, bibliotekan eta herriko bi ikastetxeetan, paneletan. Ikusiko dugu haurrek zein aukeratzuten duten, baina parte hartzeko dei egiten diegu, eta ekarpenak ere ongi-etorriak izango dira", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

Ozeanoetako hondakinak

Aukeretak bat Made Green produktuekin osatutakoa da. Produktu horiek kontsumo osteko material birziklatuekin egiten dira, hala nola ozeanoetako hondakinak, erabilitako ehunak, elikagaien ontzien hondakinak, erabilitako plastikozko poltsak, eta abar. Produktu horiek karbono isuriak % 50eraino murrizten dituzte, 2014an fabrikatutako antzeko produktuekin alderatuta. Hala, honako elementu hauek batzen ditu proposamenak: Tex Made postea, Ocean Green panelak eta Flextop Eco Blended lurzorua.

Aniztasun funtzionala ardatz

Bigarren proposamenari dagokionez, parkea eraberritzeko irtenbide jasangarria eskaintzen da ingurugiro, sozial eta ekonomikoarekin, garapen iraunkorraren helburuekin bat datorrena. Gainera, ahalik eta parke inklusiboena eskaintzen da, aniztasun funtzionala duten erabiltzaileentzako egokitua. Eskaintza hau proposatzen duen enpresa bertakoa da, 1982an aitzindari izan zena haur parkeak zurezkoak egiten; orain,

AUKERA GUSTUKOENA HAUTATZEKO ESKATU DIETE UDAL ORDEZKARIEK HERRITARREI

MARTXOAREN 4RA ARTE DAGO HIRU PROPOSAMENEN ARTEAN AUKERAKETA EGITEKO

berriro aitzindari da jolas parkeak plastiko birziklatuzkoak fabrikatzen. Eremuak 3.982 metro karratu ditu eta hamalau jolas dibertigarri osatuta dago. Erabiltzaileen trebeziak lantzeko eta beraien sormena garatzeko jarduera erakargarriak dituzte elementuek. Horietatik zortzik irisgarritasun inklusiboko ezaugarriak dituzte, haur parkea denentzako erabilgarria izateko. Haur parkea zelai eta zuhaitzez inguratuta dagoenez, eremuarekin bat etortzeko kolore apalak erabili dira jolasentzako, marroia eta grisa, eta zorurako, berri, orbelak udazkenean dituen koloreak aukeratu dira. Gainera, oztoporik gabeko bidexka bat irudikatzen da zoruan, ikusmen eta adimen aniztasun funtzionala duten erabiltzaileentzako.

Sokekin egindako jolasak

Proposatutako haur parke hau, berri, Txorien Parkea izenez definitzen da. Lorategi edo oiha baten itxura du, berde eta okre tonuko zoladurekin, eta kautxuzko suge baten irudia dago zoruan. Jolasen egiturei, berri, metalezko posteei eusten diete. Elementu guztiak sokekin eginda daude, eta horien gainean kulunkatu eta eskegi ahal izango dira umeak. Parkean txori habia handiak izango dira, material iraunkorrekin eginak, ez dute mantentze-lanik behar eta TUV ziurtagiria dute. Talde jolasa eta jolas inklusiboa lehenesten duten elementuak dira, adin eta gaitasun guztientzat egokiak.

Proposamen bakoitzean proiektatu diren jokoei eta bestelako materialei buruzko fitxa teknikoak udal bibliotekan eta Jose Arana eta Luis Ezeiza ikaste-



Lehenengo proposamena, Made Green produktuekin osatuta. ESKORIATZAKO UDALA



Bigarren proposamena, Proiektu jasangarri eta inklusiboa. ESKORIATZAKO UDALA



Hirugarren proposamena, Txorien Parkea. ESKORIATZAKO UDALA

txeetan utzi dituzte ikusgai, informazio zehatzagoa nahi duenarentzat.

Bozketa egiteko

Hiru proiektuen arteko bozketa egiteko eta proposamenen gainean bestelako iradokizunak egin ahal izateko martxoaren 4ra bitarteko epea dago, eta horretarako, udal webgunean erantsita dagoen aukeraketa orria bete beharko da. Modu hauetakoren bat erabilita eman ahal izango da bozka: posta elektro-

nikoz obrak@eskoriatza.eus helbidera idatzita edo udal bibliotekan entregatuz. Azken honetan, aukeraketa orriak bertan daudela jakinarazi du Udalak.

"Partaidetza prozesu hau lehenengo pausoa da. Asmoa da martxoko Hirigintza batzordean aukeratutako proiektua onartzea, eta pleguak ere onartzea. Helburua da uda aurretik lanak egitea; gustatuko litzaiguke udarako parke berria izatea", dio Ezkurdiak.



Eskoriatzako udalbatzako kideak otsaileko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

"Elkarlana eta batasuna" Martxoaren 8rako

Bilkura telematikoak alde batera utzita, otsaileko osoko bilkura egiteko udaletxean batu ziren udalbatzako kideak martitzenean. Martxoaren 8aren baitan, EAJk eta EH Bilduk nork bere proposamena aurkeztu zuen, eta Eudelek eskatutakoa irten zen aurrera

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Denbora luzez bertan egin gabe, Eskoriatzako udalbatzako kideak martitzeneko otsaileko osoko bilkura egitera udaletxera bueltatu ziren. Gai-zerrendako puntu gehienak tramiteak izan ziren, eta Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, dela-eta, EH Bilduk eta EAJk aurkeztutako proposamenek izan zuten garrantzia bilkuran. Udal Gobernuak aurkeztutakoa atera zen aurrera, Eudelek eskatutakoa.

"Martxoaren 8aren baitan, alderdi bakoitzak bere proposamena aurkeztu du. Guk uste dugu Eudelek planteatzen duenak lanketa handia duela, Euskal Herriko alderdi eta ordezkari politiko guztiek ordezkatzeko dutelako. EH Bilduk zerbait gehiago gaineratzea planteatu du, eta uste dugu halako zerbait osoko bilkuran adostu barik, lan batzordeetan aztertu behar dela teknikarien eskutik, eta guztion iritzia kontuan hartu-

ta. Hala ere, garrantzitsuena da denon batura adieraztea", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJko bozeramaileak.

Zaintza mahaia

EH Bilduk, berriz, honako hau adierazi zuen: "Eudelen proposamena aurkeztu ziguten, eta, halakotan egiten dugun moduan, lanketa bat egin genuen herriko talde eta elkarte feministekin. Asti askorik ez, baina bi proposamen ekarri ditugu. Garrantzitsuena zaintza mahai baten eratzera da. Zaintza sistemari buruzko analisisa egin eta honen konpromiso kolektiboari heltzeko estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko eta abian jartzeko elkarrizketarako era-

MARTXOAREN 8KO EKINTZETAN PARTE HARTZEKO DEI EGIN DUTE UDAL ORDEZKARIEK

bakigune bat. Eta gero, ekintza zuzenak egitea ere proposatu dugu emakume, nerabe eta nesken ahalduzko indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, tokiko eragile feministekin batera: maskulinitateari edo ahalduzko buruzko buruzko hitzaldiak...", adierazi zuen Eluska Irazuk, EH Bilduko bozeramaileak.

Ekintzetan parte hartzeko deia

"Eudelek marko on bat proposatzen du, eta EH Bilduk egindako proposamenak ere oso interesgarriak dira, eta kontuan hartzekoak. Adierazi da horiek batzordeetan lantzea, eta Elizateen partetik horri forma emateko prestutasuna adierazten dugu. Esan behar da Martxoaren 8a kaleak hartzeko eguna dela, eta deialdia egiten dugu prestatuko diren egitarauko hitzorduetara animatzeko herritarrek", esan zuen Leire San Vicentek, Eskoriatzako Elizateen Elkarteko bozeramaileak.

Txinpartak hauspotuko dituzte, trantsizio energetikoa ardatz

Gaur, 15:00etan, proiektuaren berri emateko ekitaldia egingo dute ikasleek Fernando Eskoriatza plazan

I.B. ESKORIATZA

Arizmendiko Almen guneko DBHko bigarren mailako ikasleek *On fire* izeneko proiektu bat egin dute, gaur egungo energiak zeintzuk diren aztertu, energia berri-erreserbiak zeintzuk diren ikusi eta trantsizio energetiko kolektiboaren beharraz ohartuta.

Proiektuaren galdera nagusia ondokoa izan dela adierazi dute ikasleek: *Nola aldarrikatu dezakegu gure herrian trantsizio energetiko baten beharra daukagula?* Eta, aldarrikapen hori lortzeko, *Txinpartak hauspotuz*

izeneko kanpaina sortu dute. Eskoriatzako eta Aretxabaletako plazetan hauspotuko dute gaur, 15:00etan.

Ekitaldi dinamikoa egin nahi dute, eta herritarren parte hartzea bultzatu. "Hainbat txoko izango dira ekitaldian, hurrek eta nagusiek parte hartu ahal izateko. Egun hauetan egindako eskuorriak banatuko ditugu, irakurri eta dena hobeto ulertzeko. Azkenik, manifestua entzuteko aukera izango da arte ekintza edo performance bat burutu ondoren".

Aldaype ehiza elkartekoak, Madrilgo manifestaziora

Martxoaren 20an, *Landa eta ehizaren alde elkarrekin* izenpean, manifestazioa egingo da Madrilan, eta Eskoriatzako Aldaype ehiza elkartetik izen-ematea jarri dute martxan, hara joateko autobusa antolatzeke. Gaur edo otsailaren 28an eman beharko da izena, Aldaypeko lokalean, 17:00etatik 19:00etara bitartean. "Ehizaren aurkako politikak eta gure kolektiboa jasaten ari den jazarpen egoera larriak eraman dute Euskadiko Ehiza Federazioa manifestazio horretan parte hartzera. Bertaratzeko autobusak antolatzen ari gara, animatu", adierazi du Aldaype ehiza elkarteko Gerardo Canterak.

Ibilgailuen zergaren errolda eta borodatez ordaintzeko epea

Ibilgailuen gaineko zergaren errolda alkate erabakiz onartu da eta jendaurrean egongo da udaletxeko *H@ZI* zerbitzuan martxoaren 7a arte. Borodatez ordaintzeko epea honako hau da: 2022ko martxoaren 8tik apirilaren 11ra arte.

Helbideratutako ordainagiriak zuzenean kargatuko dira epearen azken egunean, banketxe edo aurrezki kutxetako baimendutako kontuetan. Helbideratu gabeko ordainagiriak, berriz, posta arruntez bidaliko dira, zergadunaren helbide fiskalera, ordainketa egin dezan. Agiri hori jasotzen ez duenak udaletxeko diru-bilketa zerbitzuan eskatu beharko du.

Herrigunetik kanpo, sugea

Otsailean sugea ikustea baino, otsoa ardi artean ikustea nahiago esaera behin eta berriz erabili dute egunotan eskibeltarrek.

"Gabonetatik hona, egunero ez, baina sarritan ikusten dugu suge hau Erañako eskalada-guneko haitzaren inguruan, beti leku berean, eta bitxia da, gainera, sasoi honetan sugea ikustea", esan du Oier Eskibelek.



OIER ESKIBEL

Urdelardero ospatuz hasi dituzte Aratusteak

Eguen gizenean, herriko ikastetxetako haurrak kantuan aritzen dira Eskoriatzan barrena, eta hala aritu ziren atzo, zira janariz ondo beteta zutela, burbuiletan banatuta. Aratusteak hasita, beraz, izango dira egunotan beste zenbait ekintza ere

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Zira barruan txorizoa, ogia, sagarra, donutsa eta bestelakoak sartuta eta baserritar jantzita, *Urdelardero* kantua abesten eman diete hasiera herriko txikienek Aratusteei Eskoriatzan. Herriko ikastetxeko haurrek burbuilatan jarraitzen dute ikasgeletan, eta, hain zuzen, modu horretan irten ziren atzo kalera, Urdelardero eguna ospatzeko. Burbuila talde bakoitzak ibilbide bat egin zuen, baina urtero moduan Fernando Eskoriatza plazan amaitu beharrean, ikasgeletara bueltatu ziren.

Herrigunean sakabanatuta

Luis Ezeiza Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleak Jose Arana egoitzara eta Intxaurtxueta auzora joan ziren eta Haur Hezkuntzako ikasleak, berriz, Ibarraundi museora eta San Pedro auzora. Arizmendiko Jose Arana guneko 3 urteko gelakoak Huhezi unibertsitate inguruan eta Dorleta auzoan barrena aritu ziren. 4 eta 5 urteko gelakoak, berriz, erdigunean, Santa Anan, San Juanen, Hidalgan eta Arbiñosten barrena. Eta, azkenik, Almeneko lehenengo eta bigarren mailetakoz gaztetxoak, batzuk herrian gora joan ziren, Olaeta eta Aranburuzabala kaleetara,



Herriko haurrak Urdelardero eguna ospatzen. AMAIA TXINTXURRETA

eta beste batzuk, berriz, herriko behealdean izan ziren: Jose Arana egoitzatik pasata, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetan.

Arratsaldean, Potxin eta Patxin pailazoak izan ziren *Ingurumena zaindu* ikuskizuna eskaintzen, baina hori ez da izango Aratusteen bueltan prestatu duten hitzordu bakarra.

Gainontzeko hitzorduak

Gaur, esaterako, *The Roaring '20s* izenpean, Aratuste-kontzertua eskainiko dute Zaldibar antzokian, 20:00etan, Beheko

Errota musika eskolako bandakoek, Jesus Urrutia zuzendariaren gidaritzapean. Zapatuan, musika eskolako dantza taldearen emanaldia izango da, 12:00etan, Fernando Eskoriatza plazan. Eguerdian eta iluntzean, berriz, Andoni Moto arituko da musika jartzen, eta, Aratusteei amaiera emateko, datorren martitzenean, martxoak 1, 17:00etan, kukumarroak arituko dira puxikarekin gaztetxoentzatetik; eta 17:45ean, Nemux diskoteka egongo da Fernando Eskoriatza plazan.

Torradak egiten ikasiko dute haurrek Tortolis ludotekan

Izena aldeztu aurretik emanda, martxoaren 2an eta 4an arituko dira sukaldari ludotekako erabiltzaileak

I.B. ESKORIATZA

Aratusteetako ohiturari jarraituz, eta beste urte batzuetan egin duten moduan, ogia, esnea, kanela eta arrautzak osagai gisa erabiliz torradak egingo dituzte ludotekako erabiltzaileek bi

egunetan, martxoaren 2an eta 4an, Tortolis ludotekan.

Bi txandatan banatuko dira Tortolis ludotekako gaztetxoak sukaldaritzatailerrean torradak egiten aritzeko: batetik, martxoaren 2an, 16:45etik 18:00etara

bitartean, Haur Hezkuntzako haurrak arituko dira; eta, bestetik, martxoaren 4an, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Lehen Hezkuntzakoak.

Torradak egiteko haurrek amantala edo kamiseta zahar bat eramatea gomendatu dute Tortolis ludotekako arduradunek, eta gaineratu dute parte hartu nahi duten haurrek izena eman beharko dutela aldeztu aurretik, Tortolis ludotekara joanda edo bertara deituta, 688 60 13 74 telefono zenbakira.



Txatxilipurdi aisialdi elkartearen haurrentzako ikuskizun bat. TXATXILIPURDI

Zirkuko trebeziak izango dituzte ikasgai Aratusteetako zapatuan

Otsailaren 26rako egitaraua prestatu dute; zirkuko tailerra eta pintxo lehiaketa, musikarekin girotuta

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak, herriko beste hainbat eragilarekin elkarlanean, Aratusteak ospatzeko egitaraua prestatu du otsailaren 26rako, zapatua. Eguneko hitzordu azpimarragarriena 11:30ean izango da, eta, bereziki, haurrei zuzenduta dago. Hain zuzen ere, Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak kideek zirkuko tailerra eskainiko dute, eta bertan, zirkuko hainbat diziplina ikusteko eta ikasteko aukera izango dute bertaratzen direnek; besteak beste, malabarrak, oreka...

Horrekin batera, pintxo lehiaketa irekia ere izango da, eta parte hartu nahi duenak pintxo bat egin eta zortzi ale eraman beharko ditu lehiaketara. Epaimahaia bi herritarrek osatuko dute. Goizeko ekitaldi horiek musikarekin girotuta egongo direla nabarmendu dute antolatzaileek.

Korrika batzordearen postua

Herriko Plazan hainbat ekintza egongo direla aprobetxatuta, Korrikako materiala saltzen izango dira Gatzagako Korrika batzordeko kideak.

GORA ETA BEHERA



Artabilla baserriko atea, hautsita

Duela bi aste Artabilla baserrira sartzen saiatu zirela adierazi du bertako Ainara Zubillagak. "Familiako baserria da, eta gaur egun ez gara bertan bizi, baina kalteak eragin dizkigute. Ez dute ezer eraman, baina ez da lehenengo aldia zerbait apurtuta topatzen duguna".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



AINARA ZUBILLAGA



Martitzenean Olaranen egindako aurkezpena. MAIDER ARREGI

Geroz eta Antzuola parekideagoa jomugan

Antzuolako Udal Gobernuak iaz abiatu zuen herriko berdintasun diagnosia egiteko egitasmoa, Emagin elkartearekin elkarlanean. Martitzen arratsaldean, egindako ikerketa lanaren emaitza eta Antzuolak dituen erronkak aurkeztu zituen elkarteak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iaz hasi zen Antzuolako Udala herriko berdintasun diagnosia egiten, Emagin elkartearekin batera. Iazko ekainean, herritarrekin partekatu zuen Emaginek berdintasunaren ikuspegitik nola bizi diren esparru batean edo bestean. Era berean, aurrera begira zer dagoen egiteko

herrian alor honetan ere galde-tu zien antzuolarrei.

Orain, diagnosia amaituta, Emaginek jasotako datuak eta ondorioak aurkeztu dizkie antzuolarrei. Emagin elkarteak Jone Arrazolak nabarmendu du herri txikia izateak pertsona askorengana gerturatzeko aukera eman diela. "30 herritar

baino gehiagorekin egon gara diagnosia osatzeko. Emakume askok parte hartu du bakoitza bere errealitate eta arduetatik. Zein erronka ikusi dituzten ere azaldu digute. Herritarrez gain, baina, kultura zein kirol eragileekin eta eskolarekin ere batu gara; baita udal teknikari eta zinegotziekin ere".

Diagnosiaren oinarriak

Diagnosiak hainbat gai jasotzen ditu bere baitan. Lehenak Udal Gobernuak barruan dituen erronkak azpimarratzen ditu. "Berdintasunaren alorra sortu behar da, eta herritarrek aktibatu. Baliabide pertsonalak eta ekonomikoak indartu behar dira, zeren berdintasunaren plangintza abiatzeko oinarriak dira".

Ondorengo ildoak emakumeen ahalduzuearekin du lotura. "Antzuolako eragileek zein eskaintza bideratzen dieten emakumeei euren ahalduzte prozesua egin dezaten; edo gizonezkoiei euren maskulinitatea berrikusi dezaten. Azken 20 urteetan zer egin den eta zer dagoen egiteko ikusi dugu. Jabetza eskola sortzea abiapuntua izan daiteke, esaterako".

Hurrengo puntuak ekonomia-ri lotuak daudela dio Arrazolak: "Azpimarra egiten da zaintza lanen banaketan. Antzuolan menpekotasun egoeran zeintzuk dauden ikusi dugu; zenbat adineko eta adin txikiko dauden, zein baliabide eta egoera dituzten; eta Udaletik nahiz Aldunditik bideratzen diren zerbitzuek antzuolarrak zenbateraino asebetetzen dituzten aztertu dugu. Esaterako, ama izateko lanetan bakarrik sentitzen direla aitortu digu talde batek. Etxeko langileen egoera ere azpimarragarria da, eta Marokoko emakume talde batekin ere izan gara, kulturartekotasunaren ikuspegia

diagnosian jasota geratu dadin. Izan ere, atzerrikik datozen emakumeen beharrak ezberdinak izaten dira. Asko etxebizitzaren eta enpleguari lotutako arazoak izan ohi dira, eta hori ere jasota geratu da".

Hezkidetzat ardatz

LGTBIQ+ komunitateak Antzuolan bizi duen egora aztertzea ere beharrezko ikusi du Emagin elkarteak Jone Arrazolak. "Herri txikietan, maiz, ezkutuan geratzen den errealitatea izaten da. Askok eta askok, bereziki gaztaroan, eta arnasa hartu guran, alde egiten dute beren herritik. Baina ohartu gara Antzuola adin batetik gorako lesbiana eta gay familiendako habia eroso bilakatu dela. Herri Eskolak ere horretarako bide ematen du, hezkidetzat ardatz garrantzitsua baita euren dako. Sorpresetako bat izan da, zalan-tzarik gabe; gehiegi politizatzen ez den gaia izanda ere, familia horiendako leku eroso dela Antzuola".

Aipatutako ildo bakoitzean lauz-pabost erronka identifikatu ditu Emaginek. Orain, Udalari dagokio lehentasunak ezartzea.

**ADIN BATETIK GORAKO
GAY ETA LESBIANEK
EUREN HABIA
BILATZEN DUTE
ANTZUOLAN**

Bizipoza heldu da Antzuolara

Bizipozaren Eguna ospatu dute antzuolarrek. Zapatu goizean, trikitilari gaztetxoek lagunduta, kalejiran joan ziren San Joseko belardira gereziondoa landatzera. Aurrez, baina, zuhaitzaren ingurua apaintzeko harriak margotu zituzten eskolako patioan. Amaitutakoan, haurrek grabatutako kanta baten musikarekin lagunduta, dantza egin zuten.



IMANOL SORIANO

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

Debagoieneko 14 eta 17 urte arteko ikasleak prest eta gogotsu daude *Galdegazte* saioaren beste edizio bati hasiera emateko. Hala, bailarako ikastetxeekin eta Mankomunitatearekin sustatutako elkarlanaren emaitza ikusiko da eguaztenero, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan. Guztira, hamar ikastetxek parte hartuko dute eta horietako bakoitzeko sei ikaslek gidatuko dute saio bakoitza. Oraingoan ere, Jokin Bereziartua izango dute bidelagun haize berria ekarriko duten 60 gaztek.

Aurreko aldietan bezala, telebista saio baten grabaketaren atzean dagoena ikusi, ikasi eta gozatuko dute platoan bertan kamera aurrean jarriko diren ikasleek eta baita errealizazio-gelatik grabaketa jarraituko dutenek ere.

Gustuko gonbidatuak

Ikasleek aukeratu dute nor elkarriketatu nahi duten, eta eurek hartuko dute elkarriketaren pisurik handiena. "Kiri-lariak eta kultura arloko ospetsuak izan ohi dira gazteei gehien interesatzen zaizkien arloak, baina denetarik izan dugu aurreko zazpi edizioetan.

Aurten, adibidez, Paulo Azpiazu fitness entrenatzaile ber-gararra izango dugu lehenengo gonbidatu saioan. Jarraian etorriko dira Asier Urzelai



lazko saio bat grabatzen: Paul Casal musikari aretxabaletarra, Jokin Bereziartua aurkezlea eta Kurtzebarri eskolako ikasleak *Galdegazte*-ko platoan.

Badator 'Galdegazte 8': bailarako gazteak, kazetari izateko prest!

Martxoaren 2an estreinatuko dute 'Galdegazte' saioaren zortzigarren denboraldia. Eguaztenero gonbidatu bat elkarriketatu dute ikasleek, eta, hasteko, lehen saioan, Paulo Azpiazu fitness entrenatzailea izango da gonbidatu platoan

Binbi eskoriatzarra, Paula Amilburu bertsolari aramaior-rra, Larru Beltzak taldeko Naiara Urzelai eta beste asko", aurreratu du Jokin Bereziartua saioaren aurkezleak.

Berrikuntzak ere bai

Sasoi berriarekin aldaketak etor-tzen dira, eta *Galdegazte*-n ere izango dira: "Pandemiak eragin digu hamaika buruhauste presta-tze lanetan, baina saiakera egin

eta indarberrituta gatoz, gogotsu". Hala, aldaketen artean, ikasleek saioan bertan bestelako kazetari-tza lan batzuk ere egin behar izango dituztela adierazi du Bere-ziartuak: "Euren ikastetxeko ko-

munitatean zabaltzeko modukoa izango den lana ezarriko diegu aurten. Esperimentu bat izango da, ziur nago ederto irtengo dela!".

Esperientzia aberasgarria

Ikasleek eta saioa aurkezleak argi dute esperientzia emankorra, interesgarria eta aberasgarria dela: "Urtez urte frogatzen dugu ikasleek gozatu ederra hartzen dutela. Saioaren amaieran begie-tan izaten duten distira eta ahoan duten irribarrea ikustea besterik ez dago. Bestalde, pribilegiatu sentitzen naiz gonbidatu oso in-teresgarriak aurrez aurre ezagu-tzeko aukera izatearekin. Eta, zergatik ez: gazte sentiarazteko aitzakia ederra ere bada. Gora *Galdegazte*!".

Datorren eguaztenean, beraz, denboraldi berria abian.

**Zelan ikusi
Goiena
telebista**

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
943 25 05 05



Antena bidez

Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan. Kasu honetan, 25. kanalean topatuko duzu.



Euskalteleko kable bidez

Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoienean, hamaikagarren kanalean topatuko duzu.



Nahieran 'Goiena.eus' atarian

Goiena.eus atarian ikusi ahal izango dituzu telebistako ikus-entzunezko edukiak; zuzeneko zein norberak aukeratutako saioa nahieran.



'Goiena' aplikazioa

Goiena telebistako edukiak nahieran ikusteko aukera erraza eta erosoa klik bakarrean. Zure eskuko telefonoan edo tabletan deskargatu aplikazioa.

Ekitaldirik jendetsuenak telebistan zuzenean

Aratusteak ate joka ditugun honetan, eta iazko etenaren ondoren, Bergarako pilotalekua soinu eta kolorez beteko da gaur bertan. Asteburuan, Debagoieneko herrietara moztarok itzuliko dira. Hortxe ere egongo da Goiena telebista

Asteburuan hasi eta hurrengo hilabeteetan, Debagoieneko agendak betetzen hasiko dira. Lehenengo, Aratusteak; eta apirilaren, Korrika.

Aratuste kontzertua Bergaratik
Iazko etenaren ostean, Aratusteak egubakoitz gauean, Bergarako Musika Bandaren eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertu berezienetakoa hartuko du berriz ere Bergarako pilotalekua, 22:30ean. Zuzenean ikusi ahal izango da kontzertua *Goiena.eus* atarian. Hurrengo egunean, otsailaren 26an, Goiena telebistak eskainiko du, 16:00etan eta 22:00etan.

Aratuste jaiak Debagoienean
Aurten, Aratuste jaiak aurre egin dute Debagoieneko hainbat herritan, eta Goiena telebistak kamerak bertan izango dira. Aitor Agiriano ibiliko da herriz herri, kaleetako giroa jasotzen eta aurtengo moztarok



2020ko Bergarako Aratuste kontzertua.

rik originalaren bila. Astelehenen, *Hemen Debagoiena* saioan, errepaso zabala egingo diote Aratuste asteburuari. Ondoren, martitzenean, Aratusteei eskainitako saio berezia izango da, 21:00etan eta 23:00etan.

22. Korrika

Aurten ospatuko da 22. Korrika. Goiena telebistak Korrikaren hasiera eta amaiera eskainiko ditu zuzenean; hasiera Amurriotik martxoaren 31n eta amaiera Donostiatik apirilaren 10ean. Goiena telebistak beste hainbat telebistarekin elkarlanean jardungo du saio hau eskaintzeko.

Debagoienetik apirilaren lehen pasako da. Egun horretan, telebista kalera aterako da eta Arrasateko kaleetatik eskainiko du zuzeneko saioa, 11:30etatik aurrera. Goiatz Aranek eta Txomin Madinak aurkeztutako saioa izango da, baina Debagoieneko hainbat herritan izango dira berriemaileak, zuzenean Korrikaren gaineak kontatzeko. Leintz Gatzaga izango du Debagoieneko azken herria Korrikak, eta Goiena telebistan ordura arte jarraitu ahal izango du zuzenean. Saio hau telebistatik zein *Goiena.eus* ataritik jarraitu ahal izango duzue.

Egungo erronkak, bailarako ahots ezagunek kontatuta

Goiena telebistak eta Debagoiena 2030 ekimenak 'Zubiak' saioa egiten dute elkarlanean

Gizarteak dituen erronka konplexuei erantzuteko, komunitatea sendotzea da gakoetako bat. Komunitatea entzuteko helburuarekin ekoizten da *Zubiak*.

Bailarako kirolariek, bertso-lariek, musikariek, artistek eta, oro har, pertsona ezagunek egungo erronken gainean jarduten dute *Zubiak* saioan: klima larrialdia, inklusioa, lanaren etorkizuna, digitalizazioa... Halaber, saioaren baitako *Zubi-be-giak* atalean, bailarako ikasleek egiten dituzte gai horien inguruko hausnarketak. Funtsean,

norberaren alea jartzearen eta elkarren arteko zubiak eraikitzearen garrantzia azpimarratzea du helburu telebistako elkarriketa-saioak.

Hilean behin

Hileko azken egubakoitzean ematen da *Zubiak* saioa. Beraz, gaur bertan, 21:30ean, ikusi ahal izango duzue denboraldiko laugarrena. Protagonistak izango dira Felipe Uriarte mendizale ezaguna eta Ainize Lizarralde kirolaria eta *El conquistador* saioiko parte hartzailea.



Zubiak saioiko grabazioaren momentu bat.

Zuzeneko emanaldiek eta entretenimenduak leku zabala izango dute Goiena telebistan

Erreferente izaten jarraituko du *Hemen Debagoiena* eguneroko magazinak. Larraitz Zeberio aurkeztuta, debagoiendarak protagonista dituen saioa.



Hemen Debagoiena

- Egunero
- 18:00, 20:00 eta 22:00

Lantalde zabala du Larraitz Zeberio, *Hemen Debagoiena* saioko aurkezleak, eguneroko magazina ekoizteko. Astelehenetan, Txomin Madinaren txanda da *Izenen izana* tarteararekin; martitzenetan, musika kontuak Aitziber Aranburuzabalarekin; egunenetan, munduan bizi diren debagoiendarrekin egiten du zita Eneko Azurmendik; eta egubakoitzetan, kirolari baten istorioa dakar Mireia Bikuñak.



Albisteak

- Egunero
- 14:00, 15:00, 16:00 eta 17:00

Eguneko albiste nagusiak eskaintzen dituen informatiboa. Arratsaldeko ordu bietan da *Albisteak* saioaren lehen emisio ordua, eta ondoren, orduro ikus daiteke, *Hemen Debagoiena* magazina hasi arte. Saio hau astelehenetik eta egubakoitzera ikus daiteke eta asteburuetan, berriz, asteko albiste nagusien errepasoa eskaintzen du Goiena telebistak, *Asteko errepasoa* saioan.



Harmailatik

- Astelehena
- 21:30 eta 23:30

Astelehenetan, 21:30ean hasita, kirolaren txanda izaten da Goiena telebistan. Xabier Urzelai kirol kazetariaren eskutik, bereziki, asteburuko kirol hitzorduen errepaso zabala egiten da *Harmailatik* saioan. Kirolari debagoiendarrei eginiko elkarriketarekin osatzen da saioa. Tarteka, kirol ekitaldi berezien gaineak saio monografikoak ere eskaintzen dira; Arrasate-Udalatz, adibidez.



Harira

- Martitzena
- 21:30 eta 23:30

Eneko Azkarate Goienako edukien zuzendariak zuzentzen duen elkarriketa saioa da. Iaz udazkenean hasi genituen Debagoieneko udalei eskainitako saioak; orain, Aramaiori eskainitako saioarekin emango diogu amaiera. Martxoaren 8an, Lierni Altuna Aramaioko alkatea izango du aurrez aurre Azkaratek. Ondoren, Euskal Herriko beste herri ordezkari batzuen txanda izango da.

'Hemen Debagoiena', eguneroko magazina

Goiena telebistaren eguneroko saio erreferentea da. Larraitx Zeberio aurkeztuta. Lantalde zabala du alboan, bailarako istorioak modu zabalean lantzeko. Ordubeteko saioan tokia izaten jarraituko dute elkarrizketek, berriemaileek eta albistee

Astelehenetik egubakoitzera, egun bakoitzak tarte bereizgarri bat izango du. Tarte hauek iazko udazkenean hasi zuten ibilbidea eta trinkotzen ari direla esan dezakegu.

Eguneroko tarte finkoak

Astelehenetan, Txomin Madinak Debagoieneko abizenen eta toki izenen jatorria eta historia ezagutzeko aukera eskainiko digu, *Izenen izana* tartean. Martitzenero, berriz, musikaren txanda da, Aitziber Aranburuzabalaren eskutik. *Akordeak* tartean, Debagoieneko musikariak gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen digu, eta, gainera, zuzenean kantatzen dute. Eneko Azurmendik hainbat debagoiendar ezagutzen ditu munduan zehar bizi direnak; bizitoki duten lekutik ezagutuko ditugu, eguztenetan. Mirei Bikuñak kirolari bat gertutik ezagutzeko aukera emango digu, *Luzapena* tartean, egubakoitzero.




Larraitx Zeberio, *Hemen Debagoiena* saioa aurkeztuz.

Astelehenero 'Harmailatik'

Kirola da protagonista Goiena telebistan, astelehenero, Xabier Urzelaik aurkeztutako *Harmailatik* saioan. Asteburuko kirol hitzorduen errepaso zabala egiten da saioan, baina baita kirolari

lariei elkarrizketak ere. Urzelaik adierazi du "maila handia" dagoela Debagoienean, "taldekako zein bakarkako kirolean; saiatzen gara guztiei jarraipena egiten, denera iristea erraza ez izan arren".



Dupla bikotea Arrasateko gaztetxeko oholtzan.


Musikari eskainitako saio bat baino gehiago aukeran

'Akordeak' saioa estreinatuko dugu datorren astean; Debagoieneko musikariak izango ditu protagonista

Eguneroko *Hemen Debagoiena* magazinean hasi zen Aitziber Aranburuzabala, Debagoieneko musikariei eskainitako tartearekin. Orain, saio bilakatuta dator *Akordeak*. Musika saio honetan, Debagoieneko bi musikari gertutik ezagutuko ditugu eta beraien musikaren lagin txiki bat ikusi eta entzuteko aukera izango dugu, abesti baten zuzenekoarekin. Saioaren amaieran, estreinatu berri den bideo-klipa ikusi ahal izango da. Martxoaren 3an hasi eta eguenero eskainiko da saioa, 23:00etan hasita, Goiena telebistan.

Kooltur-eko kontzertuak ere bai

Kooltur Ekintzak elkarlearen eta Goiena telebistaren elkarlaketatik ekoiztutako saioa da. Kooltur Ostegunetan eskaintzen dituzten kontzertuak ikusteko beste aukera bat daukagu Goiena telebistan, egubakoitzero. Arrasateko gaztetxetik hainbat eta hainbat talde pasa dira jada, baina eskaintzak jarraituko du maiatzera arte. Gaur bertan, musika urbanoaz gozatzeko aukera paregabea izango duzue, Aguraingo Dupla taldearen eskutik, 23:00etan hasita, Goiena telebistan.



Galdegazte

- Eguztena
- 21:30 eta 23:30

Debagoieneko gazteekin elkarlanean ekoiztutako saioaren zortzigarren denboraldia izango da oraingoa. Jokin Bereziartua kazetariak zuzendutako saioa da, baina hainbat gazteren laguntza izango du debagoiendar ezagun bat elkarrizketatzeko. Gonbidatuak sorpresa bat baino gehiago jasoko ditu, gazteek ekoiztutako bideo-mezuekin. Hamar saio eskainiko dira denboraldi honetan.



Bizi Gipuzkoa

- Eguena
- 21:30 eta 23:30


Gipuzkoako lurraldeak aukera zabala eskaintzen digu aisialdirako. Gertuan aukera zabala dugu egun zoragarria pasatu eta gure inguruak ezagutzeko. Hau inork baino hobeto daki Julen Landaluze aretxabaletarrak, eta horixe erakustera dator saio honekin. Zaldian ibili, mendi ibilaldiak, padel surfa... Gainera, etxetik gertu. Plan bila ari bazara, hementxe duzu aukera bikaina.



Elkarrizkettap

- Eguztena
- 21:00 eta 23:00


Euskal Herriko pertsona ezagunak gertutik ezagutzeko aukera ematen digun saioa. Hainbat diziplinatan jarduten duten gonbidatuak –musikariak, kirolariak, aktoreak...– izango dituzte aurrez aurre izen handiko hainbat kazetarik: Joni Ubedak, Ane Zabalak, Juan Kruz Lakastak... *Ttap* aldizkari multimediarekin elkarlanean ekoiztutako saioa da; beraz, telebistaz ez ezik, *Ttap* aplikazioan ere ikusgai.



Zubiak

- Egubakoitza (hileko azkena)
- 21:30

Bailarako kirolariak, bertsolariak, musikariak, artistak eta, oro har, pertsona ezagunak egungo erronken gainean jarduten dute *Zubiak* saioan: klima larrialdia, inklusioa, lanaren etorkizuna, digitalizazioa... Halaber, saioaren baitako *Zubi-be-giak* atalean, bailarako ikasleek egiten dituzte gai horien inguruko hausnarketak. Debagoiena 2030 ekimenarekin elkarlanean ekoiztutako saioa.



Akordeak

- Eguena
- 21:00 eta 23:00

Debagoieneko musikariak protagonista dituen saioa da. Euren sorkuntza lana hurbiletik ezagutzeko aukera emango digu saioak, elkarrizketa formatuan, eta, gainera, zuzeneko bat ere grabatuko du musikariak Goiena telebistako kamerak aurrean dituela. Saio hau Aitziber Aranburuzabala kazetariak zuzentzen du eta martxoaren 3an lehen alea ikusteko aukera izango dugu.

Martxoaren 8ko adierazpena onartu dute

Emakumeen Nazioarteko Eguna ate joka dagoen honetan, Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala izan dute eztabaidagai Antzuolako otsaileko ohiko osoko bilkuran. Udal Gobernuak gertu dauka egitarau zabala, eta bat egiteko dei egin du

Maider Arregi ANTZUOLA

Martitzeneko otsaileko ohiko osoko bilkuran, Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala izan da berbagai nagusia. Izan ere, Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan, Eudelek jasotako adierazpenari bi ekarpen egin dizkio EH Bilduren Antzuolako Udal Gobernuak, eta horrek ezustean harrapatu dituela oposizioako kideak azaldu du Miren Elgarresta jeltzaleak: "Eudelen markoaren baitan onartutako adierazpena onartu dugu gaur. Egia esan, ez genuen espero marko horren baitan eta Eudelen zigilupean, beste bi puntu gehitzea. EAJ eta alderdi sozialista ezustean harrapatu gaitu, eta eskatu dugu bi puntu horiek aparte bozkatzea".

Hala, bi puntuak aparte bozkatzeko zuzenketa onartu, eta Eudelen adierazpena onartu dute aho batez. Ondoren, banan-banan Udal Gobernuaren bi puntuak bozkatu dituzte. Batetik, aho batez onartu dute emakumeen, nerabeen eta neskatuen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak tokiko eragile feministekin batera bultzatzea jasotzen duen puntua.

Baina, bestetik, ordea, ez dute onartu jeltzaleek etxeko laguntza-zerbitzuaren eta eguneko zentroaren eredu eta funtzionamenduan identifikatutako beharrei erantzuteko eta lan-baldintzak duintzeko helburua duen puntua. EH Bilduren botoarekin onartu da eta alderdi sozialista abstenitu egin da. EAJk iritzi dio gai hori sakonago aztertu beharra dagoela: "Gai garrantzitsua da zaintzarena; aldeaz aurretik landu beharrekoa da tutekin, eta bi esparru horien egoera eta ezagutza aldeaz aurretik partekatu beharrekoa, ondoren, alderdi bakoitzak bere posizioa defenda dezan. Duintasuna subjektiboa da, eta horre-



Martxoaren 8ko manifestazioa iaz. GOIENA

lako espaziotik bozkatzea saihestu behar dugu. Etxez etxeko zerbitzua Udal Gobernuari dagokio erregulatzea, eta, dauzkagun datuen arabera, duintasun hori bermatuta dago Antzuolan".

EH Bilduko Berdintasun zinegotzi Alazne Jauregik nabarmendu du langileen lan-baldintzak hobetu egin daitezkeela, eta Eudelen adierazpena osatzen dutela bi puntu horiek. Gaineratu du Udalak sustatu dezakeela langileen baldintzak hobekuntza izateko lanean: "Eudelen adierazpenean faltan sumatzen genituen bi puntu horiek. Uste dugu langileen baldintzak hobetu daitezkeela eta Udalak zeregina duela arlo horretan. Langile horien lekuan jarri eta enpatia erakustea nahi izan dugu, alegia. Euren lan-baldintzak ahalik eta onenak izatea da helburua, eta Udaletik hori bultzatu nahi dugu".

"ZAINZAREN ALORREKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK HOBETU DAITEZKE"

ALAZNE JAUREGI, EH BILDU

M8ko egitaraua

Era berean, Martxoaren 8ko ekitaldiak ia lotuta dituztela aurreratu du Alazne Jauregi udal zinegotziak. Hala, martxoaren 4an, egubakoitza, *80 Amandre* ipuin kontaketa saioa eskainiko du Dorleta Kortazar ipuin kontalaria.

Emakumeen Nazioarteko Egunean, berriz, manifestazioa abiatuko dute herriko kaleetan barrera, arratsaldeko zazpitan hasita, eta martxoaren 12rako, dantza tailerra antolatuko dute Blanca Carrasco antzuolarrak gidatuta, Torresoroan, goizean. Interesa dutenek aurrez izena eman beharko dute, talde mugatua izango baitu ikastaroak. Eta martxoaren 13an, film emanaldia izango da Torresoroan -zehazteke-.

Antzuolar orori Martxoak 8ko ekintzatan parte hartzeko deia egin die Antzuolako Udalak.

"ZAINZAREN GAIA GARRANTZITSUA DA; AURREZ LANDU BEHARREKOA"

MIREN ELGARRESTA, EAJ

Mozorroek eta umore onak hartuko dituzte herriko kaleak

Goizean dantzek emango diete hasiera Aratusteei, eta 21:30ean, Puro Relajo taldeak kontzertua eskainiko du

Maider Arregi ANTZUOLA

Oinarinek herritarrak dantzan egitera animatu ditu, eta bihar, hartzarekin, tximinoarekin eta hezitzailearekin batera, herriko kaleak girotuko dituzte. Dantzariak 10:30ean plazan elkartuko dira eta kalejira egingo dute; 12:00eta, berriz, helduen saioa izango da plazan. Nahi dutenek, gainera, pilotalekuan bazkaltzeko mahaiak eta aulkiak izango dituzte. 21:30ean, Puro Relajoren rantxera doinuek borobilduko dute Aratuste-zapatua. Domekan, aldiz, 18:00etan, umeendako *Bizi*

bizi zirkua ikuskizuna eskainiko dute Kiki, Koko eta Moko pailazoez plazan; eurria bada, patioan.

Herriko erretiratuek ere Aratuste-martitzena ospatuko dute martxoaren 1ean, 18:30ean. Mozorro lehiaketa ere egingo dutela aurreratu dute.

Gaur, eskolako haurrentako txanda izango da. Ospakizun xumea eta barrura begirakoa egingo dute; bakoitzak bere buruila errespetatu beharko du-eta. Txokolatea banatuko diete neska-mutikoei.

Mondragon II.ak finala jokatu du domekan Azkoitian

Leire Galeano *Mondragon II.a*-k domekan, hilaren 27an, jokatu du Eusko Label Binakako txapelketako finala. Rodriguez izango du lagun, eta txapelketa paregabea eginda iritsi dira finalera. Santos eta Urriaza bikotea izango dute aurkari. Azkoitiko Gurea pilotalekuan eguerdiko hamabietan jokatu dute promozio mailako finala.

Martxoaren 20an egingo dute Basabere baserrira irteera

Pandemiak eraginda atzeratu beharra izan zuen gazte txokoak Basabere baserri eskolara antolatutako irteera. Orain, egokira hobetuta, data berria jarri dute: martxoaren 20a. Aurrez izena emanda zutenek ez dute ezer egin behar. Joan nahi dutenek, aldiz, martxoaren 4ra arte dute izena emateko aukera udal liburutegian.

GORA ETA BEHERA



Bidegorriko argiteria apurtu dute

Antzuola eta Bergara arteko bidegorrian hainbat faroletan kalteak eragin dituztela salatu du antzuolar batek. Aristi baserritik Galartzako bidegurutzean dauden farolak dira hondatu dituztenak, zehazki. Horrelako jarrerak ulertezinak egiten zaizkiola adierazi dio GOIENARI.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



30 hilabeteko bidaiari hasiera

2024ko ekainera arte, 30 hilabetez egongo da eraberritze eta konpontzen lanetan San Pedro elizako Stoltz Freres organoa Lyongo Michel Jurinen tailerrean. Asteon hasi dituzte desmuntatze lanak, eta horiek martxoaren 4ra arte irautea aurreikusi dute

Jone Olabarria BERGARA

Ondare ikuspegitik "balio izugarritzko" organoa da San Pedro elizakoa. Eugene eta Edouard Stoltz organo-egileek parrokiaren bertan eraiki zuten organoa eta 1889ko martxoaren 18an inauguratu zuten. Ordutik ez du ia moldaketarik izan, eta, hori dela-eta, XIX. mendetik mantentzen den organorik "birjinetakoa" dela azaldu du San Pedro elizako organo-jole titular Aitor Oleak: "Eugene eta Edouard Stoltz anaiek egindako organorik handiena da, baita jatorritzko egotatik gertuen dagoena".

133 urteren ostean, baina, iritsi zaio "ebakuntza-gelatik" pasatzeko unea. Ez da, gainera, edozein *ospitale* izango: XIX. mendeko organo erromantikotik aditu Michel Jurinen tailerren ardura izango da eraberritzea. Martitzenean hasi ziren

desmuntatzen, eta martxoaren 4rako bukatzea espero dute. Garraiatu ostean, bi urte baino gehiago emango ditu Lyonen organoaren zati handi batek, 2024ko ekainean etxera itzuli arte.

Eraberritzea, era tradizionalan

Organoari egingo zaizkion moldaketei dagokienez, "zuzenketak" izango direla azaldu du Oleak: "Ez zaio ezer kenduko edo gehituko. Helburua organoa ahalik eta jatorritzko egoeratik gertuen lagatzea da, eraberritu ostean ere bai. Era artisauan egingo dira lanak, XIX. mendeko oinarria mantenduta".

Birgaitzea posible egiteko, 2009a ezker ari dira lanean, auzolanean. 2014an sortu zuten, baina, Bergarako Stoltz Freres Organoaren Lagunak elkarteak: "Ordutik gaur egun arte, elkartek

larrialdizko mantentze eta konpontze lanak egin izan ditu. Aurretik ere, San Pedro parrokiatik lan handia egin da organo hau orain arte iristeko, eta baita pedagogikoa ere".

2.343 tutu garbitzeko

Gogorarazi dute 2.343 tutu dituela organoak, eta horiek banan-banan garbituko direla; mekanika guztia askatuko da, zuzendu eta ostean birgaitzeko. Hain zuzen, hori da lanek 30 hilabetez irautearen arrazoi nagusia, "era tradizionalan egiteak denbora gehiago behar duelako". Organoa bueltatzean ere, San Pedro elizan bertan, lanean jarraituko dute: "Organo honek 36 tutu joko ditu eta horietatik hamalau hemen geratuko dira, garbiketa lanak baino ez dituzte behar eta. Gainontzeko hamabiak Lyonera joango

dira, hauspoarekin, kontsolarekin eta goiko kaxa espresiboarekin batera. Hemen geratuko direnak garbitu egingo dira eta organoaren kaxari tratamendua egingo zaio".

Gipuzkoako "altxorra"

Lehenik eta behin, tutu guztiak atera behar dituztela azaldu dute Michel Jurinen tailerreko teknikariak diren Adrien Perrek eta Nicolas Clementek, eta gero, mekanika guztiak desmuntatu dituztela. Lan horretan hasi ziren martitzenean, eta, gutxienez, martxoaren 4ra arte horretan arituko dira. XIX. mendeko organo frantsesetan adituak dira, eta eraberritze lanetarako "sentsibilitate berezia" dutela azaldu dute: "Euskal Herrian organo ugari eraberritu ditugu, ondare handia duzue hemen eta garrantzitsua da zaintzea. Bergarako organoa maisulana da, guretzat Euskal Herrian dagoen berezietakoa, eta Gipuzkoako altxorra".

Aurretik ere, askotan izan dira Bergaran. Duela hamar urtetik, urtero etortzen dira Michel Jurinen tailerrekoak mantentze lanak egitera; urtean behin, gutxienez: "Ondo ezagutzen dugun

organoa da, eta hori garrantzitsua da eraberritzerakoan; aurretik duen soinu ezagutzea, esaterako".

XIX. mendeko teknikekin

Gaur egun mantentzen den Stoltz motako organorik "autentikoa" dela diote: "Gainerakoak eraberritu egin dituzte urteekin, eta, ondorioz, soinu originala galdu egin dute apur bat. Hori ez gertatzeko eta ahalik eta moldaketa gutxien izateko, gure lan egiteko teknikak XIX. mendera moldatu behar ditugu. Orduan egiten zen moduan eraberritzen saiatu behar dugu".

Bergararrak, "harro"

Eugene eta Edouard anaien abizena den *stoltz* germanierazko hitzak *harro* esan nahi du, eta, hain zuzen, hori da Olearen ustez bergararrek organoarekiko duten sentimendua: "Harrotasuna. Bergara arduratuta dago, eta egon da, instrumentuarekin. Organoaren egoeratik, ez da horren aktibo egon herrian, nahiz eta elizkizunetan etengabe jarraitu den erabiltzen. Eraberritzearekin, berriz ere aktibatu eta herriari itzuli nahi zaio ondare izugarri hau".

"STOLTZ ANAIEN ORGANO HANDIENA DA, JATORRIZKOTIK GERTUEN DAGOENA"

AITOR OLEA, ORGANO-JOLEA

"BERGARAKO ORGANO MAISULANA DA, GIPUZKOAKOEN ARTEAN ALT XORRA"

ADRIEN PERRE, MICHEL JURIN TAILERRA



Michel Jurin tailerreko teknikariak, Aitor Olea organo-jolea, parrokiako kideak eta Jon Molina apaiza, martitzenean. J.O.



Ikusmin handia piztu zuten erraldoiek San Pedro elizan zapatuan. GOIENA

Desmuntatu aurretik, omenaldia

Begararrek agur ekitaldi bi antolatu zizkioten joan den zapatuan organoari. Ez da ohikoena erraldoiak elizan ikustea; horregatik, herriar asko batu ziren eguerdian. Arratsaldean, koruak, Musika Eskolak eta txistulariek eskainitako kontzertua izan zen.

2020ko Aratusteetako irudi barregarri bat: artzaina Usondoko parkean, *artalde*a kontrolatzen. AMAIA BOLINAGA

Pandemia amaitzear dela irudikatu nahi duten jaiak

COVID-19aren aurreko azken festak izan ziren Aratusteak atzo bueltatu ziren, eta datozen egunotarako askotariko ekintzak antolatu dituzte; gaur izango da, adibidez, bandaren eta orkestra sinfonikoaren kontzertua (22:30), "ohikoa baino eskala txikiagoan" bada ere

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiari aurre egiteko neurriak ia desagertu direla heldu dira 2022ko Aratusteak, eta ziur ondo pasatzeko gogoia izango dela nagusi datozen egunotan. Hasiera ederra eman zieten atzo Aratusteei; izan ere, kaleko giroa alaitzen aritu ziren Bergarako Musika eta Dantza Eskolako dantzariak eta trikitila-

riak, Euskal Herrian ohikoak diren Aratusteetako dantzekin. Besteak beste, Lantzeko, Tolo-sako eta Goizuetako Inauterietako eta Altsasuko momotxorroen dantzak egin zituzten. Ondoren, Bergaran tradizional-ki egiten zen moduan, hartza ere atera zuten, domadore eta guzti, sorgin dantzaren bueltan; San Martin plazan hasita, Ba-

rrenkalean, Fraiskozurin eta Iralan ibili ziren, besteak beste.

Kontzertua, "eskala txikiagoan"

Bergarako musika bandak eta orkestra sinfonikoak eskainiko duten Aratusteetako kontzertuaren itzulera da normaltasuna gero eta gertuago dagoela erakusten duen adierazleetako bat; gaur izango da, otsailak 25,

udal pilotalekuan (22:30); saldu barik geratu diren sarrerak 21:30ean jarriko dituzte salgai gaur, zortzi eurotan, frontoiko leihatilan. *Eta aurten zer?* izenburua jarri diote emanaldi bereziari. "COVID-19ak eragindako ziurgabetasunagatik eta ezjakintasunagatik jarri diogu izenburu hori, ia azken unera arte ez dugu eta jakin kontzerturik egingo genuen, nolakoa izango zen...", adierazi du bandako zuzendari Enrike Txurrukak. Emanaldiak "betiko espiritua" izango du, baina pandemiak izango du eraginik: "Egoerak behartuta, neurri txikiagoan egin beharko dugu. Abeslariak, dantzariak, antzezleak eta, nola ez, musika egongo dira, baina eskala txikiagoan. Adibidez, bandak eta orkestrak ezingo dugu elkarrekin jo segurtasun distantziengatik; horregatik, bi zati egongo dira, lehena bandarekin eta bigarren orkestrarekin", zehaztu du Txurrukak.

Goiena telebistan osorik

Bandarentzat urteko zita garrantzitsuenetakoa da Aratusteetako kontzertua eta zuzendariak dio oraindik zailtasunekin ari direla: "Badirudi gauzak normalizatzen ari direla, baina gure kasuan, oraindik zailtasunekin gabilta, barrualdean entseatzeari zaila delako oraindik distantzien kontuengatik. Garrantzitsua da ez garelako gelditu eta poliki-poliki onera goazela; ea ez dugun atzera egiten...". Esker on hitzak ere baditu zuzendariak: "Eskerrak eman behar dizkiegu zailtasun guztien gainetik ekimen herrikoi hau aurrera egin dezan lagundu duten guztiei".

Kontzertua bertatik bertara ikusterik ez dutenek emanaldia zuzenean ikusi ahaliko dute,

streaming-etik, Goiena.eus-en (22:30). Asteburuan Goiena telebistan ere ikusi ahaliko da: zapatuan, 16:00etan eta 22:00etan; eta domekan, 12:00etan.

Pailazoetarako sarrerarik ez

Ikusmin handia piztu du Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Kui-Kui* ikuskizunak; bihar izango da, otsailak 26, udal pilotalekuan (18:00). Sarrerak agortuta daude.

Erraldoiak ere bueltan

Aratusteetako beste klasiko bat izan ohi da Bergarako Erraldoi Taldearen kalejira. Domekan irtengo dira, hilak 27, 18:30an, eta ordu eta erdi inguruko kalejira egingo dute. Aratusteetako ohiko kalejira izango da; hau da, San Martin plazan hasi eta bukatuko dute. Erraldoi guztiak aterako dituzte, eta, adierazi dutenez, Aratusteetako ohiko emanaldia eskainiko badute ere, bereziki gogotsu daude gaztetxo batzuk lehen aldiz irtengo direlako pandemia hasi zenetik.

Aratuste-martitzena ere bai

Aratuste-martitzenean ere egongo da zertaz gozatu. Bergarako Musika Eskolako gazte bandak ohiko kalejira egingo du (16:30), eta, ordu eta erdi geroago, 18:00etan, disko festa egongo da San Martin plazan (18:00). Bestalde, auzoetan ere ospatuko dituzte Aratusteak; Osintxuko ludotekan, esaterako, moztorro desfilea egingo dute martitzen arratsaldean.

'GOIENA.EUS' ATARIAN IKUSI AHALKO DA ARATUSTEETAKO KONTZERTUA GAUR, ZUZENEAN (22:30)

Torradak eta pellak egiten ikasi dute

Aratusteetako egitarauaren barruko lehen ekintza izan zen martitzenean Gure Ametsa elkartearen antolatu zuten torrada eta pellak egiten ikasteko tailerra. Aratuste garaian oso ohikoak diren jakiak nola egin ikasteko hamabost bat lagun elkartu ziren Gure Ametsan, Gorka Lobato sukaldariaren argibideak bertatik bertara jarraitzeko.



Gorka Lobato, Gure Ametsa elkartearen, martitzenean. PATXI URIBESALGO

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurritara
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

I21
KALITEA
Enpresa Registrada 1100/025

Eskola herrira hurbiltzeko aukera berriak sortzen

Bergarako Musika Eskolak Aukera Berriak Sortuz ekimena aurkeztu du asteon, askotariko ikastaroen bidez eskola herritarrei gerturatzea helburu duena; martxoaren 4an hasi eta maiatzaren 28ra arte iraungo dute saioek, eta izena emateko aukera dago dagoeneko

Jokin Bereziartua BERGARA

Iazko sortu zituen Bergarako Musika Eskolak Aukera Berriak Sortuz ikastaroak, eskolatik herriri ekarpen bat egiteko eta eskola bera herriri gerturatze-ko. "40 urte daroatzagu bergararrei musika arloko hezkuntza eskaintzen eta herriko bizitza kulturean modu aktiboan parte hartzen. Hala ere, eskola eten- gabe mugitzen ari den motorra izan behar da... Esperientziak eroan gaitu bergararentzat interesgarriak izan daitezkeen proposamenak probatzera eta bide horretan jarraituko dugu; are gehiago, herritarrei proposamenak egiteko aukera zabaltzea gustatuko litzaziguke hurrengo urteetan", dio eskolako zuzendar-ri Marije Ugaldek.

Gazteenetatik erretiratuetera

Ikastaroen artean dago *Musika familian*, 1 eta 4 urte arteko umeei begira: "Bigarrenez antolatu dugu. Maite Bikuña musikoterapeutak egiten duen proposamena oso interesgarria da familian musikaz gozatu ahal izateko. *Gordon* metodoa erabiltzen du; abestian oinarritzen da, eta dantza eta perkusio txikia erabiliko da". Martxoaren 26an, apirilaren 30ean eta maiatzaren 28an izango dira saioak, musika eskolan bertan, eta 40 minutu iraungo dute. Talde bi egingo dituzte; lehen taldea 11:00etatik 11:40era elkartuko da eta bigarren taldea, berriz, 12:00etatik 12:40era. Talde bakoitzean gehienez bost ume eta gutxienez hiru egongo dira eta ume bakoitzak guraso batek lagunduta agertuko beharko du; arropa eroso eta galtzerdiak errotea eskatu dute; musika eskolako bazkideak edo ikasleak direnek 40 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, 46 euro. Bigarren ikastaroa San Joxepe-ekin elkarlanean antolatu dute, *Musikarekin gozatzen* deitu du-



Marije Ugalde, Eneko Galdos, Mireia Ibabe, Arantazu Kortabarria eta Peio Irigoien. T.M.

"ESKOLATIK URRUN" DAUDENEI BEGIRA ANTOLATU DITUZTE BOST IKASTAROAK, BIGARREN URTEZ

tena, eta erretiratuaren elkarrearen egoitzan egingo dute: "*Dalcroze* metodoa erabilita eta perkusio, musika eta mugimendu instrumentu txikiekin, musikaz gozatzeko da helburua". Hau ere Bikuña emango du eta bi saio egingo dira, martxoaren 4an eta 11n, 11:00etatik 12:00etara.

Operaren atzeko aldeaz

Hirugarren ikastaroak badu Apirilean Musika ekimenarekin loturarik, Ugaldek argitu duenez: "Aurtengo opera Pucciniren *Madama Butterfly* da, 1940ko otsailaren 17an estreinatu zena. Aldez aurretik, saio pare bat antolatuko ditugu; operaren tramaz gain, autorearen gaineko hainbat pasadizo kontatuko dira; horrela, askoz gehiago gozatu dugu apirilaren 2ko Seminarixoko emanaldiaz". Martxoaren 17an eta 24an kontatuko ditu pasadi-

zo horiek guztiak Ugaldek berak, erretiratuaren etxean, 17:30etik 18:30era. Gutxienez, sei lagun beharko dira taldea osatzeko.

14 urtetik gorakoei begira

14 urtetik gorakoei zuzenduta beste bi tailer ere antolatu dituzte. Lehena, oinarritzko pandero ikastaroa: "Panderoa ez da oso zorrotza musikaren ezagutzari dagokionez, eta gazteek musika giroaz gozatzeko ahalbidetuko du". Mireia Ibabe emango du, martxoaren 12an eta 19an, musika eskolan -11:30etik 13:00etara-. Eskolako bazkideek 14 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, ordea, 16 euro.

Beste proposamena da plaze- tango dantzena, Natxo Montero dantzari ospetsuak gidatuko duena; Peio Irigoien eskolako egungo txistu-irakasleak jarriko du zuzeneko musika. Martxoaren 11n, 19an, 26an eta apirilaren 1ean elkartuko dira, musika eskolan, 10:30etik 12:30era. Bazkideek 45 euro ordaindu beharko dute eta besteek, berriz, 50 euro. Ikastaro hauetan guztietan izena emateko bi modu daude: izazkaritza@bme.e.telefonica.net edo 943 76 57 80.



KORRIKA

Korrikaren etorrera antolatzen

Asteon bigarrenez elkartu da Korrika batzordea, udaletxean. Bilera ireki horretako erabakien artean dago, besteak beste, Korrika Txikia egingo dutela. Hurrengo bilera martxoaren 9an izango da, 18:30ean, zehazteko dagoen leku batean. Korrika apirilaren 11n helduko da Bergarara: 11:33an Osintxutik sartuko da eta 12:38an Elorregitik irten.

Koldo Eleizalde: apirilaren 28ra arte eman daiteke izena

Ireki dute izen-ematea 37. Koldo Eleizalde lehiaketarako. Lau genero edo genero-multzotako lanak aurkez daitezke: ipuin idatzia eta poesia; komikia; bertsoa; eta kontakizuna edota interpretazioa. Azken multzo horren barruan daude honako hauek: antzerkia, podcasta, ipuin-kontaketa eta txiste edo umorezko pasadizoen kontaketa. Bergaran

jaio, bertan bizi edota Bergaran ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte. Grabazioak webgune bitartez aurkeztu behar dira; horretarako, www.bergara.eus-eko galdetegia bete behar da eta bertan erantsi artxiboak. Testuzko lanak fisikoki ere aurkez daitezke, Bergararren Arretarako Zerbitzuan (B@Z). Sariak banatuko dituzte ekainaren 11n, Seminarixoan (12:00). Argibide gehiagorako, hau da webgunea: <https://euskara.bergara.eus/eu/koldo-eleizalde-lehiaketa>.

Maddi Barrocal Ados pilota txapelketako finalean egongo da

Eusko Labelek babestutako binakako Ados pilota txapelketako finalen barruan, Maddi Barrocal bergarra izango da protagonistetako bat domekan Azkoitian, promes mailako txapela lortzeko lehian izango da eta; finalak 12:00etan hasiko dira. Horrez gain, Barrocalek berak Miren Gisasolarekin batera jokatu du gaur, egubakoitza, Euskal Ligako finalerdia, Oñatin, bertako bikote baten aurka (18:45).

Bestalde, Bergarako egitarauari dagokionez, asteburuan partidu bakarra jokatu du udal pilotalekuan; Gipuzkoako errendimendu mailako binakako partiduak jokatu dira domekan, 11:30ean hasita.

OHARRAK

Odol-ateratzeak

Eguaztenean egin zuten azken ateratzea. Hurrengoak martxoaren 9an eta 23an izango dira, 16:30etik 20:30era, Oxirondon. Odola eman nahi duen herritarrek telefono zenbaki honetara dei dezake: 610 39 32 97.

'Gelditzeke' zerbitzua

Kirolean hasteko zerbitzu pertsonalizatua da. Interesatuak Agorrosinera jo beharko dute; martitzenetan da, 10:00etatik 14:00etara Agorrosinen eta 15:00etatik 16:00etara anbulatorioan.

Txistulari banda

Etzi joko dute, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (12:30).

Aldaketak Boluko malda egonkortzeko lanetan

2021eko abenduko luiziarren eta geologoek eta ingeniariak egindako azterketen ostean, malda egonkortzeko bigarren faseko proiektua aldatzeko prozesua hasi du Udalak. Mendi-hegaleko isurketa-uren portaera ikertzeko azterlana ere egingo dute

Jone Olabarria BERGARA

2021eko abenduan gertatutako bigarren lur-jausiak eraginda, maldaren mugimenduak zaintzeko eta eusteko lanak berrikusi behar izan dituztela jakinarazi du Bergarako Udalak. Hala, geologoek eta ingeniariak azterketen ostean, malda egonkortzeko bigarren faseko proiektua aldatzea erabaki dute.

"Luiziarri lotutako egonkortze-neurriekin epe laburrean jarduteko beharra kontuan hartuta", Bergarako Udalak SESTRARI eskatu dio proposamen bat aurkezteko. Proiektu horren oinarri eta behar

nagusiak ere finkatu dituzte bi aldeek: trenbidearen plataforma zaharreko bidegorrian eta haren ingurune hurbilean eusterako eta prebentziorako oinarritzko neurriak gauzatzea.

Oinarriak eta azterlana

Bigarren fase horren baitan, bi pantaila dinamiko jarri gura dira mendi-mazelaren oinean, eta beste bi pantaila estatiko beheko plataformaren ertzean, orain dauden alde banatan. Beheko plataforman ere bi drainatze-jarduera aurreikusituz dituzte, bidegorrian.

Aldi berean, mendi-hegaleko isurketa-uren portaera azter-

tuko duen lan bat egin behar dutela ere jakinarazi dute: "Adituek ikusi dute 2021eko euriteetan, 2017koekiko beste norabide bat hartu duela urak, eta, ondorioz, zaintzen ez zen beste puntu batean eragin du kaltea". INGEKek idatziko du lan hori. Helburua "drainatze-sistemara ura kontrolatuta bideratzeko har daitezkeen soluzioak planteatzea" dela adierazi du Udalak.

SESTRAK eta INGEKek egin behar dituzten azterlanen kostua 35.000 eurokoa izango da, eta proiektu horiek "epe laburrean" onartzea eta jarraian lanak hastea espero du Udalak.



2021eko abenduko luizia sareak eusten zuen gunetik kanpo gertatu zen. GOIENA

Bizilagunak, "zain"

"Denbora tarte honetan egin diren azterketen berri eman eta ondorioen eta aurrera begira egin behar diren esku-hartzeen inguruko informazioa emateko", bertako bizilagunekin batzartu dira asteon Udaleko ordezkariak.

Eraikin kaltetuenetako bizilagunek azaldu dute Udaletik "kontua serio hartu dela" sentitzen dutela, eta hori "esker-tzekoa" dela, baina orain arte "geratuta" egon izana kritikatu

dute. "Bost urte igaro dira, eta geratuta egon dira lanak orain arte. Teknikariak azalpenak entzun ostean, ulertzen dugu lekuak berak ez duela interbentzioa errazten, baina neurriak lehenago hartu behar ziren", adierazi du eraikin kaltetuetako bizilagun Santi Arrietak.

Gogoratu behar da eraikin kaltetuenetako bizilagunek komisio bat eratu zutela otsail hasieran, lanak gertutik jarraitu eta urtea bukatu aurretik konponbide egonkorra exijitzeko.

URBIETA | Barne diseinua



Etxeari aldaketa eman nahian?

Zatoz gurera!

Etxeko gela bat zein etxe osoa eraberritzea, gremioen koordinazio eta guzti!

Utzi dena gure esku!



Erakusleiho zabala, sukaldeak, komunak, egongelak, logelak, sarrerak... Etxea janzteko osagarri guztiekin! Aholkularitza eta aurrekontuak neurrira, 3D irudiekin.

IBARGARAI 11 - 13, BEHEA • BERGARA • TEL.: 943 76 14 50 • URBIETAINTERIORISMO@HOTMAIL.COM • @ f



Zurien taldeko gazteetako batzuk, Ozkarbi elkartearen egindako bazkarian. I.A.



Barrenengua baserriko Maite Sada Hartzarekin dantzan etxe atarian. I.A.



Dantzan Larrabil baserri atarian. GOIENA



Arantzeta baserriko ugazabak Hartzarekin sukaldeko leihoan. L.Z.L.



Altuben San Blas opilen banaketa. I.A.

Harrera bikaina izan du koko-batzeak, eta segida izango du aurrerantzean

Aspaldiko usadio bat berreskuratu dute elgetarrek Inauteriotan. Kokoen taldean 60 bat lagun elkartu dira, eta eskuzabal hartu dituzte herriko hamar baserritan. Gaurko ere bada festa herrian: mozorroak eta 'Dantza saltsa' daude iragarrita arratsalderako

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Jantziak prestatu, jendea konpartsan parte hartzera animatu, baserritarrei bisitaren berri eman, ibilbideak eta denborak neurtu... Lan handiko egunak izan dira antolatzaileendako, baina emaitzarekin ezin gusturago daude, eta itxura guztia hartzen diote koko-batzeak jarrera izango duela Elgetan aurrerantzean ere. "Errazena zen ohitura bat berreskuratzea hiruzpalau lagunekin, baina 60 bat lagunekin ez", azaldu du Goibeko Euskaltzaleen Topagu-

neko kide Iban Arantzabalek. "Ohitura zahar bat da, eta ohitura zaharrek, normalean, osagai asko edukitzen dituzte. Hau, une honetan, guretzako artefaktu kultural bat da komunitatea, euskara, herria eta herrigintza lantzeko. Hartza esnatu da, baina, era berean, esan dezakegu herria ere esnatzen dela. Alde horretatik, oso pozik gaude. Harrera oso ona eduki dugu, batez ere, periferian. Baserrietan harrera oso-oso ona eduki dugu, eta horrek esan gura du seguruenik hurrengo urtean ere

egongo dela halakorik egiteko aukerarik. Esango nuke Hartza esnatuko dela, berrir, Elgetan".

Hamar baserritan zain

Ozkarbi elkartearen gosalduraren ostean abiatu zen kokoen taldea, zapatuan, baserriz baserri. Jalotza, Albitxu, Altube, San Antonio, Arantzeta, Iturbe, Barrenengua, Larrabil, Larrain eta Kantoikuan izan ziren. "Jai hau posible izan da Elgetak baduelako elkarte bat eta urtero kuota ordaintzen duten herritarren laurdena: Elgetako Goibeko Euskaltzaleon



Kokoen taldea, osorik, San Antonio etxe aurrean. M.L.A.

Topagunea. Eskerrik asko Ozkarbi elkarteari, eskerrak kultura inporta zaion elkarte bat dugun herrian! Baita Udalari, lagundu du diruz musikariak ordaintzen. Eskerrik asko Kezka dantza taldeko Oier Araolazari ere, lagundu digu hitzaldi batekin eta erakusketarako materialarekin. Beste herri batean esnatu da Hartza, eta herriz herri egiten da Euskal Herria".

Gaur ere mozorro festa

Mozorrotzeko beste aukera bat dute gaur elgetarrek; izan ere,

gaurko egunarekin ospatzen da Inauteria herrian. Udalak *Dantza saltsa* izeneko saioa iragarri du, 16:30erako, plazan. "Animazio ikuskizun bat da, jolas, ko-reografia eta zuzenean abestutako kantekin", azaldu du Kultura zinegotzi Ane Bilbaok. Eguraldi txarra bada, frontoi zaharrean izango da emanaldia.

Eskolako neska-mutikoez, berri, ikastetxeko ganbaran egingo dute mozorro festa aurtan. Eskolakoek jakinarazi dute webgunean izango direla argazkiak ikusgai ondoren.



Bi elgetar koko jantzita motozerra eta guzti. I.A.



San Antonio etxeok San Andres ermitako estalpean gertatutako hamarretakoa. I.A.



Hartza konpartsako bost gazterekin Albitxu baserri atarian. I.A.



Iturbeko ugazabak eta euren ingurukoak kokoei ongiatorria egiten. I.A.

Heziketa sexuala eta afektiboa ardatz, umorezko antzezlanean

Benetan Be antzerki konpainiako kideek domekan egingo dute emanaldia, kafe antzokian, 18:30ean

L.Z.L. ELGETA

Porno vs Afrodita (edo I love #gorkaurbizu) antzezlanak emango dio amaiera udal liburutegiak otsail hasieran abiarazitako *Biblibero* zikloari.

Patricia Urrutia, Jon Zumelaga eta Juanjo Otero izango dira taula gainean, eta emozioekin, harreman afektibo sexuarekin eta pornografiarekin lotutako gaiak jorratuko dituzte. "Izango da heziketa sexual eta afektiboa ardatz hartuta, helduei eta oraindik heldu ez direnei zuzendutako umorezko antzerkia. Dena,



Antzezlanaren une bat. 'BENETANBE.EUS'



Haur Hezkuntzako jolastoki estalia, Herri Eskolan. ELGETAKO UDALA

Lanak eginda, erabilgarri dago Haur Hezkuntzako jolastokia

Teilatu berria jarri diote espazioari, lurzorua iragazgaiztu dute eta hormak lisatu dituzte buelta osoan

L.Z.L. ELGETA

Elgetako eskolako Haur Hezkuntzako neska-mutikoek erabilgarri dute jolastoki estalia. Aspaldiko urteetan arazoak zeuden espazio horrekin; izan ere, euri egunetan ia guztiz bustitzen zen eremua, eta ezin zen erabili. Udalak lanak egin ditu. Aurrekontua 47.160 eurokoa izan da, BEZa barne. Proiektua onartua izan da Udalaguntza programan, eta inbertsioaren %60 etorriko da bueltan. "HHko jolastokia ezin zen erabili euri egunetan. Ur filtrazio handiak zeuden; ez bakarrik jolastokira

bertara, antzokiraino ere iristen zen ura", azaldu du Hezkuntza zinegotzi Ibai Etxanizek. "Teilatu berria jarri eta lurzorua iragazgaiztu egin da".

Hormak ere egokitu dituzte

Jolastokiko hormetan ere egin dituzte lanak. "Eskolako zuzendariarekin elkarlanean, jolastokiko hormak egokitzeko aprobetxatu dute. Horma horiek harri-txintzarrez eginak daude, metro beteko altueraraino lisatu dira eta lurzorurako erabilgaitako material berarekin murgortu dira".

zuzeneko musikaz blai", azaldu dute antzerki konpainiako kideek. Adituen esanetan, nabaria da haurtzaroan eta gaztaroan alderdi emozionalak eta afektiboak daukan garrantzia. "Gazteek ez dute eskolan informaziorik aurkitzen, eta beste nonbait bilatzen dute: Interneten eta pornografian. Han ikusten dutena euren harremanetara eramaten dute, eta horrek ondorio psikologiko eta fisiko larriak dakartza".

Antzezlanak itxar den gazte batego azken kontzertuan kokatuko du ikuslea. Taldearen azken kontzertua ere izango da. Soinu-proba aurrera doan heinean, taldekideen eta euren inguruko umeen eta gazteen galderak eta pasioak hartuko dute lekua. Betiere, Porno eta Afrodita jainko-jainkosa basatien begirada apatatsuarekin.

Korrika batzordea eguaztenean elkartuko da

Elgetako Korrika batzordea eguaztenean, martxoak 2, elkartuko da hurrengo; 18:30ean da hitzordua, udaletxean. Arropa salmentarekin ere hasiko dira. Mahaia jarriko dute eguenean, 18:00etatik 19:00etara, plazan. Barikuan, martxoak 4, beste bi aukera izango dira: 15:45etik 16:30era eskola atarian eta 18:00etatik 19:00etara plazan.

OHARRAK

Treba Gurasoak

Emozioen garrantzia familian. Nola zaindu seme-alaben emozioak izenburupean egingo diren bi saioetan izena emateko aukera zabalik da astelehenera arte, udaletxean.

Kontularitza tailerra

Martxan da liburutegiko ipuin kontularitza tailerra. Eguaztenean eman zioten hasiera.

Antzerki ikastaroa

Debagoieneko Antzerki Plataformaren eskutik antzerki inprobisatuaren gaineko tailerra egingo du Egoitz Aizpuruk, martxoaren 5ean, Elgetan. Prezioa 60 euro da (Ikus 41. orria).

San Martingo hariztia aztertzen hasi dira

Kimubat enpresako adituak ari dira parkearen azterketa egiten, eta zuhaitzen osasuna, zorua, higadura, argiteriaren onurak edo kalteak, mantentzea... ikertu eta txosten batean jasoko dute, Udalak gero ezer egin edo zelan baloratzeko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

San Martingo hariztiaren inguruko azterketa egiteko eskatu dio Udalak Kimubat enpresari, eta asmo horren berri eta orain arte egindako azterketaren ingurukoak azaltzeko hitzaldia eta irteera egin zuten joan den zapatuan, Natur Eskolak antolatutako ingurumen jardunaldien barruan. Harizti horren egoera zein den jakin gura du Udalak, eta, esku-hartze beharra ikusiz gero, zer edo zelan egin jakiteko aholkuak jaso.

150 urteko zuhaitzak

Oñatiko Udaleko Ingurumen batzordeburu Asier Iraeta eta zuhaitzetan aditu Gabriel Iñiguez hartu zuten parte ekimeanean, herritar talde batekin batera. "Zuhaitzen osasun egoera, lurzorua, higadura, argiteria... Azterketa orokorra egitea da asmoa. Hasita daude horretan, eta hilabete pare bat barru izango dute txostena prest. Hori esku artean izanda baloratu beharko da lanen bat egin beharra dagoen edo ez eta egitekotan ze aukera dauden".

Iraetaren esanetan, XVIII. mendeko dokumentuetan agertzen da San Martingo hariztia aisialdi-gune moduan. Bigarren Karlistaldian zuhaitzak moztu eta gero berriz landatu zirela ere agertzen da artxiboko agerietan, eta horregatik uste dute horko haritz gehienek 150 bat urte izango dituztela. 200dik gora zuhaitz zenbatu dituzte azterketa hau egiterakoan, eta, osasunez ondo dauden arren, duten adina kontutan izanda ez direla beharko luketen beste indartsu hazi ondorioztatu dute orain arte egindako azterketan. "Kendu ahalaz beste bat landatu izan da, eta dentsitate handiko gunea da egun. Hau da, zuhaitz batetik bestera egon beharko litzatekeen distantzia egokiena baino txikiagoa da".



San Martingo hariztia. IMANOL SORIANO

Hurrengo ekintzak

Otsailak 25

- **19:00** Vivir entre volcanes dokumentala, zinema aretoan.

Otsailak 27 arte

- **18:00** Hegaztiak, bizi zantzuak Felix Calvoren argazki erakusketa, kultura etxean.

Martxoak 4 arte

- **16:00** Ate irekiak Natur Eskolan.

Martxoak 5

- **09:00** Zuhaitz azoka, plazan.

Martxoak 6 eta 13

- **Goizean** Zuhaitz landaketak herrigunean 6an eta Aloñan 13an.

Esku-hartzeak, zehazteko

Euzko Alderdi Jeltzaleak eskatu izan du San Martingo parkearen azterketa egitea eta oinezkoen bidea birgaitzea, egungoa "iraganezina" dela iritzita. "Elkarte natura-zaleen aldetik jaso dugun iritzia, berriz, ez da berdina, eta, azkenean, erabaki dugu adituei eskatzea ikerketa egitea". Argiteria jartzeak ze onura edo kalte ekarriko dituen, zorua oinezkoendako edo korrikalariendako egokia den, lurra goxatu beharra dagoen edo ez, hariztiaren eta, orokorrean, parkearen mantentze egokia egiteko aholkuak zeintzuk diren... Hori guztia aztertuko dute Gabriel Iñiguez eta Iban Simon adituek.

Zuhaitz landaketak

Ingurumen jardunaldien barruan, bestalde, datorren astean ere bisita gidatuak egongo dira Natur Eskolan, arratsaldeetan. Urteroko zuhaitz azoka eta zuhaitz landaketak ere egingo dituzte martxoaren hasieran. Unaimendikoa 13an izango da, Aloñako Lagunak taldeko kideekin batera, eta hara joateko aurrez eman beharko da izena: aloinalagunak@gmail.com.

Dirulaguntzak familia-karga duten emakumeendako

Ohiko bizikidetzaren unitatea hautsi eta errenta eta diru-sarrera urriak izanik, euren kargu ume adingabeak dituzten emakumeek dirulaguntzak emango dizkie aurtengo Oñatiko Udalak. Eguneroko gastu arruntak ordaintzen laguntzeko izango da diru hori, eta aurreratutakoa itzuli egin beharko dute edo ez, kasuaren arabera. 2014an hasi zen dirulaguntza hauek ematen Udala, eta aurtengo 10.000 euro bideratuko ditu. Eskuratzeko, Oñatin erroldatuta eta bizi izaten egon behar da urtebete lehenagotik, diru sarrera ezin da izan gutxienezko soldataren %75 baino handiagoa edo Lanbiden izena eman da egon behar da.

Martxoaren 3an izango da Korrikako hurrengo bilera

Datorren egunean, martxoaren 3an, egingo da Korrikako hurrengo bilera. Aurtengo Korrika Oñatitik pasako ez denez, bertako Korrika propioa antolatzea izan da proposamena, eta horri forma ematen saiatuko dira. Beste zein ekintza egin daitekeen ere aztertuko dute. Bilera irekia da, kultura etxeko goiko pisuan, 18:00etan.

Seme-alaben sexualitateari buruz, gurasoekin


Guraso Eskolak antolatuta, seme-alaben sexualitateari buruzko hiru saio egingo dituzte DBH mailako ikasleen gurasoendako, Gehitu elkartearen kideekin. Lehen saioan, aniztasun afektibo sexualaren oinarriko kontzeptuak landuko dira. Bigarrenetan, modu praktikoan eta adibideen bitartez landuko da gaia, etxeetan aniztasunaren trataera landu ahal izateko gakoak emanez. Azken saioan, berriz, erotika eta pornografiaren gaiak landuko dituzte.

Martxoaren 7an, 14an eta 21ean izango dira saioak, 18:15ean, Euskaldun Berria gelan. Parte hartzeko, mezua bidali behar da hona: ainhoa@onati.eus.

Jose Mari Altuna ehiztaria omenduko dute bihar Zanbranan

95 urte izan eta oraindik ehizan ibiltzen den Jose Mari Altuna omenduko dute bihar Zanbranan (Araba), han egingo duten Oñatiko ehiza txapelketaren barruan. Goizean izango da txapelketa eta ehiztari bakoitzeko hiru eper askatuko dituzte. Bazkaltzeko Oñatira bueltatuko dira eta Pago Uson egingo dute otordua denek batera.

GORA ETA BEHERA



Lehentasunak paretak garbitzerakoan

"Udalak horma batzuk garbitzen ditu eta beste batzuk zikin mantentzen ditu. Ezkerreko pareta margotuta zegoen duela hamar egun"; hori dio herritar batek GOIENARA bidalitako mezuak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Odol-ateratzeen neurriak eutsi egingo diete

Aurrerantzean, emailak kopuru zehatza hartuko dute Oñatiko odol ateratzeetan eta txanda aurrez hartu beharko da. Ordutegia oraingo bera izango da. Pandemiagatik hartutako neurriak hobeto antolatzen lagundu diete elkartekoei

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

"Egia da Gipuzkoan odol emate asko egoten direla, baina beharra ere handia da. Duela gutxi, historian lehenengoz, beste autonomia erkidego batetik ekarri behar izan zuten odola. Oso beharrezkoa da. Pandemiagatik, hilabete pare batean-edo etenda egon da zerbitzua, baina neurri berriekin antolatu eta ateratzeak egin dira, premiagatik. Hartutako neurri batzuk, gainera, hobeto antolatzen eta lan egiten lagundu digute, eta horrela funtzionatuko dugu aurrerantzean. Adibidez, aurrerantzean ere aurrez hartu beharko da zita", azaldu du Oñatiko Odol Emailen elkarteak kide Pili Irazabalek.



Joan den egubakoitzean egindako odol ateratzean. O.E.

22 emaileri esker onak

Txanda aurrez hartuta, herri bakoitzeko ateratze kopurua zehaztea lortzen dute elkartekoei. "Herri bakoitzak emailak kopuru jakin bat hartuko du ateratze egun bakoitzean. Modu horretara, arindu egiten da Donostiatik etortzen den taldearen lana", zehaztu du Irazabalek. Oñatiren kasuan, 52 bat emailak aldiro. Ordutegi berria ere mantendu egingo da hemendik aurrera.

Odola askotan eman duten emaileri eskerrak emateko ekitaldiak ere urtero egin dituzte 2020a aurretik. Eibarrera joaten ziren lehen aitortza jaso behar zuten oñatiarrek; azken bi urte hauetan, baina, herrian bertan egin dituzte ekitaldiak. Joan den urtean, 2019koak saritu zituzten; eta joan den egubakoitzean, berriz, 2020koak. 22 zeuden deituta ekitaldian parte hartze- ra: 100 aldiz eman duten bi, 75eko bat, 50 aldiz emandako lau, 40 aldiz emandako bi eta 25 aldiz emandako hamahiru emailak. Hamasei joan ziren ekitaldira. "Euskadin 85.000 ateraldi egiten dira urtean; horietako 30.000, Gipuzkoan. Emailak fidela da hemengoak, eta eskertzekoa da

hori. Odol bankua Galdakaon dago, eta hara eramaten da Oñatin jasotakoa ere. Ateratze bakoitzean, gainera, odola ez ezik, plaketak eta plasma ere ematen dute. Boluntarioki. Ikaragarria da, eskerrak eman beharra dago".

Martxoaren 18an


Hurrengo odol ateratzea datorren hilean izango da, martxoaren 18an. 16:30etik 19:45era eskainiko dute zerbitzua, Mondragon Unibertsitateak Ibarren duen fakultatean.

Odol emailak dira



JON AIZPEURRUTIA
100 ALDIZ EMAN DU ODOLA

"Sudurretik odola askotan botatzen nuelako gomendatu zidan mediku batek odol emailak izatea, eta, harrezkero, ez dut arazo hori izan. Urtean lautan eman izan dut, nahiko konstantea izan naiz. Bergaran ere eman izan dut, futbolearen bitartez garaian egubakoitza egun txarra zelako niretako".



OLATZ ZABALETA
25 ALDIZ EMAN DU ODOLA

"Unibertsitatean nabilela eman nuen lehen aldiz. Ordura arte, odol analisiak ere inoiz egin gabe nituen. Horrelaxe hasi nintzen eta jarraitu egin dut. Ez dut beti egutegia jarraitu, baina saiatu naiz ahal dudana guztietan ematen. Lagun batzuk ere egin dira emailak nik animatuta".

'Anderea' dokumentala ikusgai martitzenean

Mari pertsonaia mitologikoari buruz dagoen ezagutzan sakontzen duen *Anderea* dokumentala eskainiko dute datorren martitzenean, martxoak 1, zinema aretoan. Yolanda Mazkarian zuzendari nafarraren lan luzea da, eta bera ere etorriko da Oñatira, emanaldiaren ondoren solasaldirako tartea eskaintzera. Euskal Herriko hainbat adituekin egonda sakondu du Mazkarianek Mariaren figura; tartean, Pello Zabalararekin.

Udal liburutegiak antolatu duen emanaldia da eta Emakumeen Nazioarteko Egunari eta Aratusteei keinu egin gura izan die dokumentalarekin. 18:00etan eskainiko dute.

Oñatin egitea egokitu den antzerkia izango da bihar Santa Anan

Zuberoako Bonbon Beltz taldeak sortu eta Amancay Gaztañagak zuzendu duen *Harri minak* antzezlanak ikusteko aukera egongo da gaur, egubakoitza, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Oñatin egitea egokitu den lan bat da eta bertan egin dituzte hainbat egonaldi aktoreek, Josune Gorostegui eta Dominika Rekaltek, "Oñatiko errealitatea ezagutzeko". Udalbiltzak bultzatutako Geuretik Sortuak ekimenaren barruan egindako produktua da eta zuloa da lanaren abiapuntua. Oñatiko zuloa, baina beste herri batekoa izan daitekeena, beste 26 herritan ere antzeztuko dute eta. Sarrerak ohiko lekuetan salgai daude, zortzi eurotan.

NIRE USTEZ



JONMIKEL INTSAUSTI

Sinekdokea

Espainiako RAEren hiztegiaren arabera, *Gauza bat beste baten izenarekin izendatzea, metonimiaren antzera, zati bati osotasunaren izena aplikatuz, [...] esan nahi du.*

Geografiari dagokionez, sinekdokea hurbileko kontua dugu. Adibidez, Errioxa Ebro ibaiaren arroaldea bada ere, Cameros barne duen izen bereko komunitatea izendatzeko darabilte egun; hurbilago, Goierri beheko mankomunitateak bere egin du izena, behe eta osoari izen bera emanez.

Halere, fenomeno honen azpian gehien harritu nauena Euskadirena da. Gogoan dut gazte nintzela Euskadik barne zazpi herrialde zituela: halaxe hasi omen ziren Euskadi Irratian, izenari men eginez, Lazkao, Maule zein Tuterako berriak ematen. Egun, EAEren sinonimo da, eta dagoeneko ez dakit Euskadi zer den ezta euskal izenondoak ere zer esan nahi duen. Egunero autoan lanerako bidean, Euskadi Irratian entzuten ditut goizaldeko albisteak. Eta Euskadi aipatzean zazpi herrialdeko lurraldeari buruz ari direla irudikatzen saiatzen naiz berria entzutean. Gizajoa ni.



2017an Luzaideko dantzen erakustaldia egin zuten Errementari plazan; aurten ere ibilbidean sartuko da toki hori. GOIENA

Berdintasunerantz pauso bat Luzaideko dantzetan

Domekan Oñatzekoek eskainiko duten dantzen errepertorio osoa neskek eta mutilek dantzatzeko dute aurten, estreinakoz. 18:00etan abiatuko dira kiroldegi paretik eta ibilbidean ez da aldaketarik izango; amaiera Foruen plazan egingo dute

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Nafarroa Behereko Luzaide herrian Bolanteen Eguna ospatzen dute, eta egun horretan egiten dituzten zenbait dantza ekarriko dituzte, beste behin, herrira Oñatzeko dantzariak, txistularien eta soinu joleen musikaren doinuekin lagunduta.

Luzaideko dantzen bereizgarritasunetako bat dantzariak eramaten dituzten arropak izaten dira. "Neskenek, esaterako, asko pisatzen dute. Entsegurik ez dugu egiten horiek jantzita, baina dagoeneko badaramatzagu hiru bat aste domekan eramango ditugun takoiekin entseatzen, asko aldatzen da-eta dantza egiteko modua edota norberaren sententzia", azaldu du Oñatzeko Intza Osak.

Neskak, dantza guztietan

Orain artean mutilek bakarrik dantzatu izan dituzten *Bolant dantza* eta *Sorginak eta euskaldunak* kantuetan, gainera, emakumezkoek lehen aldiz dantza-

Inauterietako egitaraua

Otsailak 25, egubakoitza

- 19:00 *Harri minak* antzezlan, Santa Anan.

Otsailak 26, zapatua

- 10:30 Inauteriak kalez kale, Eltziatik. 14:00etan amaiera, plazan.

Otsailak 27, domeka

- 18:00 Luzaideko dantzen kalejira, herriko kaleetan.

Martxoak 1, martitzena

- 16:30/17:45 *Bizi zirkua* ikuskizuna, Kiki, Koko eta Flax pailazoekin, Santa Anan.
- 18:00 Txokolate-jan solidarioa, plazan.
- 18:30 DJ festa, plazan.

tuko dute. "Corpusetako dantze-kin emandako pausoaren ostean, lehen aldiz dantzatzeko ditugu neskek eta mutilek Luzaideko dantza guztiak. Azken dantza izaten da, eta nahiko zorrotza, gainera. Begi asko egongo dira, eta ea nola irteten den", azaldu du Osak.

Zapatuan, 210 dantzari

Kalez kale, askotariko pertsonaiez gain, 210 dantzari inguru irten-go dira zapatuan. "Larrialdi egoera zela-eta goizez bakarrik egingo genuela erabaki genuen. Baina argi genuen aurten inoiz baino zentzu handiagoa zuela Inauteriak ospatzeak, azken bi urteetan gertatutakoaren ostean, izurrite bat ekiditeko egiten den erritu bat delako. Bestetik, Oñatiko Inauteriak ospatzeko ditugun hamargarren aldia izango da, nahiz eta guztiz ezin izango dugun borobildu", esan du Oñatiko Inauteriak taldeko Maite Irizarrek, baina guztia dagoeneko prest dutela gaineratu du.



Uxue Osés Egaña eta Maddalen Etxegarai Zelaia, Oñatiko pilotalekuan. GOIENA

Etxeko pilotariak aurrez aurre jardungo dute Azkoitiko finalean

Elkarrekin entrenatu dira aste barruan Oñatin, eta, hain zuzen, elkarren kontra jokatuko dute domekan

A.T. OÑATI

Ados pilota elkarrekin antolatutako Eusko Label binakako txapelketako lehen mailako finalera iritsi dira Uxue Osés Egaña eta Maddalen Etxegarai Zelaia pilotari oñatiarrak, eta amen abizenekin agertzen dira final handiko kartelean, txapelketa horretan hala erabiltzea erabaki zutelako.

Txapelketa nagusian, biek ala biek garaipena eskuratu zuten aurreko egubakoitzean Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatutako neurketetan. Eta asteen zehar, beti bezala, elkarrekin entrenatzen jardun ondoren, domekan elkarren aurka aritu beharko dute, Azkoitian.

Finala, domekan

Elkarren kontra jokatuko dute oñatiarrek, baina biek aitortu dute pozik daudela bata bestearen aurka jokatuko dutelako,

arerio gogortzat duelako bata bestea eta biek lortu dutelako bertan egon ahal izatea.

Txapelketako partidu guztiak irabazita heldu da finalera Egaña, Iera Agirre Iturriagarekin bikote dela, eta harekin jokatuko du finala ere: "Orain finala irabaztea falta, baina edozer gerta daiteke domekan, aurkari gogorrrak izango ditugu aurrean eta". Zelaia, berriz, Olatz Ruiz de Larrinaga Lopezekin jokatuko du. Bikote horrek txapelketako partidu guztiak irabazi ditu, bat ezik: "Biok genuen ilusioa finalera iristeko. Bikote moduan heldu ederra izango litzateke, baina elkarren kontra jokatzeagatik ere, pozik", azaldu du oñatiarrak.

Azkoitiko Gurea pilotalekuan jokatuko da Eusko Label txapelketako finala domekan, 12:00etan, eta Oñatira ekarriko du txapela bata edo besteak.

Eider Egañari omenaldia egingo diote Azkoagainen

Oñatiko lehen emakumezkoa izan zen Eider Egaña futboleko lehen mailan jokatzen. Atezaina da eta 2021eko ekainean debutatu zuen Iberdrola ligan, Huelvako Sportingen aurka, Eibarko taldearekin.

Ohorezko Erregional mailako Aloña Mendiren eta Eibarren aurkako partidua domekan Azkoagainen jokatuko da, 16:30ean,

eta bertan jasoko du omenaldia, partidu hasieran. Ohorezko sarkoa egingo du, gainera.

Egaña oso pozik dago omenaldiarekin: "Sorpasaz hartu nuen, baina ilusio handia egin zidan. Oso argi daukat iritsi naizen lekura iristeko Aloña Mendin egindako lehen urteak erabakigarriak izan zirela; futbolaz gain, balioak ere irakatsi dizkidatelako, eta hori guztia beti eramango dut nirekin. Oso pozik nago herriko kluba nirekin gogoratu delako".

EMUN

Eraldaketa sozialen eragile eta bidelagun

Terminologia konplexuak arrotz bihurtu lezake hizkuntza, egonkortzea berrikuntzaren oztopo bihurtu litekeen pareko. Helburu adierazkorra eskuratzeko nahiak, baina, bidea urratzen jarraitzeko aukera ematen du; nola hizkuntzan, hala berrikuntzan.

Euskara eta berrikuntza sozialaren arloetan gai sozialen kudeaketa ipar hartuta, aholkularitza eta lankidetzak eskaintzen dituen kooperatiba da Emun. Helburu bat gomutan: "Gizarte euskaldun, justu eta iraunkorra lortzea". Barrutik kanpora, kanpoan errora; eragile zein bidelagun izanez, alegia.

Mende laurden trebatzen

Lan mundua euskalduntzeko 80ko eta 90eko hamarkadetan izandako ekimen eta aldarrikapenak izan ziren erakunde arrasatearra sortzeko abiapuntu; 1997. urtean –25 urte betetzen ditu 2022an– marraztutako bideak egungo jardunaren oinarri izaten jarraitzen du. Hots, euskara planen bidez enpresetan euskaraz lan egin ahal izateko laguntza ematen aritzen dira, nagusiki.

Eraldaketa sozialak, baina, ez dira soilik hizkuntzaren aferari lotzen. Mende laurdenean trebatu dira enpresen gizarte



Amaia Balda Etxarte, Emun kooperatibako koordinatzaile orokorra, Arrasateko egoitzaren atarian.

erantzukizunean, trebatu genero berdintasun planetan, parte hartze prozesuetan, edota berrikuntza plataformetan. Eragile lehenik, bidelagun oster. Bide horretan zehaztu dituzte etorkizuneko helburuak, hiru norabidetan biltzen diren erronkak.

Moldeak, izaera eta eragina

Bezera erdigunean kokatuta, lan egiteko moldeetan sakontzea da lehen erronka; hau da, onuradunen "beharrak hobeto ulertzea eta elkarlanean jarduteko berrikuntza espazioak sustatzea". Finean, bidelagun egokiak izatea.



Euskara eta berrikuntza soziala

📍 Uriburu 9 behea, Arrasate

☎ 943 71 18 47

✉ emun@emun.eus

🌐 www.emun.eus

Bestalde, Emun osatzen duten pertsonak zein kooperatibaren kultura zaintzea dute jomugan. Kideen ahalduntzea ahalbidetuko duen "gidaritza kolektiboagoa" dute helburu, eta, horretarako, "hurrengo urteak lan antolamendu berriak probatzen emango ditugu". Bezera etxeak eraldatzeko, norberaren etxea etengabe eraldatzea baita lehen urratsa.

Hirugarren eta azken erronkak, berri, iraunkortasuna du begiz jota; "proiektua iraunkorra izan dadin egingo dugu lan, pertsonengan, ingurumenarengan zein gizartearen eragin orekatua izan dezan".

Enbor bereko adaxkak

Euskara da jatorria, izateko arrazoia eta izateko modua Emunentzat. Baita Goiena Komunikazio Taldearentzat ere. "Modu batera edo bestera, enbor bereko adaxkak gara", jatorria eta helmuga partekatzen ditugulako. "Aurreko belaunaldiak egindako lanaren eta ereindako ametsaren uzta gara".

Goienakide izaera, beraz, euskalgintzako, kulturgintzako zein herrigintzako elkarlanaren ondorio da, nork bere esparrutik, "gure herriari eta komunitateari eraldatzen jarraitu eta aurrera egiteko ekarpena" egiten baitiogu.

POL-POL MENDI TALDEA

Mendiak batzen duen komunitatea

Elosutik Piriniotara; Irutontorretatik Europako mendietara. Nola gazte, hala heldu; nola oinezko, hala eskalatzaile zein korrikalari. Irteerak batzuetan; ikastaro, hitzaldi edo ekitaldiak bestetan. 1942tik, arrazoi eta helburu batek batzen ditu Pol-Polen herritarrak: mendiak.

Euskara oinarri, mila bazkidek gora ditu elkarteak, eta mendian federatu gehiago lortzea dute helburu. Hamaika langai, herri ekimenetik eta herritarren gozamenerako. Bidea egiten jarraitu asmoz, heldu dira Goienakideen tontorrera ere.



📍 San Pedro kalea 10, Bergara

☎ 943 76 48 51

✉ polpol.menditaldea@gmail.com

🌐 www.pol-pol.net



Pol-Poleko hainbat kide, Piriniotara egindako irteera batean.



Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Ibai Larrea, aste barruan Antzuolako plazan, domekan helmuga besoak altxata gurutzatu zuen lekuan. X.U.



Larrea, joan den domekan, herrikideen aurrean helmuga zeharkatzen. I.S. SORIANO

"Errekorra ondu nuen Alzolarekin egindako igoerari esker"

IBAI LARREA ATLETA

MENDI LASTERKETAK Domekan herriko lasterkari batek lehenengoz irabazi zuen Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Gainera, probako errekorra ezarri zuen: 1.02.52

Xabier Urzelai ANTZUOLA

Ibai Larreak (Antzuola, 2002) kros denboraldia sasoi betean amaitu duela erakutsi zuen domekan, etxean jokaturako A8M lasterketa irabazita. Inigo Alzolarekin lehia estua izan zuen; behetik gorako bidean arrasatearraren erritmoari eutsi izana garrantzitsua izan zen gero lasterketa irabazteko. Pentsa, biek ondu zuten lasterketako errekorra. Gipuzkoako kros txapeldun izan berri denak GOIENARI aitortu dio Gipuzkoako txa-

pelak baino ilusio handiagoa egin diola Antzuolako podiumean jantzitakoak.

Zenbaterik zoriondu zaituzte astean?

Egia esan, herrikide askoren zorion mezuak jaso ditut, aste polita izan da.

Gipuzkoako txapeldun izan zinenen baino gehiagok, seguruena?

Bai, zalantza barik. Gipuzkoako kros txapeldun izan nintzenean, atletismoan jarraitzen nautenek zoriondu ninduten, etxekoek, lagunak... Domekan

herritar askoren aurrean irabazi nuen etxeko lasterketa. **Azken metroetan zer pasa zitzaizun burutik?**

Inigo Alzola [bigarren sailkatua] ordurako atzean utzita neukan, eta herrira sartzean jende eza-guna ikusten hasi nintzen... Lagunak ikusi nituenean hunkitu ere egin nintzen, eta helmugan besoak altxa nituen. Gogoan dut besoak altxatzea kosta egin zitzaidala, leher egin-da nengoan.

Posible ikusten zenuen lasterketa irabaztea?

Ez zen aurreikuspenetan sartzen. Entrenatzailearekin berba egin-da, banekien aurrean ibil nintzekeela, baina irabazi... Herrikideek esaten zidaten baietz, eta presio hori sumatu egiten da. Baina banekien jende oso ona zetorrela. Lasterketa aurretik jakin nuen Alzola aurretik zuen marka hobetzeraz zetorrela, eta lasterketan aurrean egoteko hura zen jarraitu beharreko gizona. Oso erritmo gogorrean hasi ginen korrika, gogotik sufritu nuen, eta, hala edo hola, erritmoari eusteko kapaz izan nintzen.

Jaitsiera ondo ezagutuko duzu...

Buruz nekien hanka bakoitza non jarri. Normalean, mendira korrika joaten naizenean, beti egiten dut jaitsiera hori, pentsa... Alzolari tartea atera nahi nion eta jaitsieran estutzea zen nire aukera. Zorionez, lortu nuen.

Aurreko marka ia bi minutu ondu zenuen: 1.02.52. Antolatzaileek adierazi zuten kostako dela marka hori gainditzea.

Lehenago edo geroago etorriko da lasterkari azkarrago bat. Baina egia esango dizut, behetik gorako bidean Alzolak erritmo hori jarri izan ez balu, ez nukeen marka hori egingo. Buruz nabil, baina uste dut 36 minutu pasatxoan igo ginela Antzuolatik Irimora.

Errekorra egitera zindoazela jakin izan bazenu, herrian gehiago estutuko zenukeen?

Ez; dena emanda iritsi nintzen, ez nuen ezer gorde. Ospatzeko ere ez neukan indarrik.

"JAITSIERAN BANEKIEN HANKA BAKOITZA NON JARRI; HOR EGIN NUEN AURRERA"

Ez nekien krosak eta mendi lasterketak horren bateragarriak direnik.

Diziplina ezberdinak dira, baina distantziaren arabera lagungarriak izan daitezke. Ni ez naiz atleta azkarra, baina indarra daukat hanketan, horregatik moldatzen naiz mendi lasterketetan ondo. Gipuzkoako kros txapelketan ordu erdiko lana egin genuen; gutxi gorabehera, Irimora igotzen erabili genuen denbora. Baina Irimotik herrira oraindik bidea geratzen da. Kro-sa oso lagungarria da txispa izateko.

Non sufritzen da gehiago?

Sufrimendu ezberdina da. Krosetan, bihotz taupadak izugarri igotzen dira. Mendi lasterketetan, berriz, hanke gehiago sufritzen dute. Bietan neurtu behar dira indarrak, baina mendi lasterketak luzeagoak dira eta gehiago dosifikatu behar da.

Eta non gozatzen duzu gehiago?

Mendi lasterketetan, seguruena. Etorkizunean, gehiago ikusten dut neure burua mendi lasterketetan krosetan baino.

Egutegiari dagokionez, baduzu non aukeratu, bailaran ere badira lasterketa politak.

Bai, baina distantzia luzeagoa daukate, eta ez nago halako distantzietara ohituta. Korrikalari gaztea nahiz oraindik, eta 20 kilometrotik beherakoak egingo ditut. Bi aste barru, UZ Trail egiteko asmoa dut, Zumarragan. **Dorsal bat jarri aurretik, anaia Ekain eta biok korrikaldi onak eging-dakoak zarete...**

Umeak ginenean egun osoa ematen genuen baserrian elkarren artean lasterketak egin. Orain, min hartuta dago [Ekain Larrea munduko txapelketarako sailkatu zen, baina pandemiak ez zuen proba egitea baimendu], baina pista denboraldian jarduteko asmoa du.

Atzerapenarekin, baina badator Euskal Kopa

SASKIBALOIA MUren harrobiko taldeak etxean, Iturripen, jokatu du asteburuan Euskal Kopa. Maila nazionaleko liderrak kontrario gogorak izango ditu aurrean: Tolosako Redline Mekanika, Bilbao Basket eta Durangoko Tabirako

Xabier Urzelai ARRASATE
Lehen nazional mailako Euskal Kopako finala jokatu du asteburuan Iturripen, eta tartean egongo da Mondragon Unibertsitatea. Urri hasieran hasi zuten torneo hori, baina pandemia tarteko finala atzeratzera erabaki zuten, eta orain, ligako lehenengo fasea amaitu berri dela helduko diote lau finalari. Hala, Ointxe!-k Iturripera ekarriko du fase erabakigarria.

Kontrario gogorak aurrean
Mondragon Unibertsitateko mutilek ez dute lan erraza izango; ligan liderrak dira, baina Euskal Kopako lau finalera iritsi diren taldeen maila oso handia da. Hasteko, zapatuan (19:00), finalaurrekoan, moreek Tolosako Redline Mekanika taldearen kontra neurtu beharko dituzte indarrak. Tolosakoa EBA kategorian jardundako taldea da eta Ointxe!-ko harrobiko jokalariek ezagun batek, Imanol Zeziagak, jokatzen du bertan. "Plazera izango da Imanolen talentu izugarriaz berriro gozatu ahal izatea, baina espero dezagun azken emaitza oraingo honetan Mondragon Unibertsitatearen aldekoa izatea", adierazi dute klubeko ordezkariak.



Maila nazionaleko taldekideak Franen esanak entzuten. BITTOR MUNARRIZ

LIGAN LIDER DAUDE, BAINA KOPAN KONTRARIO GOGORRAK IZANGO DITUZTE AURREAN

Zapatuko beste finalerdia (17:00) Bilbao Basket Fundazioak eta Durangoko Tabirakok jokatu dute. Lehenengoek Bilbao Basket taldearendako harrobi lana egiten dute, eta etorkizun politiko jokalariek gazteak dituzte.

Tabirakok, berriz, esperientzia dauka EBA kategorian. Hala, finalaurrekoetako bi talde onenek domekan jokatu dute finala (12:30, Iturripen).

Ligan liderrak dira
Kopa alde batera utzita, MUko harrobiko mutilak lan oso ona egiten dabilta ligan: dagoeneko lehenengo fasea amaitu dute, eta bigarren fasean, baina, lehenengo faseko garaipenak kontuan izango dituzte. Lanak aurreratu dituzte.

Santanderko txakalaldiaren ordaina

Joan den astean Santanderren partidu oso txarra egin eta gero (54-50), EBA kategoriako MUK etxean jokatu du domekan (18:30). Eneko Mataren taldeak hamargarren dagoen Valle de Eguesen kontra neurtuko ditu indarrak. Arrasatearrek garesti ordaindu dute Kantabriako makalaldia, Getxok aurre hartu die eta sailkapenean. Orain, laugarren daude moreak.



Alex Lorenzo, Ulaciakoen kontra, artxibo argazkian. GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK


FUTBOLA	GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.	MU-Redline Mekanika
O.ERREGION. GIZ.	Atsedena dute.	Zap. 19:00. Iturripen
Real Union-Mondra	GIP. BIGARREN MAILA	Domeka. 12:30. Finala.
Zap. 15:30. Gal.	Atsedena dute.	EMAK. BIGARREN M.
Amaiak Bat-Aretxab.	GIPUZKOAKO TXAP. EMAK.	C. Promete-MU
Zap. 16:30. Errotazar.	Atsedena dute.	Dom. 12:30. Logroño.
Elgoibar-Bergara	ESKUBALOIA	JUNIOR, EUSKAL LIGA
Zap. 16:30. Mintxeta.	EUSK. TXAP. GIZON	Santurtzi-MU
Aloña Mendi-Eibar	Mugarri Ingou-Corazon.	Dom. 12:00. Santurtzi.
Dom. 16:30. Azkoagain.	Gaur. 18:00. Iturripen.	GIP. SENIOR. GIZ.
O. ERREGION. EMAK.	Fagor Professional (atsedena).	Bergara Sora (atsedena).
Atsedena dute.	EUSK. TXAP. EMAKUM.	GIP. SENIOR. EMAKUM.
GORENGO M. IRAUPEN F.	Cons. Aloña Mendi	Bergara Sora. (atsedena).
Mondra-Hondarribia	(atsedena).	PILOTA
Zap. 16:30. Mojatagi.	GIPUZKOAKO TXAP.	Oñatin , gaur (19:30), bi
Gure Txokoa-Antzuola	SoraluceBKE (atsedena).	partidu, senior
Zap. 12:00. Matxada.	GIPUZKOAKO BIG. M.	mailakoak. Zapatuan
Aretxabaleta-Zestoa	Atsedena dute.	(16:30) bost partidu,
Zap. 17:00. Ibarra.	SASKIBALOIA	infantilak eta alebinak.
EMAK. GORENGO. KOPA	EBA	Aretxabaleta , gaur
Atsedena dute.	MU- valle egues	(19:00), lau partidu,
GAZTEAK, EUSKAL LIGA	Dom. 18:30. Iturripen.	alebin eta infantilak.
Aretxabaleta-Leioa B.	MAILA NAZIONALA	Arrasaten , gaur (20:00),
Zap. 11:00. Ibarra.	EUSKAL KOPAKO	partidu bat, alebinak.
ARETO FUTBOLA	LAUKO FINALA:	Bergaran , domekan
MAILA NAZIONALA	Bilbao Basket-Tabirako	(11:30), hiru partidu:
Eskoriatza (atsedena).	Zap. 17:00. Iturripen	Infantilak, alebinak eta
Lagun Onak-Mondrate		nagusiak.
Zap. 17:30. Galdakao.		

Iazko urrezko domina defendatzera, Ourensera

ATLETISMOA Malen Ruiz de Azuak titulua defendatzeko ardura izango du; Maialen Axpe ere bertan izango da

X.U. ARRASATE
Pista estaliko denboraldia urteko hitzordu nagusietako batera iritsi da, asteburuan jokatu dute eta Espainiako Txapelketa, Ourense. Eta Arrasateko bi ordezkari izango dira han lehian: Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe.

Ruiz de Azuari iazko titulua defendatzea tokatzen zaio, baina orain arteko txapelketetan ez ditu nahi moduko markak egin -4,30eko saltoa izan da neguko onena-. Hala ere, Arrasatekoa da faborittoa, kontrarioek ez dute eta salto hoberik egin. Hasiera batean, Miren Bartolome -2020ko irabazlea- eta Monica Clemente -2018ko txapelduna- izango ditu kontrario zuzenenak, eta horiek 4,25eko eta 4,20ko markekin aurkeztuko dira, hurrenez hurren.



Malen Ruiz de Azua, iaz. GOIENA

Axpek 4,15 egin du
Hamabi jauzilari onenen artean egongo da, baita ere, Maialen Axpe. Atletico San Sebastianekoak 4,15eko marka egin du aurtan, baina Bedoñakoa ezin da inoiz baztertu.

Kultura-agendak, ilusioz baina tentuz antolatzen

Edukiera muga kentzeak "arindu eta bizitu" egin du kultura arloa; hala ere, "tentuz" ari dira antolatzaileak ekitaldiak lotzen; Josu Lazkano soinu teknikariaren, Musika Bulegoko Arkaitz Villarren eta Bidean-eko Haritz Zubiatere iritziak jaso ditu GOIENAK

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Otsailaren 14an indargabetu zituzten neurri murriztaile ia guztiak –barruan maskara erabiltzearena izan ezik–, eta kultura-zaleek "pozik" hartu zuten "ohikotik" gertuago dauden kontzertuetara joateko aukera. Antzerkian jarduten dutenek ere "asko estimatu" dute publikoaren goxotasuna, eta bertso-lariak ere pozik daude, plazetara sarriago ateratzeko gogoz.

"Hasi da kultura mugitzen"

Iazko urrian aretoetako edukiera osoa baimendu zuten arren, osasun egoerak baldintzatuta abenduaren 28an berrezarri zuten edukiera %60an, eta, berriz ere atzera egiteko "beldurrarekin", antolatzaileak esku-frenoarekin ari direla dio Josu Lazkano soinu teknikariak: "Ekitaldiak antolatzeko gogo eta asmoa ikusten da, eta ari gara datozen hila beteetarako aurrekontu-eskaerak jasotzen, baina, oraingoz, oso motel". Sentsazio antzerakoak ditu Bidean Produzioak-eko Haritz Zubiatek: "Hasi da zerbait mugitzen, udaberri-rako eta udarako kanpo ekitaldietan sumatzen da hori, baina oso urrun gaude 2019an garai honetan geunden egoeratik. Ekitaldi asko bertan behera geratu dira azken bi ur-



Liher taldea, zapatuan Oñatiko gaztelekuan egin zuen kontzertuan. IÑAKI OLALDE

teetan, eta horiek berreskuratzen ari dira, batetik, programatzailerak, baina, era berean, proiektu asko sortu dira eta horientzako ere tokia egin nahian ari dira, agenda asko dagoeneko oso beteta dauden arren. Egun batetik bestera etorri da neurrien malgutzea, eta horrek asko zailtzen digu agendaren planifikazioa".

Langileen eta aretoen faltan

Pandemiaren eraginez, sektoreko lan-baldintzak asko kaltetu dira, eta arloko langile askok beste lanbide batzuetan murgil-

du behar izan dutela diote Lazkanok eta Zubiatek: "Sektore honetako langile asko autonomoak dira eta hainbat enpresatan egiten dute lan, baina lan-tegietara edo bestelako lanbideetara joan beharra izan dute babarrunak atera ahal izateko, eta aurreikusten dugu, adibidez, ez dela nahikoa soinu teknikari izango. Eskarmentuko teknikariak berriz kultura arlori ekar-tzea zaila da; izan ere, zer berme eman ahal diegu? Eta jende berria edo teknikari gazteak badaude, baina horiek formatzea


ez da egun batetik besterako kontua".

Langileen eskasiaz gainera, areto nahikorik ez dagoela dio Zubiatek: "Talde edo musikari gazteentzat ez dago tokirik. Gaztetxe asko oso ukituta geratu dira, nahiz eta gure eskualdekoak oso aktibo dauden". Horren harira, "areto txikiak babesteko laguntzen edo arautegiaren beharra" aldarrikatu du Musika Bulegoko Arkaitz Villarrek.

Jaialdiak ere abian

Asteon iragarri du Bilboko Udalak uztailaren 3an San Mamesen izango direla Metallica, Weezer, The Hellacopters, Nothing But Thieves eta The Regrettes taldeak. "Pistola-tiro moduko bat izan da iragarpen hori, eta esperantza dugu beste udal batzuk ekitaldiak antolatzen animatuko dituela. Halako kartekek, nahiz eta atzerriko taldeak izan eta euren lantaldea ekartzen badute ere, hemengo jendeari ere lana ematen diote: ostalariez gainera, kultura arloko langileei ere bai", dio Lazkanok, eta zera gaineratu du Zubiatek: "Karanbola-efektu hori ikusten dut nik ere; makro-kontzertuetan edo jaialdietan ikusten ez diren lan asko hemengoek egiten dutela egia da, beste eztabaida bat zenbat diru xahutzen den ezaugarri horietakoak antolatzen".

Musika jaialdi asko oraindik iragarri barik dauden arren, udan eskaintza oparoa izango dela aurreikusten du Villarrek: "Lanean ari dira, eta laster hasiko dira kartelak iragartzen. Musika Bulegotik ere ari gara musika ferietara joaten. Zaboran izan gara, eta laster, besteak beste, Kolonbiara eta Alemaniara joango gara euskal musika esparrua ezagutzera ematera".



IKER GALARTZA

"Antzokiak beteta ikustea itzela da"

IKER GALARTZA
AKTOREA

Gure Zirkua berriz zabaldu bitartean, antzokietan dabil Galartza; Amaia antzokian izango da domekan, Zuhaitz Gurrutxagarekin.

Edukiera muga barik, igartzen duzue ikusleen berotasuna?

Bai, horixe! Aurreko asteburua ikaragarria izan zen. Lehenengo eserlekutik azkenekoraino beteta ikustea ikaragarria da. Oso eskertuta gaude!

Gure Zirkua zabaltzeko gogoz?

Mantentze eta konponketa lanetan ari gara orain, eta baita ikuskizuna berritzeko lanetan ere, maiatzetarako dena prest izateko asmoz.

Eskaera asko ari zarete jasotzen?

Bai, ari gara jasotzen, eta oso pozik gaude. Oraindik iritsi ez garen herri askotatik ari dira deitzen. Ez ditugu oraindik, baina, tokiak zehaztuta.


GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

ARATUSTEAK
2022

MARTXOAREN 1EAN, MARTITZENEAN,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN
DEBAGOIENEN ARATUSTEEN ESKAINITAKO
SAIO BEREZIA

goiena
Zu hemen zaude.





Egubakoitzean egin zuten inaugurazio ekitaldian, ikusle bat margolan bati begira. KAULDI IRIONDO

Forma organikoak eta zuzenak, olio z margotuta

Ander Etxaniz Altube margolari oñatiarraren 'Zein tarte laburra!' bilduma Aroztegi aretoan ikusgai dago, martxoaren 6ra bitartean; azken bost urteetan egindako hamabost olio-margolan abstraktu dira; formatu, tamaina eta euskarri askotarikoak

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Arte Ederretan, pintura arloan, lizentziatua bada ere, euskara irakasle lanetan ari da egun. Talde-erakusketa batean parte hartu zuen orain dela urte batzuk, baina Aroztegiako da Debagoienan bakarka egin duen lehenengoa. "Erakusketekin sentimendu nahastuak ditut; izan ere, erakuslehoi onak dira, duda barik, baina margolanak paretetan eskegitzea baino gehiago da. Lanketa handia eskatzen du, lan bakoitzak bere indarra ez galtzeko, baina, aldi berean, orokorrean, bildumak konposizio egokia izan dezan. Inaugurazio ekitaldian, baina, sentsazio oso onak izan nituen".

Barrokotik sinpletasunerantz

Hamabost lan daude, guztira; denak dira olio-pinturak. "Abstraktuak dira, nahiz eta naturaren eta arkitekturaren arrastoak suma daitezkeen. Forma organikoak eta zuzenak konbinatzen ditut. Pintura-pintura dela aldarrikatuko nuke, hau da, koloreei eta konposizioari balioa emanda; ez dute argazki-konposaketarik".

2017an margotutakoa da zaharrena, eta inaugurazioaren bezperan bukatutakoa berriena. "2020ra bitartekoak Bruselan margotutakoak dira, eta, han erakutsi arren, banuen hemen erakusteko gogoia ere, eta atera egin ditut. Elkarren artean ez-

berdinak dira. Barruan barrokora jotzeko joera daukat –kolore asko, oso deskonposatuta..., eta zaharretan gehiago sumatzen da hori; berriagoetan, gero eta gehiago sinplifikatzen ari naiz, osagaien artean hierarkia markatu guran".

Euskarriekin jolastuz

Formatuarekin, tamainarekin eta euskarriekin jolastu da. "Erakusketako handiena –1,50x1,50– egurraren gainean eginda dago. Bruselako galeria batetik bota zuten koadroa da; hartu eta birziklatu egin nuen. Beste gehienak oihalean margotutakoak dira, eta bi lan paperean egindakoak".

Egoitz Aizpuruk gidatuta, hiru inprobisazio ikastaro martxoan

Elgetan, Aramaion eta Eskoriatzan egingo dute egun bakarreko saio bana, martxoaren 5ean, 12an eta 26an

A. Aranburuzabala DEBAGOIENA

Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatuta, antzerki inprobisatuaren gaineko formakuntza saioak egingo dituzte martxoan; azken urteetan Madrilan antzerki inprobisazioetan

sakontzen buru-belarri jardun duen Oñatiko Egoitz Aizpuruk gidatuko ditu.

Antzerki ariketen eta jolasen bidez, bat-bateko antzerkigintzako oinarriak jasotzea dute tailerrek helburu. 16 urtetik

gorakoek parte hartu ahal izango dute eta gutxienez zortzi lagunendako eta gehienez hamasei lagunendako tokia izango da ikastaro bakoitzean. 60 euro ordaindu behar dira saio bakoitzeko, eta hiruretan izena eman gura izanez gero, 150 euro.

'Dap.eus' atarian

Izen-ematea zabalik dago: dantzerkiplat@gmail.com helbidera idatzi edo deitu 634 45 03 55 zenbakira. Aurrera begira dituzten asmoen berri, *Dap.eus* atarian.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

Bost agenda

'Ilargia eta landareak' agendak zozketatuko ditugu

Parte hartzeko sariaren izena: Agenda



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO UDAL

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harranhandenda.org
Debagoienako Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"zazpion urte" [beziakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 2022/02/25 10:00 orain artean, zozketaren egunaren aurretik, goienakide.org webgunean zozketaren emaitza publikatu ondoren. Zozketaren emaitza publikatu ondoren, irabazlearen izena zozketaren emaitza publikatu ondoren, irabazlearen izena zozketaren emaitza publikatu ondoren.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Amu' antzezlanerako sarrerak ditugu

Arrasate | Amala Antzokia | Martxoak 7

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"Amu" [beziakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 2022/02/25 10:00 orain artean, zozketaren egunaren aurretik, goienakide.org webgunean zozketaren emaitza publikatu ondoren. Zozketaren emaitza publikatu ondoren, irabazlearen izena zozketaren emaitza publikatu ondoren.

Irabazi bi lagunendako otordua

MONDRAGON HOTELA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 1

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jatetxea
[beziakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIAI

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Oñati. Oñatien etxea erosi nuke. Deitu zerbaki honetara: 679 62 69 64

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza bila nabil errentan hartzeko. Lan kontratua daukat eta arduratsuak gara eta orain arteko errenta eta abarren ordainagiriak aurkez ditzahegu. Bi katu ere badauzkagu, garbi-garbiak. 651 89 59 16

Bergara eta inguruak. Bergaran etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da eta gehienez 550 euro ordainduko nituzke. 636 09 18 45

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. Telefonoa: 645 72 92 87

Debagoiena. Etxebizitza errentan hartu nahi dut bikote eta ume txiki batentzat. 632 46 95 39 edo 632 46 62 47

Oñati. Kaixo, oñatiar gazte bat naiz eta etxebizitza bat errentan hartzeko bila nabil. Edozer gauza jakinez gero abisatu zerbaki honetara. 623 24 77 60

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Urbe Auzoan garaje irekia ematen da errentan, trastelekuarekin. 680 67 22 66

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Garbiketarako egiteko edo nagusiei paseatzera laguntzeko gertu nago. Telefonoa: 615 40 61 66

Arrasate eta Aretxabaleta. Lan egin nahi dut pertsona nagusiak zaintzen. Deitu zerbaki honetara: 602 36 61 02

Arrasate eta inguruak. Nagusiak zainduko nituzke. 682 40 53 38

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan eskarmentu handia duen emakumea lan egiteko prest. 688 85 44 78

Arrasate eta inguruak. Zaintza eta etxe, lokal zein denetariako garbiketa lanak egingo nituzke. Egunka edo orduka ere bai. Soziosanitario eta garbiketa titulazioak eta legezko agiri guztiak dauzkat. 632 83 32 44

Arrasate. Aste barruan garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen jarduteko prest nago. Deitu telefono zerbaki honetara: 631 19 08 26

Arrasate. Nagusiak zaintzen, eraikuntzan laguntzen eta animaliak zaintzen lan egingo nuke. Deitu telefono zerbaki honetara: 611 23 34 67

Arrasate. Soziosanitario titulua daukat eta zaintza lanetan jarduteko prest nago. 632 30 61 49

Bergara. Mutila gertu pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, zerbitzari lanak egiteko, banatzaile lanak egiteko, txakurrak paseatzeko edota ebeko garbiketarako egiteko. Telefonoa: 642 36 70 42

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, zerbitzari lanak egiteko, banatzaile lanak egiteko edota ebeko garbiketarako egiteko. Telefonoa: 642 37 01 92

Bergara. Zaintzaile moduan esperientzia duen neska arduratsuak gauze lan egingo luke, etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 662 57 15 75

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka nagusiak zaintzen eta garbiketari lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. 612 56 12 39

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulazioa eta esperientzia dauzkat. 653 36 85 80 (Michel)

Debagoiena. Automobilgintzako mekanikaria lanerako prest. Telefonoa: 632 46 62 47

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanetarako eta pertsona nagusien zaintzarako, orduka zein etxean bertan bizi izaten. Baita askotariko garbiketa lanetarako ere. Telefonoa: 626 91 49 04

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak edo haurrak zaindu, garbiketa lanak egin edota sukaldari laguntzaile izateko. 632 46 95 39

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 631 75 03 97

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. 653 59 45 60

Debagoiena. Emakumea prest umeak edo nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 625 01 08 28

Debagoiena. Eskarmentu handiko emakumea nahiz eta pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 696 84 19 51

Debagoiena. Esperientzia handia duen eta erreferentzia onak aurkez ditzakeen mutila zaintza lanetarako gertu. Orduka, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 602 01 32 58

Debagoiena. Etxean bizitzeko edo orduka, nagusiak eta haurrak zain-

tzen edota garbiketatarako lan bila nabil. Telefonoa: 632 30 61 49

Debagoiena. Etxean bizitzeko zein orduka garbiketa lanetarako, edo haur edo pertsona nagusien zainketarako prest dagoen emakumea. Telefonoa: 602 34 13 00

Debagoiena. Etxeko langile ikasketak dituen emakumea lanerako gertu. Umeak zaindu edo pertsona nagusiei kalera laguntzeko ere bai. Euskaraz apur bat moldatzen naiz. 688 71 08 09

Debagoiena. Garbiketa lanak egiten edo nagusiak zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 603 15 98 00

Debagoiena. Garbiketari, banatzaile moduan edota tabernan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Gizonezkoa gertu kristalak garbitzeko laguntzaile, sukaldari laguntzaile edota pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko. 671 37 43 05

Debagoiena. Haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxean bizitzen. Telefonoa: 631 25 10 19

Debagoiena. Haur edo pertsona nagusien zaintza lanetarako prest dagoen emakumea, orduka zein etxean bizitzen. Telefonoa: 612 55 61 76

Debagoiena. Lanean jarduteko prest nago: garbiketa lanak, pertsona nagusien zaintza, umeak. 634 16 10 92

Debagoiena. Legezko agiriak eta titulu soziosanitarioa duen emakumezkoa pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Telefonoa: 651 03 41 33

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 626 44 46 49

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 672 55 67 35

Debagoiena. Zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 637 58 37 45

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketari lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. Baita asteburuetan ere. 612 27 82 34

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Berehala hasteko moduan. 624 83 95 19

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Berehala hasteko moduan. Deitu zerbaki honetara: 624 83 94 73

Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako egiteko. Orduka, asteburuetan, egunez edota gauetan. Telefonoa: 602 19 06 77

Debagoiena. Neska lanerako prest, nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketatarako. Etxean bizitzeko edota orduka. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 612 40 93 00

Debagoiena. Orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu nago. Soziosanitario titulazioarekin. 632 91 23 61

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 671 39 26 65

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 77 34 95

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintza lanetan eskarmentu handia dau-

kat eta lan egiteko prest nago. 691 28 53 25

Debagoiena. Prest nago pertsonak zaintzeko edo jostintza lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan. Telefonoa: 602 06 52 12

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke. Izan etxean bertan bizi izaten edo asteburuetan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 01 32 58

Umeen zaintza. Unibertsitateko neska gazte bat naiz, arratsaldetan umeak zaintzeko prest nagoena. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 676 83 55 68

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Agapurnia galdu. Abenduaren 25ean agapurniak galdu nituen. Bat aurkitu dut. Norbaitek Gabonetan agapurni urdin bat topatu bazuen, eskertuko nioke telefono honetara deitzea bere bikotearekin elkartu dadin. 688 69 79 96

8. DENETARIK

801. SALDU

Aulki elektrikoa eta joystick-a. Aulkia elektrikoa eta joystick-a dauzkat salgai. Gutxi erabilia. Interesatuok deitu zerbaki honetara. 627 43 92 98. Eskerrik asko.

806. GALDU

Txamarra arrosa. Orkatzategiko bidean alabaren txamarra galdu gauen urtarilaren 30ean. Larrosa kolorekoa eta 14 neurrikoa da. Norbaitek topatu gero, eskertuko nioke deitzea. Nire telefono zenbakia 616 84 93 75 da

808. BESTELAKOAK

Automobila elkarbanatu. Eguneroko Oñatitik Gasteizera (Gamarrara) lanerako bidaia egiten dut eta autoa elkarbanatzea nahiko lukeen norbaitei bila nabil. Nire lan ordutegia 8etatik 16:00etara da. Interesazanez gero jarri kontaktuan 658 86 98 38 telefono zenbakira.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

BERGARAKO ARATUSTEETAKO KONTZERTUA

'Bereziak' Zapata, 16:00 eta 22:00



GOIENA

JAIK: ARATUSTEAK 2022

'Bereziak' Martitzena, 21:00 eta 23:00

EGUBAKOITZA, 25	ZAPATUA, 26	DOMEKA, 27
08:00 Hemen da Miru 88 08:30 Elkarriketap: Maitane Urbiet 09:00 Jaiak: Aratustek '2019 10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Harmailatik 11:30 Musika zuzenean: Wood Strings 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Hemen da Miru 87 13:30 Elkarriketap: Maitane Urbiet 14:00 Albisteak 14:30 Harmailatik 15:00 Albisteak 15:30 Musika zuzenean: Wood Strings 16:00 Albisteak 16:30 Harmailatik 17:00 Albisteak 17:30 Musika zuzenean: Wood Strings 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Harmailatik 19:30 Elkarriketap: Maitane Urbiet 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Musika zuzenean: Wood Strings	08:00 Elkarriketap: Maitane Urbiet 08:30 Hemen da Miru 88 09:00 Hemen da Miru 87 09:30 Kooltur: Dupla 10:30 Aratustek 2019 11:30 Harmailatik 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Hemen da Miru 87 13:30 Asteko errepasoa 14:00 Zubiak 14:30 Aratustek 2019 15:30 Harmailatik 16:00 Aratuste kontzertua 17:30 Musika zuzenean: Wood Strings 18:00 Kooltur: Dupla 19:00 Hemen Debagoiena 20:00 Elkarriketap: Maitane Urbiet 20:30 Zubiak 21:00 Hemen Debagoiena 22:00 Aratuste kontzertua 23:30 Aratustek 2019	08:00 Hemen da Miru 90 08:30 Hemen da Miru 89 09:00 Hemen da Miru 87 09:30 Zubiak 10:00 Asteko errepasoa 11:00 Aratustek 2019 12:00 Aratuste kontzertua 13:30 Zubiak 14:00 Kooltur: Dupla 15:00 Aratustek 2019 16:00 Musika zuzenean: Wood Strings 16:30 Elkarriketap: Maitane Urbiet 17:00 Asteko errepasoa 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Kooltur: Dupla 20:00 Elkarriketap: Maitane Urbiet 20:30 Zubiak 21:00 Hemen Debagoiena 22:00 Elkarriketap: Maitane Urbiet 22:30 Aratustek 2019 23:30 Kooltur: Dupla

EGUBAKOITZA, 25

ZUBIAK

'Bereziak'

21:30

ASTELEHENA, 28

ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK


'Harmailatik'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 2



ASPIAZU FITNESS

KAZETARI GAZTEAK PAULO ASPIAZUREKIN

'Galdegazte'

21:30/23:30

EGUENA, 3

GURE MUSIKARIK EZAGUTZEN

'Akordeak'

21:30/23:30

ESKER ONA

Maika

Mujika Zubizarreta



2022ko otsailaren 19an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, agur omenaldira etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
—
Zenbat eta zenbat umeren gidari izan zaren, ipuinen bidez, jolasaren bidez, irribarretsu irakasten.

Bergaran, 2022ko otsailaren 25ean.

OROIGARRIA

Maika

Mujika Zubizarreta



Etxakiñau nora joan haizenan, baiña bajakiñau nun egongo haizenan, geure akordutan eta bihotzetan.


Aranzadi Ikastolako lankidiak.
Bergaran, 2022ko otsailaren 25ean.

OROIGARRIA

Maika

Mujika Zubizarreta



2022ko otsailaren 19an hil zen.

Zein ederrak izan diren zurekin igarotako uneak. Mila esker, Maika, emandako guztiagatik. Gaur, bihar eta etzi gurekin izango zara beti.

'Poteo Fronton'.
Bergaran, 2022ko otsailaren 25ean.

ESKER ONA

Jose

Olivenza Mendez



2022ko otsailaren 20an hil zen, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2022ko otsailaren 25ean.

OROIGARRIA

Maika

Mujika Zubizarreta



2022ko otsailaren 19an hil zen.

Bizitzaren aurrean izan duzun jarrera baikorra mirestu izan dugu beti. Eredu ederra izan zara guretzat, maittia.

Zure lagunak.
Bergaran, 2022ko otsailaren 25ean.

OROIGARRIA

Maika

Mujika Zubizarreta



2022ko otsailaren 19an hil zen.

Zurekin bizitako guztia handia izan bada, are handiagoa uzten diguzun hutsunea. Lau haizetara esan nahi dizugu maite zaitugula. Bidaia on bat izan, tia Maika.

Zubizarreta familia.
Bergaran, 2022ko otsailaren 25ean.

ESKER ONA

Felix

Otazo Castromonte



2022ko otsailaren 21ean hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko otsailaren 25ean.

OROIGARRIA

Amets

Martin Bastida



2022ko otsailaren 22an hil zen, 10 urte zituela.

Beti izango zaittugu goguan.

Zure gelako lagun eta gurasoak.
Elgetan, 2022ko otsailaren 25ean.

OROIGARRIA

Amets

Martin Bastida



2022ko otsailaren 22an hil zen, 10 urte zituela.

Zure faltak sortzen digun hutsunea eta samina zurekin bizitako momentuen oroimen ederrekin beteko dugu poliki-poliki. Gure artean izango zaitugu betirako. Mila esker, Amets, zure indarrekin oparitu diguzun guztiagatik.

Elgeta Herri Eskolako ikasle, irakasle, guraso eta langileak.
Elgetan, 2022ko otsailaren 25ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 25 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 26 AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 27 JUNCAI: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 28 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 1 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 2 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 3 ESPANOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 25 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 26 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 27 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 28 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 1 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 2 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 3 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 25 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 26 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 27 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 28 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 1 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 3 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2022ko abuztuaren 15era arte:
AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2022 osoan:
URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzun konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkariatzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Aitortza, odola ematearren

Irudian dauden oñatiarrek esker oneko aitortza jaso dute 75, 50, 40 eta 25 alditan odola eman izanagatik. Diploma eta oroigarria jaso zituzten.

2. Zuhaitz Eguna

Bailarako ia herri guztietan ibili dira azken asteetan zuhaitzak landatzen. Leintz Gatzagan ere ibili ziren herritarrek zeregin horretan, erdigunetik gertu.

3. Zilar bat eta bi brontze

Sari horiekin etorri ziren Arrasate Atletiko Taldeko ordezkariak Anoetako belodromoan jokaturako Gipuzkoako txapelketatik. 20, 18 eta 16 urtez azpikoetan lehiatu ziren.

4. Erakusketara bisita

AEDko Zahar Berri mintzalagun egitasmoa kideak *Lezetxiki*, *neandertalen lurraldea* erakusketan egon ziren bisitan, Erik Arevalo arkeologoaren azalpenak entzuten.

5. 62 urte ezkontuta

Carmen Goiena eta Ramon Agirre bergarrek hilaren 27an beteko dute urteurrena. "Zorionak, amona eta aitona! Besarkada handi bat, biloben eta birbiloben partetik".

ZORION AGURRAK



ONATI
Aine Martinez Lopez
Martxoaren 3an, 8 urte. Zorionak, bihotza! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu erraldoi bat. Askok maite zaitugu!



ONATI
Lexuri Altube Arkonada
Martxoaren 2an, 11 urte. Zorionak, polit hori! Jarraitu izaten zaren moduko arduratsu eta jatorra! Mundiala zara! Izugarri maite zaitugu. Muxu goxoak etxekoen, eta batez ere, aitatxoren, amatxoren eta Laiatzen partetik.



ARRASATE
Izadi Ramos
Martxoaren 1ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Disfrutatu asko zure eguna! Ilargiraino maite zaitugu! Jarraitu neskaila alaitxua izaten! Muxu bat familiaren partetik!



ONATI
Julen Odriozola Larrañaga
Martxoaren 1ean, 8 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasau zure egunian! Patxo pilla bat etxeko danon partetik.




BERGARA
Julen Mendiaraz Osinalde
Otsailaren 28an, 4 urte. Zorionak, Julen! Ondo ospatu zure urtebetetzea! Muxu handi bat familia osoaren partetik.




ARAMAIO
Sare Ibabe Etxebarria
Otsailaren 28an, 4 urte. Zorionak, maixia! Ederto pasatu deizule zure egune eta holako sorgintxue izeten jarraitxu! Patxo erraldoi bat, polit hori!



ARETXABALETA
Garazi Igartua Arrieta
Otsailaren 26an, 9 urte. Zorionak, Garazi! Ondo pasatu eguna eta besarkada handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Eider Balantzategi Eiro
Otsailaren 26an, 10 urte. Zorionak, bitxo! Oso ondo pasatu zeure hamargarren urtebetetzean. Mila muxu danon partetik.



BERGARA
Izan Ruiz Vergara
Otsailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Izan! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu handi bat zuretzat!



BERGARA
Malen Azkarate-Askasua Baleztena
Otsailaren 25ean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Merendola eder batekin ospatuko dugu! Muxu handi bat etxekoen partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARRASATE
Aitor Garcia Salaberri
Otsailaren 25ean, 10 urte. Zorionak, Aitor! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu erraldoi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Maia Iñurrategi Aitua
Otsailaren 24an, 4 urte. Zorionak, Maia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat familiako danon partetik.



ONATI
Alba Vaz Olabe
Otsailaren 24an, 5 urte. Zorionak, polit hori! Horrelako saltsera izaten jarri dezazula etxeko guztiok alaitzen. Ondo ospatu eguna eta muxu potolo bat familiako guztion partetik.



ONATI
Lide Irizar
Otsailaren 23an, 4 urte. Zorionak gure etxeko txikinari, etxeko danon partetik.



ONATI
Eñaut Marko Guridi
Otsailaren 23an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Txokolatezko patxo erraldoi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Unax Igarza Sotil
Otsailaren 22an, urtebete. Zorionak, Unax! Ondo pasatu zure lehen urtebetetze egunean! Muxu bat etxeko danon partetik.



ARAMAIO
Aimar Ugartetxe Ugarte
Otsailaren 22an, urtebete. Zorionak, polit hori! Askok guretzau!




BERGARA
Malen Gimber
Otsailaren 21ean, 2 urte. Zorionak, bihotza! Ondo pasatu eguna. Patxo erraldoi bat etxekoen, eta bereziki, Markelen partetik. Askok maite zaitugu!



BERGARA
Nahia Rodriguez
Otsailaren 20an, 8 urte. Zorionak, printzesa. Primeran pasatu eguna. Muxu potolo bat, etxeko guztien partetik!



BERGARA
Haizea Sanchez Roman
Otsailaren 19an, 11 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Besarkada eta muxu pilo bat, etxeko guztien partetik.



ONATI
Izar Arenaza Barriola
Otsailaren 18an, 7 urte. Zorionak, Izar! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzia. Askok maite zaitugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 25

OÑATI Bermeora eta Gaztelugatxera irteera
Pake Lekuko erretiratuendako.
Postetxean, 09:00etan.

ELGETA 'Dantza saltsa' ikuskizuna
Jolasak, koreografiak eta zuzenean abestutako kantuak, Aratusteak ospatzeko. Eguraldi txarra bada, frontoian.
Mendizaleen plazan, 16:30ean.

OÑATI Mendi orientazio ikastaroa
Patri Espinarrekin, Jabetze Eskolaren baitan. Lehenengo saioa.
Euskaldun berria gelan, 17:00etan.

ARRASATE Podemos-Ahal Duguren batzarra
Arrasateko zirkuluaren batzarra.
Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan.

ARAMAIO 'Mamma mia' triki-pandero jaialdia
Triki-kalejira elkartearen eskutik. Sarrerak, hiru euro.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Makillaje ikastaroa
Ordubeteko saioa. Izen-ematea, 17:00etatik aurrera.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Egubakoitz argal' jaia
Leizarra musika eskolako musikariaren eskutik.
Ibarra kiroldegian, 18:00etan.

ARETXABALETA Eñaut Zubizarretaren kontzertua
Poliedro Vol.1 lana aurkeztuko du etxean. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'Vivir entre volcanes' dokumentala
Natur Eskolaren Ingurumen Jardunaldiaren baitan.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ESKORIATZA Aratuste-kontzertua
Musika eskolako bandaren eskutik.
Zaldibar antzokian, 20:00etan.

OÑATI Discipulos De Dionisos eta Crap taldeak
Sarrerak, bost euro.
Ikatx tabernan, 21:00etan.

OÑATI 'Harri minak' antzezlan
Zuberoako Bonbon Beltz antzerki konpainiaren eskutik, eta Amancay Gaztañagak zuzenduta. Josune Gorostegi eta Dominika Recalt oholatza gainean.
Santa Anan, 22:00etan.

BERGARA Aratusteetako kontzertua
Bergarako musika bandarekin eta Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin. Sarrerak, zortzi euro.
Udal pilotalekuan, 22:30etan.

ZAPATUA 26

ANTZUOLA Aratusteak
Goizean, Oinarinen dantzak; ostean, norberak eramandakoarekin bazkaria; eta 21:30ean, Puro Relajo taldearekin dantzaldia.
Pilotalekuan eta Herriko Plazan.

OÑATI Herri mailako ehiza txapelketa
Pago Uso elkartearen eskutik, Zanbranan (Araba).
Zanbranan, 09:00etan.

OÑATI Oñatiko Inauteriak
Eltziatik hasita kalerik kale ibiliko dira, hainbat geldialdi eginez. 14:00etan egingo dituzte azken dantzak, Foruen plazan.
Oñatin, 10:30ean.

LEINTZ GATZAGA Aratusteak
Zirku tailerra, pintxo lehiaketa irekia eta musika emanaldia.
San Migel plazan, 11:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria Musakolan
3-12 urte artekoendako, bi hezitzailearen laguntzarekin.
Musakolako gazte txokoan, 11:30ean.

ESKORIATZA Aratuste-zapatua
12:00etan, musika eskolako dantza taldearen euskal dantzak; eta 13:00etan eta 18:00etan, DJ Motoren emanaldiak.
Fernando Eskoriatza plazan.

ARETXABALETA Bola-jaurtiketa txapelketa
Bolatokia berrinauguratuko dute. Sarrerak, bost euro.
Bolatokian, 12:30ean.

ARRASATE Andaluziaren Eguna
13:30ean, ohorezko brindisa; 18:30ean, ongietorria; 19:00etan, Niña Pastoraren emanaldia; 21:00etan, afaria; eta 23:00etan, Niña Pastoraren emanaldia.
Al-Andalus elkartearen, 13:30ean.

ARAMAIO Inauteriak
17:30ean, kalejira, frontoitik hasita; 18:00etan, mozzorro lehiaketa eta txokolate-jana, Bizente Goikoetxea plazan; eta, ondoren, disko festa, leku berean.
Aramaion.

BERGARA 'Kuikui' ikuskizuna
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken lana. Sarrerak, sei euro.
Udal pilotalekuan, 18:00etan.

ARRASATE 'Mozorro fest'
Gaztetxoendako jaialdia.
San Andresko gazte txokoan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Noa uy, uy, uy' antzezlan
Panta Rhei taldearen eskutik, 2-6 urte arteko umeendako. Noak aitona-amonei bisita egiten dienean, haiek beste modu batera ikusiko dute mundua, bilobaren begietatik. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 19:00etan.

DOMEKA 27

ARETXABALETA Aratuste-domeka
10:00etan, txistularien kalejira; 11:45ean, txino dantza, Santa Ageda neska-mutilen eskutik; 12:00etan, kuadrillen desfilea; 13:00etan, Gesaltza txarangaren kalejira; 17:00etan, *Bixi* gunea, Kurtzebarri eskolako kantxan, 12 urtetik gorakoendako; 17:30ean, Gesaltza txarangarekin kalejira; 18:00etan, DJa, Herriko Plazan; 18:45ean, mozzorro lehiaketaren sari banaketa; eta 19:00etan, Santa Ageda neska-mutilen dantzaldia.
Aretxabaletan.



TXALO

ARRASATE 'Lehendakari gaia' antzezlan
Txalo taldearen lana. Lehendakari hautatu berriak (Iker Galartza) inbestidura hitzaldia prestatzen dihardu, eta psikologoaren (Zuhaitz Gurrutxaga) laguntza beharko du. Sarrerak, hamar euro.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE Familia-meza haurrekin
Katekesi familiarrean parte hartzen edo parte hartu izan dutenendako.
Parrokian, 11:00etan.

BERGARA Txistulari banda
Kontzertua. Debalde.
Osoko bilkura aretoan, 13:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'
0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ANTZUOLA 'Bizi bizi zirkua' ikuskizuna
Kiki, Koko eta Moko pailazoen eskutik. Debalde.
Herriko Plazan, 18:00etan.

OÑATI Luzaideko dantzak
Oñatz dantza taldearen eskutik.
Oñatiko kaleetan, 18:00etan.

ARRASATE 'Furor' talde jolasa
Gaztetxoendako.
San Andresko gazte txokoan, 18:00etan.

BERGARA Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira
San Martin plaza-Barrenkalea-Masterreka-Bideberri-Fraiskozuri-Telesforo Aranzadi-Herrilagunak-Irala ibilbidea egingo dute.
Bergaran, 18:30ean.

ELGETA 'Porno vs Afrodita...', antzezlan
Bibliobero zikloaren baitan, eta Patricia Urrutia, Jon Zumelaga eta

Juanjo Otero aktoreekin. Sarrera debalde.
Espaloian, 18:30ean.

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilen dantza
Azken dantza saioa.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE 'Lehendakari gaia' antzezlan
Iker Galartzarekin eta Zuhaitz Gurrutxagarekin. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 28

ESKORIATZA Axtrokiko urrezko ontziak zuzenean
Arkeologia Museo Nazionalen daude, eta *@manarqueologico* kontuan ikusgai egongo dira gaur.
Online, 12:00etan.

MARTITZENA 1

ARETXABALETA Aratuste-martitzena
10:30ean, txino dantza, 5 urteko neska-mutikoeekin; eta 20:00etan, Txinen hileta. Santa Ageda gazteek zerraldoa eramango dute.
Herriko Plazan, 10:30ean.

BERGARA Aratuste-martitzena
16:30ean, musika eskolako gazte bandaren kalejira; eta 18:00etan, disko festa.
San Martin plazan, 16:30ean.

OÑATI 'Bizi bizi zirkua' ikuskizuna

Kiki, Moko eta Flax pailazoen emanaldi bikoitza: 16:30ean eta 17:45ean. Sarrerak, aurrez. *Santa Anan.*

ARAMAIO Inauterietako tailerra

Makillaje eta mozzorro ikastaroa. 5 urtetik beherakoak, heldu baten laguntzarekin. *Ludotekan, 17:00etan.*

ESKORIATZA Aratuste-martitzena

17:00etan, kukumarroak; eta 17:45ean, Nemux diskoteka. *Fernando Eskoriatza plazan.*

BERGARA 'Dantza saltsa' disko festa

Purruxalda taldearen eskutik. Euria bada, Seminarioko karpan. *San Martin plazan, 18:00etan.*

OÑATI 'Andrea' dokumentala

Yolanda Mazkiaran zuzendari nafarraren lana. *Zinema aretoan, 18:00etan.*

OÑATI Txokolate-jana eta DJ festa

Txokolate-janarekin batutako dirua Gineako proiektura bideratu du herriko elizbarrutiak. *Foruen plazan, 18:00etan.*

ANTZUOLA Erretiratuen mozzorro festa

Merienda egingo dute. *Torresoroan, 18:30ean.*

ARRASATE 'Euskara eta natura txirikordatuz' solasaldia

Eñaut Agirre filologoak eta Iñaki Sanz-Azkue biologoak egingo dute berba, *Gure faunari eta florari begira* liburuan jasotakoak kontatzeko. *Kulturaten, 19:00etan.*

EGUAZTENA 2

ELGETA 'Treba guraso' programako saioa familiendako Bina orduko bi formakuntza saio. Gaur egingo dute lehena. Bigarrena izango da martxoaren 9an. Izena: *udala@elgeta.eus. Udaletxean, 17:00etan.*

ARRASATE 'Haurrak, nerabeak eta hezkidetza etxean' hitzaldia Nerea Loresek egingo du berba, gurasoendako hitzaldi zikloaren baitan. Izena: BAZen, 943-25 20 00 telefonoan edo *Arrasate.eus* atarian. *Kulturaten, 18:00etan.*

ELGETA Korrika batzordea Irekia, herritar guztiendako. *Udaletxean, 18:30ean.*

BERGARA Eguaztenetako azoka Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

BERGARA 'Canto cósmico: el niño de Elche' pelikula Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 3

OÑATI Ate irekiak Natur Eskolan: gaur, azken eguna Eraikinean egindako berrikuntza lanak ikusteko aukera. 17:00etan, bisita gidatua. *Natur Eskolan, 16:00etatik 18:00etara.*

BERGARA 'Zein tarte laburra' erakusketa Ander Etxaniz Altuberen hamabost olio-margolan ikusgai, hilaren 6ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

OÑATI Korrika antolatzeako bilera irekia Oñatin nola ospatu adosteko batzarra. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ELGETA Korrika: arropa salmenta Materiala erosteko aukera. *Mendizaleen plazan, 18:00etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Pasadena Jon Basagurenen eta Libe Garcia de Kortazarren proiektu berria. Taldearen izen bereko diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Delicioso

Zapatua eta domeka: 19:30.

Buscando a la magica Doremi Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

El caso Villa Caprice

Domeka eta astelehena: 19:30.

Chico mocos Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Belfast

Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:30.

Unchurtd

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

La abuela

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 19:55.

Zapatua eta domeka: 22:15.

Super...¿quien?

Egunero, martitzena izan ezik: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15. Martitzena: 16:15, 18:15, 22:15.

La guerra del Amazonas

Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00, 20:00. Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 16:00, 18:00.

Egubakoitzetik astelehenera: 17:00.

Eguaztena: 18:30.

Competencia oficial

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

The medium

Egunero, martitzena izan ezik: 19:25, 22:10. Martitzena: 22:10.

Una nueva era

Egubakoitzetik domekara, astelehena eta eguaztena: 17:00.

El padrino

Egunero, martitzena izan ezik: 20:45.

Muerte en el Nilo

Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:40, 22:20. Martitzena: 17:00, 22:20.

Licore pizza

Martitzena eta eguena: 22:00.

Casate conmigo

Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 20:15, 22:30. Martitzena eta eguena: 17:00, 22:00.

Uncharted

Egunero: 17:00, 19:40, 22:20.

Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 16:00, 18:40, 21:20.

Egubakoitzetik astelehenera: 20:00.

Martitzena eta eguena: 15:45, 18:00.

Canta 2

Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 15:45, 18:00.

Spiderman

Zapatua eta domeka: 16:00. Egunero: 19:00.

Moonfall

Egunero, martitzena eta eguena: 22:00.

Belfast

Egubakoitza, eguaztena eta eguena: 17:00.

Clifford, el gran perro rojo Zapatua: 15:45.

Mama o papa Domeka: 15:45.

Lunaticos

Astelehena: 15:45.

Encanto

Egubakoitzetik astelehenera, eta eguaztena: 17:00.

El callejon de las almas perdidas Egubakoitza, astelehena eta eguaztena: 22:00.

El metodo

Willimas

Egubakoitzetik domekara, astelehena eta eguaztena: 22:00.

GORBEIA

El buen patron

Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 21:30. Domeka: 12:00, 19:00.

Astelehenetik eguenera: 19:50.

Canta 2

Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

Lunaticos

Egubakoitza eta zapatua: 17:05. Domeka: 12:00, 17:05.

Belfast

Egubakoitzetik domekara: 19:35. Astelehenetik eguenera: 17:30.

Muerte en el Nilo Egubakoitza eta zapatua: 17:05, 19:40, 22:15. Domeka: 12:00, 17:05, 19:40.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:05.

Casate conmigo

Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 21:40. Domeka: 12:00, 17:20.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Los sonidos del silencio

Egubakoitza eta zapatua: 19:20, 21:45.

Domeka: 12:00 19:20.

Astelehenetik eguenera: 19:35.

Super...¿quien?

Egubakoitza eta zapatua: 18:45, 20:30, 22:20. Domeka: 18:45, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

La guerra del amazonas

Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

Competencia oficial

Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:40, 22:00. Domeka: 17:20, 19:40.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Uncharted

Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:45, 22:10. Domeka: 12:00, 17:20, 19:45.

KRITIKA

Licorice Pizza

Zuz.: Paul Thomas Anderson. **Herr.:** AEB (2022). **Iraupena:** 133 minutu.

★★★★★

Unibertso bitxia

ANTONIO ZABALA

Paul Thomas Anderson Los Angelesen kokatzen da, joan den mendeko 70eko hamarkadaren hasierako urteetan, Gary izeneko 15 urteko mutil baten eta Alana izeneko 25 urteko neska baten arteko laguntasun eta amodio harremanak kontatzeko. Bien adinak ikusita, batek baino gehiagok pentsa dezake kutsu labaineko film baten aurrean gaudela, baina ez dago horren izpirik ere. Era berean, pentsa genezake filmak ukitu kostunbrista izango duela eta garai hartako erretratu zehatza izango dela. Baina hori ere ez. Thomas Andersonen unibertsoa eta bertan mugitzen diren pertsonaiak nahiko bitxiak izaten dira. Kasu honetan, 15 urteko gaztea aktorea da eta negozio askotan sartuta dago. Hura helduen munduan



GOIENA

mugitzen da, baina gaztediaren ilusioa eta argia mantentzen ditu. Eta 25 urteko neskaren portaerak, berriz, kontzienteagoa izanik, gaztediaren ukitu desantolatua dauka. Bien arteko adin diferentzia nahiko nabarmena denez, euren harremanek gorabehera askotxo izango

dituzte, eta, hain zuzen ere, horien lekuko izango gara. Thomas Andersonen filmak ederrak dira. Enkoadraketak, kamera mugimenduak... Koloreen, abestien eta musikaren erabilerak bikainak dira. Irudiek eta soinuek zuzendariaren unibertso bitxira eramango gaituzte.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Autobonboa

Berriki irakurri dut Peter Higgs Fisikako Nobel saridunari eginiko elkarrizketa batean, nola berak ikusten duen "egiten jakitearen" kultura batetik "jakinaraztearen" kultura batera pasa garela. Mamiak baino azalak gehiago balio duela, alegia. Batez ere, sare sozialetan ematen den autobonboa aipatzen du berak, esparru soziala eta politikoa ez ezik akademikoa ere hartzen duen joera, bere esanetan. "Zure lan jardunaren %50 baino gehiago benetan lanean baino presentzia digitala elikatzea bideratzen baduzu, eskubide osoz, ekonomia berriko kide zara".

Sare sozialek sarritan sortzen dute halako dinamika bat, norberak adierazi nahi duen horrek oihartzunik handiena lortzeko nahian, ahalik eta *like* gehiago lortu nahi horretan, askotan jarrera nartzisista hutsalak elikatuz. Zer esanik ez, horretara bideratzen den denbora guztia! Adibidez, sinatzeaz dagoen akordio horren edukia, agian, gutxienezkoa da, ondoren, txiokatzeak argazki irribarretsu bat ateratzeko aukera baduzu, dela lan erreformarena, dela hezkuntza akordioarena...

Ez dirudi gauza berri-berria denik. Esoporen fabula ezaguna -K.a. VI.a- datorkit burura, mendiek lurrikara izugarrien ondoren sagutxo bat erditu zuteneko.

GOIENA OKM GIDA

"Bezero batzuk senide bilakatu dira urteekin"

GLADYS HERNANDEZ HILARION JATETXEKO ARDURADUNA

Jatetxekoa lan sakrifikatua dela aitortu du, baina jendea ezagutzeko leku aparta, nahiz eta, batzuetan, psikologo eta zaindari lana egitea ere tokatzen zaien ostalariei

Jone Olabarria ARRASATE

Senarrarekin batera jarri zuen martxan Hilarion jatetxea, duela 27 urte. Aurretik, bost urtez aritu ziren kiroldegiko tabernan lanean. Aitortu du berak sukaldaritzaz gutxi dakiela, senarraren ardura dela platerak prestatzea.

Zer da lan honen onena?

Jendea ezagutzeko ematen dizun aukera. Psikologo lanak ere egiten ditugu, batzuetan: aurpegia ikusi eta badakigu nola datorren. Urtero, esaterako, Kaliforniatik etortzen zaigun bezero bat dugu, eta beraiekin harremana mantentzen dugu telefono eta mezu bidez urte osoan zehar. Baditugu bakarrik bizi eta egunero etortzen direnak ere. Egunen batean kale egiten badute, arduratu eta, badaezpada, ea ondo dauden galdetzeko deitzen diegu.

Sakrifikatua ere bada... Denek jai dutenean, zuek lanean.

Bai, bada. Hasi ginenean, bazkariak eta afariak ematen genituen, eta alabak txikiak ziren oraindik. Askotan laga behar nituen haurrak norbaitekin asteburuetan, edo gauetan... Gogorra zen hori.

Bezero onak dira arrasatearrak?

Hainbeste urteren ostean, bezero batzuk familia dira dagoene-



Gladys Hernandez, Arrasateko Larrea plazan dagoen Hilarion jatetxean. J.O.

San Juan bezperan, argindar barik!

"Jatetxea ireki eta bigarren urtean, beteta genuen jangela San Juan bezperako afarian. Egun handia da Arrasaten, eta ospatzeko gogoz genituen bezero guztiak. Afalordua baino apur bat lehenago, argindar barik geratu zen auzunea. Ez genekien zer egin! Kaosa izan zen! Kandlekin saiatu ginen janlekua argizatzen, linternak kozinatzeke, labea ezin erabili... Argindar konpainiara deitu eta deitu ibili ginen! Eskerrak segituan konpondu zela".

ko. Baina oraindik harritu egiten gara askotan; bada arrasatearra izanda, eta hainbeste urteren ostean, ezagutzen ez gaituela dioten jendea.

Non jan duzu ondoen gure bailaran? Gomendioren bat...

Ba, denbora gutxi izan dugu beste jatetxeetara joateko; orain, apur bat gehiago. Baina hemen Arrasaten, esaterako, Udalako bi jatetxeetara joatea plan itzela da, edo Arteagan otordu eder batez gozatzea. Bergaran, adibidez, Lasa jatetxera joatea oso gustuko genuen.

Jatetxea izanda, zuen etxean ere plater elaboratuak edo azkar egin-dako zerbait?

Nik gutxi dakit kozinatzeaz. Nire senarraren kontu laga izan dut beti. Berak kozinatzea maite du eta beti egoten da zerbait txukuna prestatzeko gertu. Askotan esaten diot: "Edozer gauza afalduko dugu". Eta berak ezetz, prestatuko duela zerbait ganorazkoa.

Norekin egingo zenuke otordu eder bat? Zergatik?

Ba, familiarekin, noski. Baina, bestela ere, lankideekin. Pandemi aurretik sagardotegira joaten ginen lantaldea, asteburu pasa... Hori berreskuratuko nuke gustura asko.

Zer menu prestatuko zenioke txunditu nahiko zenukeen norbaiti?

Labean egindako arrainen oso zalea naiz. Baina bestela, Hilarion menua gomendatuko nuke; egunero eskaintzen dugu, prezio itxia du eta gure sukaldearen eta esentziaren adierazle da.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

**ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN
GOIENA LEHIAKETA 2022**

ANTOLATZAILEA:
goiena
Zu hemen zaude.

LAGUNTZAILEAK:
Jon Biain
hankabeltz

**BIDALI ZURE ARGAZKIAK
ETA ESKURATU
OTARRE BIKAIN BAT!**

Jon harategiaren eta Hankabeltz
urdaitegiaren produktuekin osatutako otarrea.

☎/✉ 688 69 00 07

Parte hartzeko epea:
otsailaren 25etik martxoaren 1era

Zozketa: martxoaren 2a